

# Zu hemen zaude. goiena



## 75 URTE OÑATIN KIROLA SUSTATZEN

Oñatiko Aloña Mendi kirol elkarteak 75. urteurreneko ospakizunen berri eman du; martxotik abendura askotariko kirol ekimenak egingo ditu. / 28

Aloña Mendiko, Oñatiko Udaleko eta Gipuzkoako Futbol Federazioko ordezkariak, beste batzuen artean, Azkoagain futbol zelaian, martitzenean. XABIER URZELAI

**Otsailaren 24a ezkerro desagerituta zegoen 56 urteko bergararraren gorpua aurkitu dute Deba ibaian** / 2



**Euriteek hainbat arazo sor dituzte errepidean eta eraikinetan; Urkulu %83 dago beteta** / 3

**Ikusmina eta jakingura sortu ditu Bergaran herriko sinboloen gaineko irakurketa kritikoak** / 20



**GOIENA TELEBISTAREN GAINEKO GEHIGARRIA** / 23

### SINADURAK

	INAZIO NARBAIZA / 19
	MIKEL LEZAMIZ / 6
	XABIER IGARTUA / 29
	ENERITZ URRUTIA / 11
	MIKEL BIAIS / 40



Desgaitasuna ez dute oztopo lan egiteko  
Nekane Ayensari eta Iñaki Barrutiari elkarrizketa

**2MÓ  
99€**  
erreflexuen aurkako  
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpoinaren ezaguerriak.



### MULTIÓPTICAS

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE

943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA

www.multiópticas.com



eskatu hitzordua





Lore Martinez Axpe aretxabaletarra eta Rebeka Ubera elgetarra, Eusko Legebiltzarrerako EH Bilduren hautagaiak. EH BILDU

## EH Bilduren zerrendakide dira Martinez eta Ubera

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako Gipuzkoako zerrendetan bosgarrena da Lore Martinez Axpe aretxabaletarra eta zazpigarrena, berriz, Rebeka Ubera Aranzeta elgetarra; biak ere legebiltzarkide izan dira igaro berri den legegintzaldian

### Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría DEBAGOIENA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dituzte apirilaren 21ean, eta lehiari arituko diren alderdi nagusiek Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hautagaien berri eman dute. EH Bildun, esate baterako, Pello Otxandiano Kanpo izango da Arabako hautagaia eta, aldi berean, baita lehendakari ere; Bizkaian, berriz, Ima Garrastatxu Urbaneja izango da zerrendaburua; eta Gipuzkoan, azkenik, Nerea Kortajaren Ibañez da lehena, baina zerrendakide ditu bi debagoiendar.

Lore Martinez Axpe (Aretxabaleta, 1971) bosgarren hautagaia da Gipuzkoako zerrendetan. Informatika ingeniaria da ofizioz, baina beste zeregin batzuetan aritu da azken urteotan: Gipuzkoako Foru Aldundian, adibidez, Informazio Gizartearen zuzendaria izan zen 2011tik 2015era bitartean, eta Legebiltzarrean izan da 2020tik gaur arte, lege-

biltzarkide lanetan. Rebeka Ubera Aranzeta (Elgeta, 1972), berriz, zazpigarren da zerrendan. Heziketa Fisikoan eta Haur Hezikuntzan diplomatua da, eta baita psikomotrizista ere. Legebiltzarkidea da 2012az geroztik, eta 2014tik 2017ra bitartean Aralar alderdi politikoaren koordinatzailea izan zen.

### Hauteskondeei begira

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako jarduneko lehendakariak martitzenean sinatu zuen hauteskundeetarako deia ofizial egiteko dekretua, eta eguaztenean argitaratu zen EAEko Aldizkari Ofizialean. Kanpaina apirilaren 5eko gauerdian hasiko da eta 19an bukatu, baina alderdiek

**GIPUZKOAN IZAN DIRA OTXANDIANO ETA PRADALES, LURRALDEAZ DUTEN IKUSPEGIA AZALTZEN**

joan den asteburua probestu zuten ekitaldiak egiteko.

Otxandianok, esaterako, Gipuzkoa "abertzalea, independentista, euskaltzalea, aurrerazalea, berdinzalea eta feminista" dela azaldu zuen, eta "euskal proiektu nazionalaren motor funtsezkoa" izan nahi duela. "Badaude baldintzak horretarako. Hark izan beharko luke euskal proiektu nazionalaren abangoardia, badago gehiengoa eta mandatu demokratiko bat, 2023ko hauteskundeetan adierazi bezala".

Imanol Pradales EAJren lehendakariak, berriz, "Gipuzkoa Euskadiren abangoardian dagoela" adierazi zuen, "enpresa, zientzia edo zaintza soziosanitarioan". "Ekonomia, inbertsioa, enplegua, zientzia, teknologia... Ongizatea eta gizarte-kohesioa sortzen duen Euskadirako osagaiak dira. Gipuzkoak du langabezia-tasa txikiena, eta I+G+b arloan inbertsiorik handiena (...) Oparotasun inklusiboaren erudia da. EAJ erudia".

## Atxilotu bat Arrasaten, drogen aurkako operazio batean

Bost miaketa egin dituzte, eta, guztira, zortzi pertsona atxilotu, Arrasaten, Agurainen eta Gasteizen

### A.R.K. ARRASATE

Guardia Zibilak pertsona bat atxilotu zuen martitzenean Arrasaten; ohar bidez azaldutakoaren arabera, drogen aurkako operazio batean. Arabako Guardia Zibilaren Komandantziak eta Madrilgo Informazio Unitate Zentralak gauzatutako operazio bat izan da, Gasteizko Laugarren Instrukzioko Epaitegiak koordinatuta, eta eginbideak sekretuak dira. Hala ere, polizia ohartarazi dutenez, Trinitarios izeneko taldearen aurkako operazio bat izan da, eta drogen trafikoa eta iruzurra egitea leporatzen diote.

07:00ak baino lehen agertu zen Guardia Zibila Erguin kalearen eta Larrea plazaren inguruan, eta ate bat apurtuta sartu ziren; atariko atearen kristala txikituta zegoen. 10:30 aldera ateratu zuten atxilotua etxetik, eta bai-



Guardia Zibila, Arrasaten. GOIENA

ta hainbat kaxa ere. Guardia Zibilaren automobilak garajetan sartu zituzten, eta, ondoren, guztiek egin zuten alde.

Arrasaten ez ezik, atxilotetak egin zituzten Agurainen (Araba) eta Gasteizen ere; guztira, zortzi pertsona atxilotu zituzten.



Goiena Komunikazio Taldearen egoitzan eginiko pintaketak. GOIENA

## Pintaketak egin dituzte Goiena Komunikazio Taldearen egoitzan

Zuzendaritzak herritar oro gonbidatu du "mezulariarengan eragin" baino gehiago, "hedabidea erabiltzera"

### A.R.K. ARRASATE

Pintaketak egin zituzten joan den egubakoitzetik zaturara bitartean Goiena Komunikazio Taldeko egoitzan. *Eolikoak, txikizioa, negozioa, inposaketa, mendiak SOS* zioten pintaketek. Bezperan, trantsizio energetikoaren gaineko erreportajea argitaratu zen GOIENAN. Iritzia plazaratu du Goienako Zuzendaritza Batzordeak. Haren arabera, "eoliken kontra edo alde egon, lekua dago Goienan. Demokrazia da hedabide batek

zaindu beharrekoa, eta baita parte hartzea bultzatzea bazterrekoengatik erdigunean dauden eragileetaraino". Uste du margo-tzeekin "demokrazia" dela "erasotzen dena", eta "Goienan pintaketak egitea eoliken kontra egon eta haizea kondizionatu nahi izatea" dela. "Mezulariarengan eragin nahi izatea baino gehiago, erabiltzera" gonbidatu du herritar oro: "Goiena Debagoieneko komunitatea da, eta denok kabitzen gara. Utzi haizeari libre izaten".

# Urtarril lehorraren ostean, otsail euritsuua

Urtea hasi zenetik egunik euritsuena izan zen astelehena, eta euri zaparradek Debagoiengan kalteak eragin dituzte. Euriteei esker, baina, Urkulu urtegiaren betetze maila igo egin da, eta, gaur-gaurkoz, %83,07an dago

**Miren Arana Pagaldai** DEBAGOIENA  
Azken egunetan protagonistak izan dira Debagoien osoan euri zaparradak; izan ere, iragarrita zegoen bezala, joan den astea ezkerro etengabe egin du euria, eta, gaur egoerak hobera egingo duen arren, Euskalmet agentziak aditzera eman du asteburuan berriz ere temperatura jaitsierak eta prezipitazioak izango direla.

Euskalmetek bailaran dituen estazioek bildutako datuen arabera, Arrasaten 53,6 litro metro koadroko, Oñatin 48,3, Elorregin 32,6, Urkulun 29,7

eta Aixolan 49,3 bildu ziren astelehenean; urtea hasi zenetik egunik euritsuena izan da. Ondorioz, Deba ibaia oso hazita izan da eta Elorregin dagoen estazioa martitzenean birritan iritsi zen maila horira.

Urteko lehenengo hilabetea oso euritsuua izan ez zen arren –izan ere, hamazortzi egunez ez zuen euririk egin–, datuen arabera egoera aldatu egin da otsailean; prezipitazioei dago kienez, behintzat. Urtarrilean 74,9 litro metro koadroko pila-tu ziren Oñatin, eta otsailean,

aldiz, 188,8 litro metro koadroko, otsailaren 28ra arte bildutako datuen arabera. Debagoieneko beste estazioetako datuen arabera, joera bera mantendu da: Arrasaten 82,1 litro metro koadroko bildu ziren urtarrilean eta 184,7 otsailean; Elorregin, aldiz, 68,6 lehenengo hilabetean eta 135,9 bigarrean; eta Urkulun, 68,2 eta 160,3. Aixolan dagoen estazioan jaso dira prezipitazio mailarik altuenak: 94,7 litro metro koadroko urtarrilean eta 195,9 otsailean, hain zuzen ere.



Euriteek Oñatin eragindako kalteak. GONTZAL BELATEGI

## Euriteek eragindako kalteak

Onurak ere izan dituen arren, euriteek kalteak eragin dituzte bailaran. Euri zaparradek Debagoiengan eragindako zailtasunen artean, Oñatin izandako zirkulazio arazoak daude; izan ere, menditik jaitsitako urak Otadui zuhaiztia urez bete zuen martitzenean, eta, horren ondorioz, zirkulazioa oztopatu egin zuen, putzuak sortu baitziren errepi-deetan.

Bestetik, Antzuolan ere izan dira kalteak, martitzeneko gauean zehar ura sartu baitzen ikastetxean. Olatz Lezeta Antzuolako alkateak adierazi zuenez, martitzenean egindako euriteen ondorioz, eskolaren alboan dagoen pinuaren pinaburuek eta adaxkek ur-kanala oztopatu eta hark gainezka eginda sartu zen ura Antzuolako Herri Eskola barrura. Martitzenean bertan jarri zen Udala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin harremanetan, txosten tekniko bat egin eta arazoari irtenbide teknikoa emateko asmoarekin.

## Urtegia betetzen ari da

2023ko azaroan Urkuluren betetze-maila %51,89koa zen, baina poliki-poliki urtegiaren egoera aldatzen joan da. Urte hasierako lehenengo asteburuak euriteak eta hotza ekarri zituen, eta, hari esker, Urkuluko betetze-maila ia %72koa izatera iritsi zen; urtarrilaren 8rako %71,87an zegoen, hain zuzen ere. Ostean, egoerak okerrera egin zuen eta urtarrilaren 20tik 31era ez zuen euririk egin. Gaur-gaurkoz, Urkulu urtegiaren betetze-maila %83,07koa da, eta, 2023ko otsailarekin alderatuta beteago dagoen arren, aurreko urteekin alderatuta nabarmen hustuago dago Urkulu.

# Manifestazio jendetsua Natrako langileen alde

Astelehenetik aurrera lau orduko geldialdiak egiten hasiko dira Natra Oñatiko langileak

## Miren Arana OÑATI

Natrako langileek deituta, manifestazio jendetsua egin zuten zapatuan Oñatiko kaleetan barrera. Ozen entzun ziren Natra Oñatiko langileen aldarrikapenak, lan hitzarmen duin baten alde. Manifestaziorako deiarekin bat egin zuten herriko 26 eragilek.

Aldarrikapenaren artean dira soldadak eta kategoriak eguneratzea, aldizkako kontratu finkoak mugatzea eta laugarren txandako baldintzak duintzea. Natrako langileek errelebo kontratua "xantaia" moduan erabiltzea eta lan erreformen aurkako blindajea "ez erabiltzea" leporatzen diote enpresari. Gainera, mobilizazioak hasi zirenetik, langileak zigortzeko neurriak areagotu egin direla salatu dute. Langileei flexibilitatea eskatzeak zuzenean langileen bizi-baldintzetan eragiten duela azpimarratu dute sindikatuek.

Hori horrela, astelehenetik hasita martxoaren 24ra arte, lau orduko geldialdiak egingo dituzte egunero eta errelebo gutzietan. "Negoziatzeko prest gaudete, baina ez dugu aurrekoa baino okerragoa den hitzarmenik sinatuko", adierazi du LABeko ordezkarik Xabi Llodioi.

# Gizonezko baten gorpua atera dute Deba ibaitik Osintxun

Egunak desagertuta zeraman 56 urteko bergararrarena da gorpua; ibai ertzean zuhaitzen artean aurkitu dute

**Eneko Azkarate Laspiur** BERGARA  
Otsailaren 24tik desagertuta zegoen Moises Etxaniz Beaskoetxea 56 urteko bergararraren gorpua aurkitu zuten atzo, eguena, Deba ibaian, Oxintxun. Hain justu ere, sei egun desagertuta zeramatza-

la-eta bilaketa operazioa abiatzear zutela, lekuko baten deia jaso zuten ertzainek egunean, 11:30ean. Zubillagako suhiltzaileen urpekariek atera zuten errekatik gorpua, 15:30 aldera. Osintxuko irteeran, Soraluzerantz, ibai er-

tzean zuhaitzen arrametan kateatuta aurkitu zuten gorpua. Epailera iritsi ostean atera zuten gorpua uretatik, eta Donostiako Auzitegi Medikuntzako Institutura eraman zuten.

Moises Etxaniz Beaskoetxea ezaguna zen herrian, besteak beste, ostalaritzako profesionala zelako eta herriko zein inguruko hainbat taberna eta jatetxetan lanean jardundakoa zelako. Iazko maiatzetik, Soraluzeiko batzokiko taberna eta jatetxearen kudeatzailea zen.



Zubillagako suhiltzaileak Deba ibaitik gorpua ateratzeko operazioan atzo. GOIENA



Gure hots dokumentalaren egileak: Leire Zinkunegi narratzailea eta Arrate Fernandez zuzendaria. AIURRI

# Emakume urratzaileen ahotsak, eskualdekoen hitzetatik jasota

Maite Aristegi eta Esti Besa debagoiendarrak dira 'Gure hots' dokumentaleko protagonistetako bi, eta lau hamarkadatan haien sektorean emakumeek bizi izan duten egoera azaltzen dute. Martxoaren 8tik aurrera Primeran plataforman egongo da ikusgai

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA 2021eko abenduan Durangoko Azokan estreinatu bazen ere, oraindik zeresana ematen jarraitzen du Arrate Fernandez zuzendariak ekoiztutako *Gure hots* dokumentalak; izan ere, martxoaren 8an Primeran plataforman estreinatuko dute, euskarazko eta euskal *streaming* plataforman. *Gure hots* dokumentalak azken lau hamarkadetan Euskal Herriko emakumeen lan merkatuko egoerak izandako bilakaera erakusten du, hainbat sektore mugarri hartuta. Urte hauetan zehar hainbat saritara izendatu dute ikus-entzunezkoa, baina, hala ere, Fernandezek ez zuen espero "bi urte pasa ostean dokumentalarekin lanean jarraitzea". Lan horretan murgiltzeko aukera izan zuenean, Fernandezek aitortu du "errepaso handia

egitea" iruditzen zitzaioela berrogei urtean zehar gertatutako lan bakar batean aurkeztea, baina, hala ere, egin beharreko ikerketa bat izan zen. "Kontuan hartuta Euskal Herri osoan zentratu dauden ez daukatenak ahotsik beste ikus-entzunezko batzuetan edo eguneroko komunikabideetan, ikusi nuen beharrezkoa zen ikerketa bat zela, eta dokumentalaren generoa

## "ORDUAN IZENIK JARTZEN EZ GENION GAUZA ASKOK GAUR EGUN BENETAKO IZENA LORTU DU"



**MAITE ARISTEGI**  
DOKUMENTALEKO  
PROTAGONISTETAKO BAT

erabiltzea erabaki nuen hainbat sektoretako emakumeei".

### Bailarako ordezkari

Hamalau emakumek osatzen dute dokumentala, urte askoan hainbat sektoretan lanean aritu direnak, eta horietako bi Debagoienekoak dira: Maite Aristegi bergararra eta Esti Besa aretxabaletarra, hain zuzen.

Aristegi beti egon da lehen sektoreari lotuta, eta, haren hitzetan, "baserriko alaba" bat izan da. Hori dela eta, esan daiteke bizi izan duela lehen sektoreko egoera, orokorrean, baina baita emakumezkoaren egoera sektore horretan ere. "Bakoitzaren bakarkako arazoak kolektibo baten arazoak ziren. Orditik, ikusten da orduan izenik jartzen ez genion edo izena jartzen saiatzen ginen gauza askok gaur egun benetako izena lortu duela.

Baserriko emakume asko bigarren lerro batean gelditu ziren, isilarazita, baliorik eman gabeko lana egiten edo gizarte-segurantzarik gabe. Hainbat langile-eskubide ukatuak zeuzkaten, eta juridikoki ere ez zuten inongo babesik". 40 urte atzera eginda gertatutako kontuez ere hitz egiten bada ere, Aristegik dio "gaurkotasun handiko kontuak" direla; izan ere, gaur egun baserriko emakumeek aldarrikatzen dutena da "irtenbideak izatea edo neurritza egindako nekazaritza bat sustatzea".

Besa, berriz, mahasti-zaintzaile eta ardogilea da, eta sektorearen egoeraren berri eman du lanean. Emakumeak urterik urte lehenengo sektorean "aktibo" egon direla dio Besak, "euskarriak" izan direla. Alabaina, egindako lana inoiz ez zaie kontuan hartu, aretxabaletarraren hitzetan. Hala ere, gauzak asko aldatu direla aitortu du Besak: "80ko hamarkadatik aurrera nabari zen gehien aldaketa hori. Ez horrenbeste mahastietan, nahiz eta egia den geroz eta jende gazte gehiago ari dela bertan lanean, baina bai upategian edo administrazio lanetan".

### Bi menderen artean kokatuta

*Gure hots* bi menderen artean kokatzen da; 40 urtean zehar izandako egoera du hizpide, eta, ondorioz, hainbat belaunalditan bizitakoa aintzat hartuta sortzen du istorioa. Belaunaldien arteko talka bat baino gehiago, "bizi-penak elkartrukatzeko bide" bat dela adierazi du Besak: "Egoera asko aldatu da. 90eko hamarkada hasieran oso emakume gutxi ari ziren sektore honetan lanean, eta, gainera, testuinguru ez zen guztiz lagungarria. Gaur egun, egoerak hobera egin du. Duela gutxi gertatutako batez hitz egiten ari naiz, gainera; izan ere, kontu batzuk medio, bi upategitan egon behar izan dugu azkenaldian, eta bietan emakumezkoak egon dira gurekin la-

## "URTEEN PODERIOZ EMAKUMEEN ARTEAN LOTURA OSO ESTU ETA BEREZIA SORTU DELA NABARI DUT"



**ESTI BESA**  
DOKUMENTALEKO  
PROTAGONISTETAKO BAT

nean". Hala ere, Besak garbi dauka "lanean jarraitu beharra dagoela" egoerak hobetzen jarraitzea. "Gaur egun, oraindik, asko dago gaintzeko eta aldarrikatzeko. Garai batean egindako lorpenak baliteke gaur egungo gazteek ez ikustea edo behar besteko garrantzirik ez ematea, horrekin jaio direlako. Abortua ilegala izatea, bozkatzeko eskubideagatik borrokatzea... Hori guztia gazteek ez dute bizi izan, baina gaur egun aldatu behar diren horietan lan egiten dute".

Urteen poderioz "emakumeen artean lotura oso estu eta berezia" sortu dela nabari du Besak, eta horrek gizarte "hoberanzko bidean" doala erakusten dio aretxabaletarrari. "Oso garrantzitsua da elkarlanean aritzea, eta nik uste dut horretan saiatzen ari garela".

### Helburua beteta

Dokumentalaren sorreratik bizipahiru urte pasa eta *streaming* plataforman batean estreinatzeak bi gauza esan nahi ditu, zuzendariaren hitzetan: "Alde batetik, ikus-entzunezkoa plataforman horretan emititzeko bezain ona dela; eta, bestetik, oraindik pil-pilean dagoen gai bat dela". Hori dela eta, Fernandezek dio "oso pozik" dagoela lortutako emaitzarekin. Era berean, onartu du protagonista bakoitzak esandakoak laburtzea lan zaila izan dela: "Emakume guztiak elkarriketatzea plazera izan da. Edizioa oso lan zaila izan da, emakume bakoitzaren testigantzarekin telesail bat egin zitekeen eta. Hala ere, dokumental generoa uztartzea aukeratu nuenez, elkarriketa guztiak hartu eta istorio bakar bilakatzea lan zaila izan da. Dokumentala luzea da, baina testigantzak motz gelditu dira".

Helburua, baina, lortu duela dio Fernandezek. Aurreko hamarkadetako egoera bizi ez zutenek badute orain pil-pilean jarraitzen duten gai horiek lantzeko aukera. "Dokumentala Primeran plataforman egoteak esan nahi du edonork autokontsumorako erabili ahaliko duela eta ikastetxeetan eta unibertsitateetan lantzeko moduko gaia izango dela; izan ere, beharra dago horretarako, eta gaur egungo testuinguruan aukera hori egotea oso aberasgarria da".

# Kultura ekintzak Korrika Egunaren atarian

Kontzertuak, dantzak, kalejirak eta beste zenbait kontu antolatu dituzte Debagoieneko herrietan Korrika Egunaren atarian. Kilometro guztiak saldu dituzte dagoeneko, eta "egun oso berezia" izatea espero dute bailarako dinamizatzaileek

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA Korrika ate joka dabil dagoeneko, eta bailarako herrietan hasiak dira egunaren bueltako ekintzak antolatzen. Debagoieneko bederlatzi herrietakoek izango dute zer egin gaurtik hasi eta Korrika herri bakoitzetik igaro arte;

izan ere, kalejirak, bazkari eta afari girotuak, kontzertuak, pelikulen emanaldiak eta beste zenbait ekintza antolatu dituzte herririk herri.

Ikus daiteke, beraz, Korrikak baduela eraginik bailaran eta debagoiendarrek gogotsu hartzen

dutela egunaren bueltan antolatutako guztia. Debagoieneko Korrika dinamizatzaile Ainhoa Arregik dio bailaran "orokorrean oso erantzun ona" egoten dela eta aurtengoa ere "oso berezia" izatea eta "jendeak hutsik ez egitea" espero duela.



2022ko Korrika Eskoriatzan, azkenekoz Debagoienetik igaro zenean. IMANOL BELOKI

## Kilometro guztiak salduta

Hiru aste besterik ez da falta Korrika bailaratik igarotzeko, eta dagoeneko kilometro guztiak salduta daudela dio Arregik: "Guztiak saldu dira, baina, gure bailaran eskaria oso handia izaten denez, kilometro bakoitza

ondo banatzen saiatzen gara". Herri gehienetan goizeko ordu txikitik igaroko da korrikalarien tropela; edozelan ere, Korrika gauz igarotzea "polita eta hungigarria" izaten dela dio Arregik, eta aurtengoa ere "jai giroan ospatutakoa" izatea espero du.

## Korrika Kultureko egitaraua Debagoienera

### ANTZUOLA

#### MARTXOAK 20

- 07:00. Korrika Antzuolatik igaroko da.

#### MARTXOAK 23

- 19:00. Torresoroen, Bizkarsoro.

### ARAMAIO

#### MARTXOAK 10

- 10:30. Pilota eta bertso saioa.

#### MARTXOAK 17

- Murura mendi irteera, Arrasate eta Aretxabaletakoekin batera.
- 18:30. Bizkarsoro pelikula, kultur etxean.

#### MARTXOAK 22

- 10:30. Bertso saioa.
- 11:00. Karaokea eta disko-festa.
- 11:00. Herria kantuz, Alaiak taldea eta eskolako umeak bilduta.
- 14:30. Korrika Txikia.
- 19:00. Poteo-kalejira, herriko txistulari, trikitilari eta dantzariekin.
- 21:30. Zuk egin zuk jan afaria.

#### MARTXOAK 23

- 02:24. Leintz Gatzagan izango du kilometroa Aramaiok.

### ARETXABALETA

#### MARTXOAK 1

- 21:00. Bertso afaria, Uratz-aldean.

#### MARTXOAK 7

- 19:00. Ni eta nitarrak bakarrizketa, Zاراia aretoan.

#### MARTXOAK 9

- 17:00. Azken festa haurrentzako antzerkia, Zاراia aretoan.

#### MARTXOAK 17

- Murura mendi irteera, Arrasate eta Aretxabaletakoekin batera.

#### MARTXOAK 10

- 19:00. Antton Telleriaren eta Iker Plazaolaren bakarrizketak.

#### MARTXOAK 23

- 03:16. Korrika Aretxabaletatik igaroko da.

### ARRASATE

#### MARTXOAK 3

- 19:30. Badon opera postdramatikoa, Amaia antzokian.

#### MARTXOAK 17

- Murura mendi irteera. Arrasate eta Aretxabaletakoekin batera.

#### MARTXOAK 19

- 19:30. Bizkarsoro film luzea, Amaia antzokian.

#### MARTXOAK 22

- 10:30. Korrika Txikia.
- 18:00. Konpartsen kalejira.
- 19:00. Dantza taldeen eta txistularien kalejira.
- 19:00. Txalaparta, trikitilari eta albokarien kalejira.
- 21:00. Uarkapen Zeuk ekarri, zeuk jan kantu-afaria. Sei Pistols & Trabuko Bat taldearekin.

#### • MARTXOAK 23

- 03:29. Korrika Arrasateetik igaroko da.

#### MARTXOAK 24

- 08:20. Baionara autobusa.

### BERGARA

#### MARTXOAK 6:

- 18:00. Soilik bai da bai hitzaldia, Irizar jauregian.

#### MARTXOAK 14

- 19:00. Bergarako erraldioen eta musika eskolako trikiti taldearen kalejira, San Martin plazatik abiatuta.

#### MARTXOAK 16

- 12:00. Euskal dantzen ikuskizuna Munibe plazan.

#### MARTXOAK 17

- 17:00. Umeentzako zinema: Museoaren zaindariak. Seminarixoan.

#### MARTXOAK 20:

- 06:37. Korrika Bergararik igaroko da.
- 10:00. Korrika Txikia.
- 17:30. Umeentzako jolasak Oxirondon.

#### MARTXOAK 21

- 19:00. 150 Kokoxa taldearen antzezlan, Seminarixoan.

#### MARTXOAK 22

- 22:00. Bertso jaialdia, Seminarixoan.
- Martxoak 23:
- 11:30. Kalejira Musika Eskolako trikitilariekin.
- 13:00. Euskal dantzen emanaldia, Munibe plazan.

#### MARTXOAK 26

- 19:00. Oihaletxea dokumentala eta solasaldia, Seminarixoan.

### ELGETA

#### MARTXOAK 15

- 15:00. Korrika Txikia.
- 16:00. Peto eta bandatxo salmenta.
- 17:30 eta 18:30. Ipuinen ordu berezia liburutegian.
- 18:00. Txistor-jana Ozkarbin Xalbadorperen eskutik jubilatutako elkarteentzako.
- 19:15. Argazki erraldoia plazan.
- Ondoren, Ad Libitum txaranga.

#### MARTXOAK 20

- 08:34. Korrika Elgetatik igaroko da.

### ESKORIATZA

#### MARTXOAK 7:

- 10:00. Huheziko ikasleen jolasak, plazan.
- 18:00. Kontzertuak, plazan.
- 18:00. Kultur etxeko jubilatuen sukaldia.
- Martxoak 21:
- 19:00. Aire dokumentala, Zaldibar antzokian.

#### MARTXOAK 22

- 10:30. Korrika Txikia, herrian zehar.
- 17:00. Eskulanak, plazan.
- 17:00. Gaztelekuan Korrika arratsaldia: kartela, musika eta afari-merienda.
- 18:30. Buruhandiak.
- 19:30. Triki-kalejira, Eskoriatzako trikitilariekin.
- 21:30. Afaria: Zuk ekarri, zuk jan.
- 23:00. Elektrotxufa, plazan.

#### MARTXOAK 23

- 02:37. Korrika Eskoriatzatik igaroko da.

### LEINTZ GATZAGA

#### MARTXOAK 10

- 17:00. Korrika apaingarrien prestaketa.

#### MARTXOAK 17

- 16:00. Euskara Gatzan ekimena, Gatz museumoan hasita.

#### MARTXOAK 23

- 02:04. Korrika Leintz Gatzagatik igaroko da.

### OÑATI

#### MARTXOAK 10

- 19:00. Ibil bedi taldearen kontzertua, gaztetxean, Burrunda Faktoriak antolatuta.

#### MARTXOAK 16

- Irteera gaztetxetik Iruñera.

#### MARTXOAK 19

- 18:00. Euskararen egoera gaur hitzaldia, kultur etxean.

#### MARTXOAK 20


- 19:00. Entzuteko lan isila (2017), kultur etxean.

#### MARTXOAK 22

- Korrika Eguna. Korrika Txikia, Gauargi taldea, Oñatzen sorgin dantza plazan, elektrotxaranga Arranotik hasita, kantu-afaria gaztelekuan eta DJak gaztetxean.

#### MARTXOAK 23

- 04:21. Korrika Oñatitik igaroko da.
- 22:00. Malko taldearen kontzertua, gaztelekuan.
- Martxoak 24:
- 08:00. Baionara autobusa, Enpresagintzan.





ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ

# Galizian ere aldaketa dator

Nahiz eta Galiziako hauteskundeak Alderdi Popularrak irabazi dituen, aldaketa datorrela ikusten da. Bi alderdi nagusi finkatu dira –Euskal Autonomia Erkidegoan bezala (EAJ eta EH Bildu)–: Alderdi Popularrak (PP) eta Bloque Nacionalista Galego (BNG).

Alderdi Sozialistak hirugarren taldea izaten jarraitzen du – bost parlamentari galdu ditu, eta bederatzik bakarrik lortu–. Sumar eta Podemos alderdiak banatuta joan dira, eta horrek ez die mesederik egin: desagertu egin dira, eskuin muturra bezala.

Baina PPK bi parlamentari galdu ditu eta BNGk sei irabazi, eta horixe da aldaketa nagusia etorkizunera begira. BNG erreferente bihurtu da Galizian, aldaketa sozialen eta ezkerreko komunitatearen ikuspegitik.

PPk eta eskuin muturrak 732.984 boto batu dituzte eta ezkerreko BNG, Sozialistak, Sumar eta Podemos batuta,

## ONGI ETORRI BERRIRO BIZITZA POLITIKORA ETA ESKERRIK ASKO GURI ERE ITXAROPENA EKARTZEAGATIK

706.790 boto. Beraz, ikusten da 26.000 botoko diferentzia txikia dagoela eskuinaren eta ezkerrearen artean eta BNGk etorkizun oparoa izan dezakeela, aurreko hauteskundeekin konparatuz bikoiztu egin dituelako botoak.

Garbi ikusten da Hego Euskal Herrian, Galizian eta Katalunian Espainiarekin konparatuz pentsamolde desberdina dagoela eta alderdi nagusiak ez direla berdinak. Espainiako Parlamentuan PP eta PSOE dira nagusi, nabarmen, baina beste herrialde batzuetan alderdi soberanistek zeresan handia dute. Eta ikuspegi hori hurrengo hauteskunde orokorretan islatuko da, ziur asko, BNG ere euskal alderdiekin eta alderdi katalanekin indar bateratua izango delako Madrilgo Parlamentuan.

Galizia orain arte ez dugu kontuan izan, uste genuelako haren subiranotasun asmoa galduta edo lotan zegoela. Madrilgo Kongresuan BNGk parlamentari bat bakarrik dauka, eta ez du ahotsik, talde mistoan dagoelako. Baina galiziar herria piztu edo esnatu egin dela dirudi, eta luzarorako izango da, ziur.

Ongi etorri berriro bizitza politikora eta eskerririk asko guri ere itxaropena eta alaitasuna ekartzeagatik.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Periferia

#### NEREA LOIOLA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/8BRVZ](https://labur.eus/8BRVZ)

Astean zehar ez du inoiz siestarik egiten, umerik gabeko tarte osoa aprobetxatu nahi izaten du lanerako. Baina araua zerbait bada, salbuespena da. Ur beroaren poltsa prestatu, pijama jantzi eta ohean sartu da. Berehala nabaritu du loa etortzen, pisu, gozo. Tirrin. Tirrin-tirriiiiiinn. Salto batean jaiki da txirrina jo duena madarikatzen, siesta zerk izorratu dion asmatzen. Mezulari bat. Eskatu ez duen kutxa luzanga bat. Ezagunak zaizkion helbide eta izenak.

Karrikiriborda. Zuberoa. Irribarre bat.

Gorputz batek tenperatura oso baxuetan krisi termikoa pairatuz gero, organo bitalak babesteko asmoz, gorputz-adarrak galtzea lehenetsiko du; horregatik izozten dira lehendabizi atzamarrak, behatzak eta sudurra. Edo beste modu batera esanda: krisi egoeran, erdigunea indartzeko ahaleginetan, periferia sakrifikatzen mekanismoak aktibatuko dira.

Analogia hori gure errealitate soziolinguistikora ekarriz, euskararen mapak oso garbi adierazten du erdigunea dela Euskal Herriko zona euskaldunena eta, beraz, periferia *sakrifikatzen* joan

garela erdigune horren alde. Kontua da, erdigunea babestu nahian, periferia azken muturreraino *sakrifikatzen* jarraitzen badugu, periferia hau erdigunetik geroz eta gertuago izango dugula, periferia desagertu eta hilzorian gu geu aurkitzeraino.

Labana bat hartu eta, siesta oro ahazturik, kutxa ixten duten zinta itsasgarriak urratu ditu: patea, ezta, txokolata, bestelako gozo eta kutixiak. Eta Holtzarteko zubiaren postal bat. Azken esaldia irakurtzerako oilo ipurdiak pijamako mauka zeharkatzen dio: Xiberoa eta Zarautz artean eraiki dezagun zubi bat Holtzartekoa bezain luzea eta azkarra.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
EGOITZA NAGUSIA  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.550 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## BERBAGAI

# "Energiaren kontsumoa handia da eskualdean"

ARITZ AMEZTEGI D2030EKO ENERGIA EREMUAREN ARDURADUNA

**Julen Murua Mesonero** OÑATI Martitzenean Oñatin izan zen D2030eko energia eremuko arduradun Aritz Ameztegi (Andoain, 1972), Goienagusik antolatuta Debagoieneko trantsizio energetikoaren gaineko hitzaldia egiten. Harekin aritu da GOIENA eskualdeko egoera energetikoaz.

**Debagoieneko energia diagnostikoa egin du Tecnaliak, Debagoiena 2030ek eskatuta; zergatik?**

Energiaren eremuan lanean hasi ginenean, informazioa falta genuela konturatu ginen.

Trantsizio energetikoaren estrategia definitzeko, egoera ezagutu behar genuen eta eskualdeak izan ditzakeen aukerak jakiteko bertako ahalmena neurtu beharra zegoen. Egoeraren argazki edo diagnostikorik gabe ezin dugu jakin zein arazo ditugun, eta, ondorioz, hartu ditzakegun erabakiak okerrak izan daitezke.

**Zein dira diagnostiko horren ondorio nagusiak?**

Debagoieneko herritarrak 2019an, batez beste, Gipuzkoa (8,1), EAE (8,4) edo Europako biztanle batek (7,9) baino tCo2 isurketa/biztanleko gehiago sortu zituen (8,53). Energia kontsumoari dagokionez, sektoreka banatzen da kontsumoa: Industrian (%50), garraioan (%33) eta eremu



Aritz Ameztegi, D2030eko energia eremuko arduraduna. J.M.M.

urbanoan (%17). Energia asko kontsumitzen da eskualdean. 2019an izan zen argindar sorkuntza berriztagarri bitartez lortu nahiko bagenu bederatzi Elgea parke eoliko, 45 Oletako minihidrauliko edo 544 Ekiola fotovoltaiko beharko genituzke. Esan dezakegu argindarraren kontsumoaren %14 lortzen dela berriztagarri bitartez, eta %10 Elgeak ematen ditu. Hurrengo urteetan fotovoltaikoan saltoa ematea espero dugu energia komunitate eta autokontsumo partekatuen eskutik, baina

gaur egun ekarpena testimoniala da.

**Berriztagarrietara saltoa egitea da helburua; Debagoienak zein iturri berriztagarri erabiltzeko aukera du, batez ere?**

Txostenean biomasa eta teilatuen FV ahalmenak landu dira. Urtean Debagoienean lortu daitekeen egurra basorik suntsitu gabe kalkulatu da eta eskualdeko bero beharraren %68 asetzeko gai izango litzatekeela atera da. Bestalde, teilatuetan plakak jartzten badira eskualdeak izango

lukeen potentzia kalkulatu da eta argindar kontsumoaren %58 lortu daitekeela ikusi dugu. Potentzial handia dago, baina teilatu eta baso gehienak pribatuak dira eta jabe askoren eskuetan daude. Teilatuen kasuan, baliabide hori aktibatzea izango da gure erronketako bat. Bestalde, zentral hidrauliko berririk ez da espero; lege berriak zaharren birpotentziazioa edo utzita dauden zentral martxan jartzea onartzen du soilik. Azkenik, haizea dugu: minieolikoak, oraindik, mesfidantza sortzen du, eta, eoliko handiei edo eskala handiko proiektuei dagokienez, dituzten inpaktuak kontuan hartuta, azterketa sakonagoa behar dute. Proiektu handiak eskualdean garatu behar diren, non eta zer eredutan erabaki kritikoak dira, askotariko iritziak sortzen dituztenak. Beharrezkoa da gizarte bezala pakto sozial berria eraikitzea Debagoieneko trantsizio energetikoa zer zutabetan oinarrituko den erabakitzeko.

**Trantsizio energetikoa egiterakoan, non jarri beharko du Debagoienak arreta?**

Kontsumo murrizketan eta autokontsumoan oinarritutako eredu energetiko berria eraikitzen ari gara, baina berandu goaz, eta lerro guztiak landu behar ditugu. Lehenetsi beharko bagenu, lehenbizikoa kontsumo murrizketa da, sektore guzietan izan behar dena. Bestalde, egokiak diren teilatu guztiak plakaz bete beharko genituzke. Bi neurri horiek ez digute behar dugun energia guztia emango; beraz,

aldi berean erabaki beharko genuke gizarte bezala falta den energia nondik sortu edo ekarri beharko genukeen, eta, horretarako, irizpideak zehaztea ezinbestekoa da.

**D2030 ekimenak energia-komunitateak bultzatu eta hedatzeko helburua du; zergatik energia-komunitateak?**


Trantsizio energetikoa kanpo enpresa bati ordaindu dakiok, baina hori ez da nahiko genukeen eredua. Gure eredua garapen komunitarioan oinarritzen da; bertako arazoei bertako baliabide eta pertsonekin erantzun beharko litzatekeela eta onurak sortzen badira bertan gelditu beharko litzatekeela uste dugu. Bestalde, pandemiak erakutsi digu gure kanpo dependentsia izugarria dela. Etorkizuneko gizarteak ez dakigu zer itxura izango duen, baina trantsizio horretan gizarte antolatua badaukagu gizarte sendoagoa izango dugu eta trantsizioa azkarrago gertatuko da. Gainera, edozein krisiren aurrean erantzun hobea eman ahalko dugu.

**"GIZARTE BEZALA PAKTU SOZIAL BERRI BAT ERAIKITZEA BEHARREZKOA IRUDITZEN ZAIT"**

**"GURE EREDUA KOMUNITATEAN OINARRITZEN DA, EZ KANPO ENPRESA BATI ORDAINITZEA"**

## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI





San Andres auzoko Gudarien plazak gaur egun duen itxura, autoak sartzen diren lekutik. E.A.B.

# Plaza berritzeko galdetegia, abian

Urria ezker, San Andresko Gudarien plaza eraberritzeko parte-hartze prozesua martxan dauka Udal Gobernuak, eta, horren baitan, galdetegi bat jarri du herritarren eskura; funtsean, hiru aukeraren artean bozkatu daiteke, ereduak baino ez diren arren

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Gudarien plaza berriro urbanizatzeko asmoz, udazkenean abiatu zuen parte-hartze prozesua Udal Gobernuak. "Lehenik, hainbat saio egin genituen bizilagunekin, iritziak, ideiak eta proposamenak jasotzeko asmoz. Urrian, plazan bertan elkartu ginen, eta han jasotako datuekin Etxaluzen ere beste saio bat egin genuen", azaldu du Garazi Etxeberriak, Hirigintza zinegotziak.

Prozesu horren baitan, galdetegi bat abiatu dute orain, nagusiki bi bloketan banatuta dagoena: lehenik, hiru aldagairen inguruko galderak egingo dizkiete bizilagunei: plazaren gaur egungo erabilerari eta elementuei buruzkoak –aparkalekuak, aterpea eta jaietako karpa edo agertokia–; plazaren naturalizazio mailari buruzkoak –naturako elementuak txertatu

edo ez, zuhaitzen presentzia eta tamaina edota zoru eta landaretza motak–; eta, azkenik, etorkizuneko erabilerari buruzkoak –jolas eta jarduera fisikorako eta atsedean hartzeko guneak definitzeko–.

Bestetik, bizilagunek lehenetsi beharko dute zein plaza eredu nahi duten: aparkalekuak dituen, plaza erakoa berdegune batzuekin edo parke itxura daukana. "Hiru aukerak infografia batekin lagunduta datoz, ereduaren gerturatze bat izateko. Infografia horiek simulazio bat besterik ez da, proiektua idaz-

**HERRITARREK MARTXOAREN 7RA ARTE IZANGO DUTE AUKERA GALDETEGIA ERANTZUTEKO**

terakoan definituko baita plazaren izaera", dio Etxeberriak.

**Bereziki, erabiltzaileentzat** Galdetegia betetzeko aukera arrasatear guztiek duten arren, bereziki bizilagunei eta plazaren erabiltzaileei zuzenduta dagoela dio zinegotziak. "Uste dugu garrantzitsua dela erantzun duen horrek ze lotura duen plazarekin eta ea benetan erabiltzen duen".

**Plaza berritzeko lanak, 2026an** Galdetegia martxoaren 7ra arte bete ahal izango da. Ondoren, hortik jasotako erantzunak eta datuak gidalerro moduan erabiliko ditu Gobernuak proiektua idazteko eta lizitazioarako pleguak prestatzeko. "Hori 2024an egingo dugu, eta obrak, berriz, 2026rako ditugu aurreikusita. Hala dago jasota Gobernu Planean", zehaztu du zinegotziak.

## Hiru eredu daude galdetegian



**APARKALEKUAK** Egungo plazaren antzekoena izango litzateke. Aterpeko espaloia zabaldu egingo litzateke, haren irisgarritasuna eta argiztapena hobetuz, eta, ondorioz, egungo aparkalekuaren edukiera heren bat murriztuko litzateke, gutxi gorabehera.



**PLAZA** Diferentzia nabarmenena izango litzateke autoek ez luketela sarbiderik izango. Halaber, irisgarritasuna eta argiztapena ere hobetuko litzateke eta, herritarrek erabakitakoaren arabera, zuhaitz eta landare batzuk jarriko litzateke.



**PARKEA** Aukera honetan ere autoek ez lukete sarbiderik izango; irudian ikusten den bezala, parke itxura hartuko luke guneak. Kasu horretan ere irisgarritasuna eta argiztapena hobetuko luke Udal Gobernuak, edozein kasutan.



# Elkar zainduz aurrera egiteko lanean dihardute

Gaur zortzi izango da Emakumeen Nazioarteko Eguna, Martxoaren 8a, eta, horren harira, egitarau mardula antolatu dute Arrasateko Udalak eta Emakume Txokoak, 'Elkar zainduz aurrera goaz' lelopean; Helena Azkarragaurizarrek egin du kartela

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Martxoaren 8ari begirako kartela eta egitaraua aurkeztu dituzte asteon Arrasateko Udalak eta Emakume Txokoak. Horretarako, besteak beste, Eva Abuin Feminismoa eta LGTBI+ Saileko zinegotzia, Esther Lizarralde Emakume Txokoko teknikaria eta kartelaren egile Helena Azkarragaurizar artista arrasatearra bildu ziren prentsaurrekoan.

*Elkar zainduz aurrera goaz* izango da aurtengo leloa. "Hausnarketa feminista sustatu eta zaintzaren garrantzia aldarrikatzeko helburuarekin aukeratu dugu", adierazi du Abuinek.

## Aurten, lehiaketarik ez

Helena Azkarragaurizar artista arrasatearra egin du aurtengo kartela, eta nabarmentzekoa da, beste urte batzuetan ez bezala, aurten ez dela lehiaketarik egin. "Izan ere, azken urteetan emaitza ez zen nahi bezalakoa izaten ari, eta kartela Arrasateko emakume artistei enkargatzea erabaki genuen batzordean. Horregatik, aurrerantzean, herriko emakume artistekin lan egingo dugu", zehaztu du Abuinek.

Gaia zaintzan zentratuta egonik, ideia hori ohiko elementu batekin islatzen saiatu dela dio artistak. "Elementu hori poltsa beroa da eta emakume bat poltsa bero handi batekin doa kartelean. Poltsa beroak zaintza pertsonal edo kolektiboak irudikatu ditzake, eta, ibiltari izanda, norbait zaintzera doan pertsona ere izan daiteke; baita, leolari eutsiz, aurrea goazen irudikapena ere", azaldu du.

## 'Emakume izoztua' Kulturaten

Egitarauari dagokionez, hainbat ekintza egongo dira, "hausnarketa feminista sustatzeko asmoz eta zaintzaren garrantzia aldarrikatzeko". Hala, martxoaren 7an egingo dute lehen ekintza: *Emakume izoztua* liburuaren



Atzo, eguna, egin zuten prentsa agerraldia, Emakume Txokoan. MIREN ARANA

## MARTXOAREN 8KO KARTELAK ZAINZA JARRI DU ERDIGUNEAN, POLTSA BEROAREN BITARTEZ

aurkezpena, hain zuzen, AEDk, Udal Bibliotekak eta Emakume Txokoko irakurketa feministen guneak elkarrekin antolatuta. 18:30ean izango da, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.

## Egun handia, egubakoitzean

Martxoaren 8an bertan, askotariko ekintza eta mobilizazioak izango dira: batetik, 11:30ean, Sasoibideren eskutik, Lilabide martxa egingo dute, bost kilometrokoa, emakumei zuzenduta -Biteri plazatik-; bestetik, Neska\* Gazteak eta Ikama taldeak kontzentrazioa egingo dute Herriko Plazan, 12:00etan. 17:30ean, Seber Altube plazan, Arrasateko emakume sahararrek tea eskainiko diete herritarrei, eta gero, 18:00etan, *Emakume sahararren borroka* hitzaldia egongo da. Azkenik, 19:00etan Seber Altube plazatik abiatuta, mani-

festazioa egingo dute, Arrasateko Mugimendu Feministak deituta, *Gure bizitzekin negoziarik ez* lelopean. "Azpimarra jarri nahi diegu ekimen horiei, eta herritarrei dei egiten diegu bertan parte hartzera", diote.

## Apirilera arte iraungo du

Egun handiaren ostean ere izango da zertaz gozatu. Izan ere, martxoaren 9an, emakume artisauen eta ekoizleen azoka egongo da Seber Altuben, 10:00etatik 14:00etara. Leku berean, 12:30ean, *Kalean otso etxean uso* antzezlan eskainiko du Patata Tropikala antzerki taldeak.

Martxoaren 13an, bestalde, *Ez dadin bizitza eten* liburua aurkeztuko du Miren Aranguren Etxartek, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.

Martxoaren 17an, era berean, Emakume Master Cup txapelketako finala jokatu dute Uarkape pilotalekuan, 12:00etan.

Egitaraua apirillean borobilduko dute, 12an, hain zuzen. Modu horretan, *Trapu zikinak* antzerki emanaldia egongo da Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean, 19:00etan, Lore More taldearen eskutik.

## Langile baten heriotza eragin zuen lan-istripua salatzen dute

Sindikatuak mobilizazioak egin dituzte istripua salatzen, eta Udalak lan-baldintzei buruz hausnartzea eskatu du

### E.A.B. ARRASATE

Astelehenean, 54 urteko langile bat hil zen Galizia kalean. ELA eta LAB sindikatuek jakinarazi dutenez, hildakoa Arrasateko Udalaren promozio publikoko lan bat egiten ari zen eta Altuna y Uria enpresak azpikontratutako Proyectos y Obras Garci enpresarentzako ari zen lanean. Sindikatuek jaso dituzten datuen arabera, igogailu baten instalakuntzan azken erremateak egiten ari zela, hiru metroko altueratik erori zen behargina, eta bertan hil zen.

Udalak adierazpen instituzionala egin zuen, eta lan-istripuen aurkako salaketa. "Eusko Jaur-laritzako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea den Osalari heriotzaren nondik norakoak argitzeko eskatu dio Udalak. Beharrezkoa da langileen osasun eta segurtasun neurriak bermatzea".

Halaber, ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE-etxaldea eta Hiru sindikatuek istripua salatzen mobilizazioak egin dituzte, eta Debagoieneko Ezker Anitza-IUK ere salatu du ezbeharra.

## Gobernu Plana aurkezteko saioak "positiboak" izan dira

Auzoz auzo ireki diren espazioek elkarri entzuteko aukera zabaldu dutela dio Gobernuak, eta "oso eskertuta" dago herritarrek izan duten jarreragatik. "Oso ariketa positiboa izan da. Auzoetan auzoko gaiez hitz egiteko espazioak beharrezkoak direla ohartu gara. Aurrera begira, elkarri entzuteko espazio horiei jarraipena ematea da asmoa".

## Laneko Autodefentsa Sareak bulegoa ireki zuen atzo Arrasaten

"Lan arloan izaten diren arazoaren aurrean, langileentzat aholkularitza zein irtenbideak topatzeko eta antolatzen espazioa izango da", LASEtik azaldu dutenez. Atzo egin zuten inaugurazio-ekitaldia, Amerika Elkar-taaren egoitzan, Jose Luis Iñarra kalean. Oraingoan, behintzat, hilabetean behin zabalduko dutela adierazi dute.



# Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

**otsailak 25 - martxoak 13**



errigora.eus

Eskatu Nafarroa hegoaldeko aliba-oliba birjina astra, arrosa, pasta, kontxak, lekaleak eta ando labeak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.





Maider Morras, Goiena telebistako platoon, *Harira* saiko elkarrizketa grabatu ostean, martitzenean. ANDER MONEDERO

# "Lekualdaketak jauzi kualitatiboa emango dio Emakume Txokoari"

Arrasateko alkate gisa zortzi hilabete daramatzan honetan, Goiena telebistako 'Harira' saioan izan da Maider Morras (Arrasate, 1976); orain arte egindakoaz eta, batez ere, egiteko dagoenaz aritu da; gaur emango dute saioa, 18:30ean, 20:30ean eta 22:30ean

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Agintaldiko lehen zortzi hilabeteak "onak" izan direla dio Maider Morras Arrasateko alkateak. "Ilusio handiz hasi ginen eta pozik gaude, karguak ardura handia duen arren, ohorea baita norbere herriko alkate izatea".

Lau urteko bidea, ordea, hasi besterik ez da egin, eta aurrera begirakoez aritu da, nagusiki, Morras. Joan den astean aurkeztu zuten plan estrategikoaz galdetuta, zera erantzun du: "Agintaldia aurrera doan heinean, bidelagun garrantzitsua izango da, bai guretzat eta baita herritarrentzat ere. Gure eredu herritarrekiko gertutasunean oinarritzea gura dugu, eta, bide horretan, auzoei garrantzi handia emango diegu. Hala, auzoz auzo aritu gara herritarren ekarpenak eta kritikak jasotzen, eta behin eta

berri errepikatuko dugu arikeria hori. Bide-orri garrantzitsua da plana, baina egindakoa fiskaletzeko ere balio dezake herritarrentzat".

Hain zuzen, herritar batek "txakurren zainketa arautuko duen ordenantza bat" eskatu du eta begi onez ikusi du Morrarek: "Ekarpen ona da; geroz eta txakur gehiago daude herrian, eta beharrezkoa da hori arautzea".

## Trantsizio ekologikoaz

Klima aldaketarekin lotuta, herriaren zaurgarritasun plan baten beharra ere ikusi du he-

**"ALDE ZAHARREKO  
HERRITARREI  
PAZIENTZIA ESKATZEN  
DIEGU; ABUZTUAN  
IZANGO DUTE ZUNTZA"**

rritar horrek, eta honako hau erantzun du alkateak: "Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun Sailak azterketa batzuku eginda ditu eremu batzuetan. Esaterako, lehen aldiz elkartu gara baso-jabeekin eta hainbat ekarpen egin dizkigute. Halaber, badakigu berdeguneak zabaltzea eta zuhaitzak landatzea garrantzitsua dela beroaren aurkako neurri bezala. Planik ez daukagu oraindik, baina badakigu ze noranzkotan joan behar dugun".

Era berean, garraio publikoa indartzeak daukan garrantzia ere nabarmendu du, eta, Zalduspeko autobus geltokiaren behin-behinekotasunaz galdetuta, erantzun du herritarrek erabakiko dutela geltokiaren etorkizunaz: "Halere, geltoki berriak duina izan behar du, estalia eta komun egokituak dituena. Zal-

duspe ez da kokapen txarra; betiere, ondo konektatuta bada go gainontzeko auzoekin".

TAO sistemari buruz, bestalde, aldaketak behar dituela esan du. "Hasierako sistema nahasia zen, eta, gerora aldaketak egin diren arren, oraindik kexa asko daude; beraz, ordenantza aldatu egingo dugu, parte-hartze prozesua eginda".

Espazio naturalak berreskuratzeari ere garrantzia eman nahi dio Udal Gobernuak: "Etxezarreta, Santa Barbara eta Monterron parkeak ondo konektatuta egotea gura dugu. Halaber, Etxezarretan lorategi botaniko bat egokituko dugu".

## Igogailuak, laster martxan

Hirigintzari helduta, Santa Teresako igogailuak "laster" erabilgarri egongo direla dio, eta proiektua aurrera doala. "Egia da Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza batekin gauzatu ari den proiektua dela eta herritar batzuek onurak jaso dituztela laguntza horretatik, baina beste batzuek ez. Beraz, aztertzen ari gara nola orekatu hori, herritar guztiek aukera berberak izan ditzaten".

2024ko beste inbertsio handietako bat Jose Luis Iñarra kalearen eraberritzea izango da, bi milioi euro baitituzte aurreikusita horretarako. Edozelan ere, ez du askorik aurreratu alkateak: "Oraindik proiektua egiten ari gara eta lanak 2026an hasiko dituztela aurreikusten dugu".

Horrez gain, alde zaharreko zuntz optikoa ere izan du berbagai: "Hasiera batean, 89 bizilagunek eskatu zuten zuntza, eta orain, 24 bizilagun gehiagok eskatu dute. Beraz, luzatu egin behar izan dugu kontratua. Badakigu obra gehiegi luzatzen ari dela eta bizilagunendako gehiago itxarotea dela, baina pazientzia eskatzen diegu. Abuztutik aurrera izango dute zuntza kontratatzeak aukera".

## 'Cohousing' proiektuaz

Mesedetako ikastetxea izan zen eraikina zerbitzu publikoa emateko erabili gura dutela azpima-

**"ITURRIPEKO ETA  
MUSAKOLAKO  
PROIEKTUAK HANDIAK  
DIRA; ZORPETU  
EGINGO GARA"**

rratu du Morrarek: "Batetik, gazteentzako alokairuko etxebizitzak jarri gura ditugu, emantzipazioa ahalbidetuko duena; bestetik, adin nagusikoentzako etxebizitzak ere egokitu gura ditugu han. Dagoeneko harremanetan gaude Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin".

## Feminismoa erdigunean

Feminismoa erdigunean jarriko duen Gobernu dela ere zehaztu du, eta, nagusiki, bi lehentasun dituztela arlo horretan: "Emakume Txokoaren lekualdaketa eta horrek ekarriko duen jauzi kualitatiboa. Gure herria aitzindaria izan da feminismoan, baina azken urteotan atzean gelditzen ari da, eta indar berezia eman gura diogu". Kokapen berriaz galdetuta, tren geltoki zaharra aipatu du aukera nagusien artean: "Emakume Txoko langileek eta mugimendu feministako ordezkariak ikusi dituzte lokalak, eta hirigintza-azterketa baten zain gaude. Hiru urte barru errealitate bilakatzea da helburua".

Bestalde, LGTBI kolektiboarekin "politika bereziak" egingo dituztela adierazi du: "Orain arte ahaztuak izan dira, eta zor historiko bat dugu haiekiko".

## Iturripe berritua, 2027rako

Kirol instalazioez ere aritu da alkatea: "Iturriperi dagokionez, hango lurra Gizabidea Fundazioarenak dira, eta lur horiek gureganatu gura ditugu, baliabide ekonomiko asko bideratuko ditugulako horra. Hala ere, zintzoak izan behar dugu herritarrekin: Iturripe ezin da urtebetean eraberritu. Aurreikuspena da 2027rako egitea". Horrez gain, Musakolako kiroldegiko proiektua "agintaldiko azken bi urteetan" egingo dutela zehaztu du. "Biak ala biak oso proiektu handiak dira, eta zorpetu egingo gara", ohartarazi du.

## "Kulturola txiki geratu zaigu"

Kultura arloan, alkateak dio Kulturola "txiki" geratu dela dagoeneko. "Arrasaten, zorionez, eragile eta kolektibo asko daude, eta, funtzionamendua ona den arren, dinamizazio lanak ere beharrezkoak izango dira, kulturaren belaunaldiartekotasuna bermatzeko". Amaia antzokia guztiz eraberritzeko lanak, azkenik, bi urte barru hasiko dituztela zehaztu du.

# Dagoeneko eman daiteke izena udaleku itxietan

Txatxilipurdi elkarteak antolatu ditu, eta, hain zuzen ere, ekainaren 29tik uztailaren 6ra GaraiOnen elkartuko dira adin askotariko gazteak; horrez gainera, 'Kosta ala Kosta' udaleku ibiltariak egingo dituzte uztailaren 7tik 14ra

## Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Zabalik dago Txatxilipurdiren udaleku itxietan izena emateko epea. Joian den otsailaren 27an ireki zen epea eta apirilaren 26ra arte irango du. Arrasatearrek lehentasuna izango dute martxoaren 5era arte, eta, ondoren, Euskal Herri osora zabalduko dute izena emateko aukera.

Lau eskaintza egongo dira aurtengo udaleku itxietan: alde batetik, Arabako Ozeta herrian dagoen GaraiOn Sorgingunean zortzi eguneko kanpaldia egingo dute, ekainaren 29tik uztailaren 6ra. Bertan, hiru herrixka antolatuko dituzte, adin tarte ezberdin bakoitzeko bat. LHko 4-5-6koen herrixka Aizkomendi izango da, DBHko 1-2koena Gera eta DBHko 3-4koena, berriz, Sorginetxe. Herrixka bakoitzak bere lo-leku, elkargune eta jolas eremu propioa izango ditu.

Bestalde, *Kosta ala Kosta* izeneko udaleku ibiltariak egingo dituzte uztailaren 7tik 14ra bitartean. DBHko 3-4 eta batxilergoko bi kurtsoetako ikasleek izango dute udaleku ibiltarietan izena emateko aukera. Arrasaten hasiko da *Kosta ala Kosta*. Asmoa Gipuzkoako mendiak zeharkatu eta Mutrikura heltzea da, han amaiera emateko.



Txatxilipurdiko kideak udalekuen aurkezpenean. TXOMIN MADINA MILIKUA

## Izena emateko moduak

Izen-ematea Txatxilipurdiren bulegoan egin ahal da -Nafarroa etorbidea 23-, 09:30etik 13:30era arte eta 15:00etatik 17:00ak arte. Sarean egiteko, *txatxilipurdi.eus* webgunean sartu beharko da. Txanda guztiek 330 euroko prezioa dute. Informazio puntuak ere jarriko dituzte kalean, guztiak 17:00etatik 19:00ak arte; martxoaren 7an eta apirilaren 11n Biterin, martxoaren 14an Musakolako kiroldegi kanpoan eta martxoaren 15ean Arimazubi plazan.

## Balioen garrantzia

Urtean zehar garrantzi handia ematen diete balioei Txatxilipurdiko kideek: "Txatxilipurdi elkartearen aisialdi hezitzaile euskalduna lantzen dugu, eta bizitzarako behar ditugun balioak eta gaitasunak garatzen laguntzen dugu, hala nola euskaltzaletasuna, parte hartzea, autonomia, naturarekin harremana, aniztasuna eta feminismoa." Udalekuetan ere balio horiei jarraipena eman nahi diete elkarte kideek; betiere, gazteen gozamenaren oinarri izanik.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

## Gidaliburu bat

Ez da araurik, ezer araturik, ondo dagoenik, zuzentasuna zehazten duenik. Ez da gidalibururik bizitzan, ez da gidalibururik bizitzeko, ez da gidalibururik hezteko, ez da gidalibururik hezkuntzan, ez da gidalibururik maitasunean, ez da gidalibururik ama izateko, ez.

Norbere erabakiak egiten gaitu berezi, norbere nortasun eta norbere ideiak egiten gaitu garena eta ematen duguna izatera. Jaiotzen garenetik erabakiez eraikitzen dugu gu geu garena eta erabaki bakoitzak eroaten gaitu alde batera edo bestera. Erabaki zuzenak edo okerrak baino gehiago, ondoriadun erabakiak direla esango nuke.

Lagunak, kirola, entrenatzailea, musika, sexua, bikotea, bizilekua, autoa... denak dira erabakiak eta inon ez da idatzita egokia zein den esaten digun gida. Indar gehiago edo gutxiago, ondorio bat edo bestea. Baina inon ez da egokia edo desegokia den esango digun paperik.

Gidaliburu gabe bizitza eraiki, nor berea marraztu, oreka aurkitu. Zer dago ondo eta zer gaizki? Dena balantzan, dena zalantzan.

## OHARRAK

### Eskolarteko Ibilaldi Neurtuen 35. edizioa

Domeka honetan izango da, eta 09:00ak eta 09:30ak bitartean hasiko da. 3-5 ikaslez osatuko dira taldeak, beti heldu baten laguntzarekin. Izena emateko epea otsailaren 29an amaituko da.

### Biodantza Haurdun Bikotearekin

Mesedetako ikastetxean izango da, Ekin Emakumeek antolatuta. Lehen saioak martxoaren 9an eta 23an eta apirilaren 13an izango dira, 10:00etatik 13:00etara. Aurrez izena eman beharko da.

### Pornografiaren inguruko tailerra

Udaleko Sexologia Zerbitzuak antolatu du. Martxoaren 14an izango da, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian. Gurasoei eta hezitzaileei zuzendua dago, eta aurrez izena eman beharko da.

### Doluan egin beharreko tramiteak: hitzaldia

Amadolua Elkarteak da antolatzailea. Martxoaren 7an izango da, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan hasita.

### Ludoteka ibiltaria San Andresen

Martxoko zapatu guztietan, 11:30etik 13:30era arte, Arimazubi plazan egongo da Txatxilipurdiko antolatutako ludoteka.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

MAIDER MORRAS

ARRASATEKO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN

MARTXOAREN 1EAN, EGUBAKOITZA,  
18:30EAN, 20:30EAN ETA 22:30EAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.





Iazko Errozio Egunean, Arruena parkean sevillanak dantzaten. AL-ANDALUS

# Andaluziako kulturak jarriko du kolorea bihar

Al-Andalus kultura-zentroarentzat urteko ekitaldi garrantzitsuenetako bat da Andaluziaren Egunaren baitan antolatzen dutena. Asteazkenean egin zuten lehenengo hitzordua, eta bihar egun osoan ibiliko dira kantuan eta dantzan

**Hasier Larrea Herrero** ARRASATE  
1980ko otsailaren 28an, komunitate andaluziarrari erabateko autonomia eman zion erreferenduma eraman zen aurrera; ondorioz, egun hori jaiegun izendatu zuten Espainiako hegoaldeko lurraldean. Hamar urte geroago sortu zen Arrasaten Al-Andalus elkarte, eta urtero hutsik egin gabe ospatzen dute

hitzordua. Aurten asteazkena tokatu da, eta Musakolako egotzan ardoa dastatuz eta Andaluziako ereserkia abestuz egin diote keinu elkarteko bazkideek. Baina bihar egun osoko egitaraua dute aurretik, ohi bezala, kultura emanaldiz gainezka.

*8 apellidos vascos* filmean ezaugarri egin zen aretoan bertan egingo dituzte ekitaldiak.

13:00etan, gehienbat eskoriatzar musikariz osatutako Alegria de la Sierra taldeak kontzertua egingo du, eta, jarraian, Lourdes Oncala sevillana eskolako dantzarien txanda iritsiko da. 19:00etan berrekingo diete zuzeneko emanaldiei: flamenkoa, buleria eta fandangoa uztartuko ditu Gad de la Fuente dantzaria buru duen laukoteak; gitarra,

kaxoia eta ahotsa izango dira akonpainamendurako tresnak.

Egunak duen dimentsioaren berri afarirako tokia hartu duen jende kopuruak ematen du. "120 lagunendako edukiera dago gure zentroan, eta tiket guztiak banatu ditugu", azaldu du Al-Andaluseko lehendakari Salva Delgadok. Gauean ere festak ez du etenik izango, DJ Asier gonbidatu baitute giroa jartzeko.

## Osasuntsu daude

Euskal Herrian tokian tokiko hainbat andaluziar elkarte daude, eta Arrasatekoa "erreferenteetako bat" dela nabarmendu du Delgadok: "Beste herri batzuetan halako elkarteak desagertu egin dira, baina hemen ez; hemen indartsu jarraitzen dugu. 167 bazkide inguru gara, eta martxoan egingo dugu hurrengo asanblada. Helburua da



Bergararik eta Oñatitik ere etortzen dira.

## Zer eskainiko duzue?

Bederatzi abesti interpretatuko ditugu. Sevillanetan besoak eta eskuak mugitzen dira, batez ere, kapelak, mantoiak edota abanikoak hartuta. Baina ez da sagarra hartu, hozkada eman eta bota; dantza mota guztiak bezala, sevillanek ere pauso zehatzak dituzte, eta pazientzia behar da.

## Irrikaz egongo zarete, ala?

Primeran pasako dugu, ez izan zalantzarik!

batzordea gaztetzea, badauzkagu-eta lauzpabost pertsona erreleboa hartzeko gertu".

Gaineratu duenez, Al-Andalusko bazkide izateko ez da inolako baldintzarik bete behar, eta, behin kuota ordainduta, abantailak daude kultura zentroak kudeatzen dituen otorduetan, bidaietan eta edarietan.

Zalantza barik, biharkoa urteko egun desiratuenetako da elkarteko kideendako, galazko jantzi koloretsuak ateratzeko unea, "Errozioren Egunarekin eta maiatzeko Aste Kulturalarekin batera".

**GAUR EGUN, 167 BAZKIDE INGURU DIRA ELKARTEAN, ETA BATZORDEA GAZTETU NAHIAN DABILTA**

## Vulcanizadas, Unidad Alavesa eta Libe martxoan Koolturen

Kooltur Ekintzak datorren hileko egitaraua argitaratu berri du, kantu berriak aurkeztera datozen taldeekin

### H.L.H. ARRASATE

Emakume bizkaitarrez osatutako boskote batek, Vulcanizadas taldeak, emango dio hasiera martxoko proposamen sortari gaztetxean, hilaren 7an, 22:00etan. Eskarmentu handiko musikariak

batu dira soul eta blues estiloak jorratzeko, eta, urtebete inguru konposatzen ibili ostean, lehen laneko kantuak aurkezteko momentua iritsi zaie orain.

Ibilbide luzeagoa darama Unidad Alavesak, aski ezaguna

Kooltureko jarraitzaileen artean, baina helburu berarekin igoko dira hilaren 14an oholtzara; izan ere, kaleratzeaz dira *Motoki*, *zakurreki*, *egurreki*... diskoa. Interneten entzungai dauden aurrerapen-kantu batzuek folk eta rock esentziari eutsi diotela egiaztatzen dute.

Libek itxiko du martxoko kartela, hilaren 21ean. Pasadenako musikariak bakarkako proiektuari berrekin dio eta hark ere disko berria ekarriko du esku artean: *Azal ezten*.

## Giza entzefaloaren bilakaerari buruzko hitzaldia hilaren 6an

Arrasateko Udal Bibliotekak antolatuta, Juan Ignacio Perez Iglesias biologo eta zientzia-dibulgatzaileak hitzaldia egingo du martxoaren 6an, asteazkena, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian. Perezek *Primates al este del Edén* izeneko liburua argitaratu berri du, non, besteak beste, giza entzefaloaren bilakaera baldintzatu duten faktoreak

aztertu dituen. Gai horren inguruko xehetasunak eroango ditu jendaurrera hizlariak.

Ekitaldi hori Udal Bibliotekak zientzia dibulgatzailearen inguruan prestatu duen interesgune bereziaren baitan kokatzen da. Kulturaren eta *arrasate.eus*-en jarri dituzte eskura zientzia, matematika, astronomia, fisika eta kimika, biologia, zoologia, botanika, medikuntza, gizakia historiaurrean eta adimena eta portaera hizpide dituzten irakurgaiak.

# Agirre finalean izango da, lehen finalerdia irabazita

Abarrategi bigarren sailkatu zen Aramaio lehen finalurrekoan, eta bihar Dulantziko finalerdian erabakiko da nortzuek jokatu duten finala Gasteizen; Igoa, Ugarte eta Amilburu aramaioarrek kantatuko dute, Arrizubieta, Otamendi eta Mendigurenekin batera

## Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Manex Agirre aramaioarrak lortu zuen Arabako Bertsolari Txapelketako finalerako txartela, 372 puntu eskuratuta, joan den zapatuan Aramaion jokatu-tako finalurrekoan. Saioaren ostean aitortu zuen bere burua "ondo eta gustura" ikusi zuela: "Ez da askotan gertatzen gaur pasatu zaidana; txapelketetan, behintzat. Hasieratik oso zentratuta eta gustura egon naiz, disfrutatzen: ofizioetan, puntu-erantzunetan... Geratu zaidana da arantza, bakarkakoan ez dudalako asmatu eta deseroso ibili naizelako, baina beste guztiarekin oso-oso pozik".

Bigarren sailkatu zen Peru Abarrategi, 365,5 punturekin. Egungo txapelduna ere "gustura" agertu zen egindako lanarekin. "Esango nuke saioa, orokorrean, polita izan dela, eta pertsonalki neure saioarekin gustura geratu naiz. Dulantzin jakingo dugu nortzuek abestuko duten finalean", zioen finalerdiaren ostean.

## Dulantzin erabakiko da

Bihar, 17:30ean, Dulantzin jokatu da bigarren finalurrekoa, eta han kantatuko dute Xabi Igoa eta Aitor Ugarte anaiekin nahiz Paula Amilbururekin batera Aroa Arrizubietak, Asier



Manex Agirre eta Peru Abarrategi, zapatuan, Aramaion jokatu-tako finalerdian. B.E.

Otamendik eta Izar Mendigurenek. Biharko irabazleak ere hilaren 16an Gasteizko Principal Antzokiko finalerako sailkatze zuzena eskuratuko du; finalean izango diren beste laurak izango dira finalerdietan puntuazio altuena lortzen dutenak.

Hiru aramaioarrak "gogotsu" daude. Xabi Igoak bera hala egotearen arrazoiak eman ditu: "Txapelketa mimoz ari gara prestatzen bertso-eskolan. Txapelketako saioetan jende asko biltzen ari da eta giro ederra dago saioetan".

Urduri ere badago Ugarte, nahiz eta finalurrekoetarako sailkatu zenean "lasaitu ederra" hartu zuen: "Finala hor dago, eta, gutxienez, zergatik ez amestu? Saia-tuko naiz, behintzat. Lauk bada-kite zer den Arabako finalean egotea; horrek lasaitu egiten nau".

Final-laurdeneko arantza kendu nahi du, aldiz, Amilburuk: "Zer pasako den zoriak erabakiko du, eta norberaren gorputzaldia. Lehen saioa ez zitzaidanez hain ondo atera, arantza kentzera noa, egurra ematera. Saio polita izango da".

## Martxoaren 8an 'Emakumeak\* lurraren defentsan' Aramaion

Martxoaren 8rako aldarrikapen, dantza eta kantuek osatutako gitara prest du Aramaio Talde Feministak

### I.A.A. ARAMAIO

Iazko martxoan Aramaion izandako topaketa feministan egindako *Emakumeok\* lurraren defentsan, desazkunde ekofeminista eta dekoloniala* adierazpen testua herritarrei zabaltzeko ekitaldia antolatu du Aramaio talde feministak M8rako. 19:00etan aterako dira kalejiran, kultur etxetik, eta 19:15ean egingo dute ekitaldia, plazan, gaia lantzeko bideo, abesti eta dantzekin. Ondoren, 20:00etan, kalejira egingo dute, plazan hasita, eta, poteo-musikatuaren ostean, afaria egingo dute Añai tabernan, 21:30ean. Afarirako erreserba 658 70 80 87 zenbakian egin behar da martxoaren 5a baino lehen.

Adierazpen testuan, krisi ekosozialari aurre egiteko analisi eta proposamenak jaso zituzten, desazkunde "ekofeminista eta dekolonialean" oinarrituta. Desazkundeaz galdetuta azaldu dute gizarte zoriontsu izan daitekeela gutxiago ekoiztu eta kontsumituta: "Enplegua, dirua, lana eta denborarekiko harremana berrantolatzeke unea da, bizitza duin baterako ditugun benetako beharrak kontuan

hartuta, bizitzak hurbileko eta txikiago den eskalara ekarriz. Erosi-erabili-bota dinamika gelditu eta konpondu-berrerabili-partekatu ahal izango dugun ereduak bultzatu".

Ekofeminismoari dagokionez, sistema ekonomiko eta politikoa emakumeen zapalkuntzaren eta doako lanaren bizkar mantentzen dela diote, eta naturarekin gaur bera egiten dela: "Feminismoak bizitza eta zaintza erdigunean jartzeko aldarrikapena egiten du, eta horri gehitu nahi diogu, gizakiak interdependenteak gara eta naturarik gabe ez dagoela bizitza posiblerik". Gainera, Hegoalde globaleko herriei gizarteak "zor historikoa" duela diote, eta egun, ongizate sistema "beste herri batzuetako lagun eta naturako baliabideen esplotazioan" oinarritzen dela.

### Zinema-kafea domekan


Martxoaren 3an, zinema-kafea antolatu du Aramaio Iturzuri emakume elkarteak kultur etxean. Lehendabizi, 18:30ean kafea hartu eta eskulanen zozketa egingo dute, eta, ondoren, 19:00ak aldera, *Barbie* filma izango da ikusgai.



ALAIK JUBILATUEN ELKARTEA

## Etxabe eta Fernandez irabazle

Joan den egubakoitzean jokatu zuten mus txapelketa, Alaiak Jubilatuen Elkarteak, eta Begoña Etxabek eta Diego Fernandezek irabazi zuten; bigarren sailkatu ziren Loreto Bengoa eta Begoña Urkia eta hirugarren, Antonio Elejalde eta Bittor Kortabarria. Bestalde, erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 16an, 10:30ean.




XABI IGOA  
BERTSOLARIA

"Anaiarekin abestuko dut, Paula ere gurekin... Finalerdi oso bat izatea gurako nuke. Iruditzen zait bertsokide aproposak ditugula horretarako".



AITOR UGARTE  
BERTSOLARIA

"Xabi anaia dut, eta gogoan dut nire lehen txapelketan harekin partekatu nuela finalerdia, eta aurten ere hala tokatu da; beste ukitu bat ematen dio saioari".



PAULA AMILBURU  
BERTSOLARIA

"Bi aramaioarrak oso fin dabilta; Arrizubieta ere bai. Otamendik ez du hutsik egiten eta Mendiguren elementu dibertigarria izan daiteke".

# 30 urteak ospatu, eta aurrera egiteko gertu

Loramendi elkarteak nondik datorren gogoan izan gura du, ibilbide horrek emandako proiektuen berri eman, euskararen erabilera sustatzen jarraitu eta hori guztia bazkideekin zein herritarrekin ospatu; horregatik, egitarau zabala gertatu dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Loramendi elkarteak 30. urteurrena ospatzen hasita dago. Lehen zuzendaritza taldeari aitortza eginda hasi zituen ekitaldiak 2023ko abenduaren 10ean, eratu zen egun berean, hain zuzen ere. Ospakizunak, baina, urte osora zabaldu gura dituzte, eta, otsailarekin batera, urte osorako iragarritako ekitaldien berri eman dute.

## Egitaraua lotzen

Hiru hamarkadotako ibilbidea lanean ospatu gura dute, eta helburuak ondo zehaztuta dituzte, Lierni Zangitu presidentek adierazitako legez: "Batetik, abian ditugun proiektuekin jarraituko dugu, indartsu eutsita horiei; bestetik, euskara sustatzen jarraitzea da helburua, baina beste estrategia batzuk erabilita; hirugarrenik, bazkideengana gerturatu gura dugu, eta babesle ditugun horiek mimatu; eta boro-borobiltzeko, herriarekin batera ospatuko dugu urteurrena. Hortaz, herritarrek jakin dezatela lanean gabiltzala eta haiekin ospatzeko gogoz gaudela".

Urte bukaera bitartean egingo dituzten ekitaldien berri eman gura izan dute, nahiz eta erabat zehaztuta ez dituzten. Eta, bereziki, bi kontu nabarmendu dituzte: batetik, apirilean jarriko duten museoa dago: "Elkartearen bidean zenbat kontu landu diren eta zenbat lagun pasatu diren jaso gura dugu. Udaletxe zaharreko atarian jarriko dugu ikusgai batutako materiala, eta ateak irekiko ditugu herritar guztiendako". Eta, bestetik, Euskararen Eguna; sasoi batean maiatzean egingen zen ospakizuna berreskuratu egingo dute: "Bertan behera utzi zen, eta uste dugu aitzakia ona bela berreskuratzeko. Bazkaria egongo da, eta kontzertuak ere bai". Sanmigelak ere bereziak izango direla gaineratu du.



Berezibar, Zangitu eta Etxenautia zuzendaritza kidekoak eta Sanchez teknikaria. M.A.

## Hainbat proiektutan murgilduta

Gaur egun, proiektu ugari eta era askotakoak ditu esku artean Loramendik. Haurren aisialdiari dagokion zerbitzua ematen du: "Herriko ludotekaren ardura du

hasiera-hasieratik, eta hizkuntza errefortzu eskolak ere ematen ditu". Helduentzat, ostera, Barriketan eta Auzoko egitasmoak daude abian, "euskararen erabilera" xede dutela. Horiez gain, udalekuen gidaritza ere izan ohi dute uda partean, eta sortzen diren beste egitasmo batzuei ere heldu izan diete. "Horiek antolatzeke, Udalarekin, herriko beste eragile batzuekin eta ikastetxeekin harremana dugu, eta koordinatuta egoten gara".

## Euskararen erabilera sustatzea

Beinke elkartearekin –AEDren bueltan zebiltzan hainbat euskaltzaleren ekimenez– hasi zuten euskararen bueltako ibilbidea Aretxabaletan, "herritar mordoak babestuta". Zazpi urteko lanaren ondoren, Loramendi ikastolarekin bat egitea erabaki zen, eta, orduan, Joakin Arana Loramendi kultur elkartearen eratu zuten 1993ko abenduaren 10ean. "Elkartea sortu zen euskararen erabileraren gaineko kezkatik, hori sustatzeko. Eta, zoritxarrez, behar hori gaur egun ere badago. Horretan jarraituko dugu lanean; gainera, talde polita osatu dugu".

## Egitaraua

### MARTXOA

- Frontenis txapelketa eta topaketa.

### APIRILA

- Loramendiren museoa.

### MAIATZA

- Literatur lehiaketa.
- Euskararen Eguna.

### EKAINA

- Batzar orokorra.

### UZTAILA

- Eskaintza kulturala.

### IRAILA

- Sanmigiletako ekintzak.

### AZAROA

- Bertso afaria.



June Elkoro, zirkuan, filmaren une batean. ARATZ ELKARTEA

## Adiskidetasuna ardatz duen istorioa aurkeztuko du Aratz-ek

'Zirkus' izena duen filma elkarteak egiten duen zazpigarrena da, eta gaur estreinatuko dute, Arkupen

**M.A.** ARETXABALETA

Aratz elkarteak kideek egindako *Zirkus* film laburra estreinatuko dute gaur, egubakoitza, Arkupen. Bi emanaldi izango dira: bat 18:30ean eta bestea 19:30ean. Eta aurretik, 18:00etan, kultur etxe-ko sarreran jarriko duten *photocall*-etik pasatuko dira protagonistak, haien senideak zein elkarteak gainerako kideak. Herritarrek ere ikusi ahal izango dute filma; bigarren emanaldia, hain zuzen ere.

## Gure Zirkuko laguntza

"Lagunak izatea zein garrantzitsua den jaso dugu, eta istorioa oso simplea da", adierazi du filmaren gidaritza izan duen Jokin Antxia kideak: "Junek istripua izan du bizikletarekin; hankan eta lepoan izan ditu zauriak. Oso triste eroan dute ospitaletik etxera, eta, ahalegindu arren, lagunak ezin dute animatu. Ha-

lako batean, zirkua iritsi da herrira, eta Juneren lagunek bertako kideei eskatuko diete laguntza". Hogei minutuan kontatuko dute hori guztia.

Elkarteko hogeitun lagunek jardun dute aktore lanetan, eta grabazioaren ardura Xabi Antxiak izan du. Urrian grabatu zuten, Gure Zirkua herrian egon zen asteetan. "Iazko otsailean egon ginen Gure Zirkuko kideekin proiektuaren berri ematen. Baietza eman ziguten, eta gurea zetozenean egiteko geratu ginen. Halaxe izan da".

## Aurkezteko gogotsu

Oso ondo pasatu dutela lana egin bitartean adierazi du Antxiak: "Gozatu egin dugu grabatzen; muntatzen; ondoren, kontatzen... Guztia zoragarria izan da". Filma, gainera, oraindik ez du inork ikusi, guztientzat "sorpresa" izan dadin gura dutelako.

## Aste Santurako aisialdi eskaintza egin du Loratuk

Lehen Hezkuntzako ikasle guztientzako aisialdi eskaintza egin du Loratuk Aste Santurako; hain zuzen, martxoaren 25erako, 26rako eta 27rako. *Lorwarts* izena jarri diote hiru eguneko eskaintza horri, eta "aztien eta sorginen eskola" izango dela iragarri dute; goizetan elkartuko dira, 10:00etatik 13:00etara. Taldeak zikloka

antolatuko dituzte, adina kontuan hartuta.

Izena emateko epea gaur zabaldu dute, martxoaren 1a, eta datorren egubakoitzean itxiko da; horretarako, Loramendi elkarteak Durana kalean duen bulegotik pasatu beharko dute interesatuek. Antolatzaileek adierazi dute lekuak mugatuak direla. Izena ematearekin batera 50 euroko kuota ordaindu beharko da –bigarren umeen kasuan, 40 euro; eta hirugarrenak, debalde–.

## KONTU KONTARI

# Auto eta moto kontuak Jose Joakin Jauregiarekin

Astigarragatik iritsi zen Aretxabaletara, 5 urte zituela; ogibidez okina, baina abiadura du gustuko, eta automobilean eta motoan kilometro asko egindakoa da. 81 urte beteta izan arren, oraindik ere bidaiatzen jarraitzeko gertu dago

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Jose Joakin Jauregi (Astigarraga, 1942) elkarrizketatu du Julen Zuazabeitia (Aretxabaleta, 1961) herrikide eta lagunak Goiena telebistako *Kontu kontari* saioan. Sasoi bateko kontu asko ekarri dituzte gogora: eskola, lantegiak eta, zelan ez, abiadura kontuak; izan ere, automobilak eta motoak izugarri ditu gustuko Jauregi okindegia zenaren ugazabak.



Jose Joakin Jauregi, okindegiko labearen aurrean. MARKEL ARRAYAGO

## Ogia saltzen gurditxoarekin

Inozente Egun batez, 5 urte eta erdi zituela, iritsi zen Astigarragatik gurasoekin. Eskolara joan aurretik, eskorga bati otartxo bat jarri eta etxe berrietara joaten zen ogia banatzera. Otarrakoa saldutakoan sartzen zen eskolan, eta irakasleak zer esaten zion ondo gogoan du: "Ya llega el noticiero. Izan ere, Julen, zure ama zenak, Zezilik, saltzen zituen egunkariak eta irakurritak joaten nintzen 10 bat urterekin". Irakasle izandakoekin gogoratzen da: Soraluzetik etortzen zen *Kaifas* esaten ziotena, Zamorako Celestino Lopez Dominguez, Doroteo gasteiztarra, eta Leopoldo Lopez Dominguez, aurrekoaren anaia gaztea. "Ahora vais a saber quien soy yo,

esaten zuen Celestinok. Eta izugarriko egurra ematen zuen".

Gero, gurditxo batekin hasi zen ogia saltzen; ondoren bizikletarekin Eskoriatzaraino joaten zen; eta azkenik, mobiletearekin: "Eusebio eta Angel Arresek San Martinen zuten tailerra, eta han erosi zidan aitak. Txirrindularientzat erruberak zentratzen zituzten arresetarrek, eta onenak ziren; ziklista profesionalak etortzen ziren!".

## Telebistatik ez ziklo-krosean

Aretxabaletako nazioarteko ziklokros txapelketek entzute handia izan zuten eta Jauregi antolatzen jardundakoa da: "Renato Longo munduko txapeldu-

na etorri zen, baita Wolfshohl alemaniarra ere, eta beste hainbat txirrindulari garrantzitsu. Lasterketaren aurrekontua zen ikaragarria eta Madrileran joan ginen telebistari etor zedin eskatzera". Manolo Zubillaga, Eloy Uriarte eta Jauregi bera joan ziren orduko gobernadore zibilarengana: "Aranburu Olanaren eta bazuen Aretxabaletarekin loturaren bat. Azaldu genion gure asmoa, baita telebistaren laguntza behar genuela txanpon batzuk ateratzeko esan ere. Hark gutun bat idatzi zuen eta harekin Prado del Reyra joan ginen. Orduan zuzendaria zen Aparicio Bernalek ezin izan gintuen hartu, eta haren bigarrenarekin

egon ginen". Pozik itzuli ziren bidaia hartatik, baina lasterketa eguna iritsi zenean telebistatik ez zen agertu: "Zer egin? Bazegoen Donostian telebista zuen Urkia familia eta andre-gizonak etorri ziren haien aparailuekin. Hurrengo egunean hamalau segundo bakarrik bota zituzten telebistan. Baina Fagorren publizitatea agertzen zen, eta, Fagorreko arduradunetako bat hemengo neska batekin zebilenez, hark salbatu gintuen. Bestela, kartzelara joango ginen!".

## Soldaduskara Bultaco motoan

Autoak eta motoak ditu gustuko, lehen eta orain. Aretxabaletan gerra ostean zeuden motoak oroitzen ditu: "1952an Tomas Agirre Goikoleari anaiak Kubatik bidali zion Harley Davidson bat sidekarrarekin eta atzeko martxarekin. Tomasen semea, Luis, gero kopilotu izan zen nirekin lasterketa batzuetan". Ondoren, moto handien txanda etorri zen: "Juanito Otxoak zuen, Santamarinak ere bai Montesa bat. Eta Arkarazoko Pablok. Hori Gurea tabernatik irten zen esanaz Gasteizera zihoala loteria eroatera eta segituan itzuliko zela, eta bidean geratu zen".

Jauregi berak 19 urterekin erosi zuen lehenengoa: Bultaco 155. Harekin joan zen soldaduskara, Burgosera: "Bidaia hori ordubete eta 42 minutuan egiten nuen orduan. Eta orain, 80 urtetik gora ditudala, ordubete eta lau minutuan. Alde ederra! Moto hari hobekuntzak egin nizkion eta 140 kilometro orduko hartzen zituen leku aiposean eta asko behartuta. Zenbat aitagure erretzatzen nituen, eta pentsatzen

nuen: katea puskatzen bada, *adios!*".

Sasoi hartako automobilekin ere akordatzen da: "Leanzabarrietarrek zuten autoa; lezamatarrak ere bai, auto ingelesak zituzten, Riley eta; a zelako *katxarroak!* Bernardino Zubiak ere bazuen eta Arrue zaharrak ere bai. Hura Gasteizera joaten zen egunero kafea hartzera, eta behin, Gatzaga igotzen zihoala txapelak alde egin zion. Hura hartzeko buelta eman zuenean izkina jo, eta kolpe galanta hartu zuen".

## Jerezera 38 alditan

Bultaco motoa erosi zuenean zaletu zen moto-krosara: "Bi lasterketa jokatuakoa naiz; garaikur bat irabazi nuen, eta kito". Zirkuituetako lasterketan ere ibilia dela dio, eta, motoarekin ez bezala, autoarekin parte hartutakoa: "1984an eta 1985ean Alcañizko zirkuitu urbanan egon nintzen. Semea jaio zenean emazteari esan nion azkenekoa izango zela. Nire lasterketarik onena izan zen, Seat FU 1800 autoarekin, baina, azkenean, kolpearekin bukatu nuen".

Oraindik ere bidaiatzen du motoarekin, semea lagun hartuta; iaz, esaterako, Jerezen izan zen: "3.500 kilometro egin genituen, zuzen ez garelako sekula joaten. Aurten joaten banaiz, 39.a izango da".

## BULTACO 155 MOTOA EROSI ZUEN 19 URTEREkin ETA HAREkin JOAN ZEN SOLDADUSKARA

## Zaintzaren erakusketarekin abiatuko dituzte M8ko ekintzak

Mahai-inguru bi eta beste bi bakarrizketa saio ere izango dira, baita manifestazioa hilaren 8an

**M.A.** ARETXABALETA

Martxoaren 8ari begirako egitaraua zehaztu dute Mugimendu Feministak eta Udalak elkarlanean, eta hilabete osorako ekintza sorta iragarri. *Aretxabaletan zaintza lanetik bizi*

*direnen ahotsak* izeneko erakusketarekin abiatuko dituzte ekintzak. "Bazterretik erdira ekarri nahi ditugu euren ahotsak eta gorputzak", adierazi dute antolatzaileek. Martitzenean zabaldu eta hilabete osoan egon-

go da ikusgai, Arkupeko erakusketa aretoan.

Emakumeen Egunean, ostera, elkarretaratzea egingo dute goizean, eta manifestazioa gero, 18:30ean. Horren aurretik, mural bat margotuko dute.

Solasaldiak ere izango dira: emakume arrazializatuen gainekoa martxoaren 9an eta emakume baserriarren bueltakoa 20an. Eta bakarrizketa bi ere bai: *Ni ta nitarrak* Iholdi Beristainekin hilaren 7an eta *Magma mia* Bea Egizabalekin 12an.

## Frontenis txapelketa eta topaketa egingo dituzte martxoan

Frontenis txapelketa antolatuko dute UDAk, Loramendik eta Udalak M8aren bueltan, eta aurtengoa dagoeneko hamargarrena da. Martxoaren 9an eta 10ean jokatu dute; lehen egunean kanporaketak eta bigarrenaren finalurrekoak eta finala. Martxoaren 16an, ostera, herriko topaketa egingo dute, eta hogeit bat emakume elkartuko dira.

## OHARRAK

### Jai batzordea

Andramaixak eta sanmigelak antolatuko jai batzordea bilduko da martxoaren 5ean, 18:00etan, Arkupen.

### 1956an kintoen deia

1956an jaiotakoek bazkaria egingo dute martxoaren 9an, Muru Alden. Izena eman behar da Gurean, eta 30 euro ordaindu; azken eguna martxoaren 3a da.

# Jubilatuen taberna, lehiaketa publikora

Otsailaren 22an egindako ohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak martxan jartzea kontratazio berria egiteko lizitazioa. Kontratuak gehienez bost urteko iraupena izango du, eta proposamenak aurkezteko epea martxoaren 11n bukatzen da

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Olazar jubilatuen etxeko taberna-aretoa ustiatzeko espedientea onartzea, baldintza teknikoen agiria eta baldintza administratiboen agiria onartzea eta lizitazioa hastea izan zen otsailko osoko bilkuran Eskoriatzako udalbatzako kideek landu zuten gai azpimarragarriena. Aho batez onartu zituzten lizitazioaren baldintzak jasotzen dituzten dokumentuak, eta Udal Gobernu kideak zein oposiziokoak pozik agertu ziren hartutako erabakiarekin.

Tabernaren ustiaketari lotuta doaz lan horiek: tabernaren eta aretoaren zerbitzuarekin zuzenean lotutako tresnak eta instalazioak garbitzea, jubilatuen etxean atezain zerbitzua ematea eta eraikinaren beheko solairuan, jubilatu etxeko tabernaren ondoan, dauden komunak garbitzea. Komun horiek jendearentzako erabilgarri egon behar dute 11:00etatik 22:00etara. Kontratuak gehienez bost urteko iraupena izango du eta proposamenak aurkezteko epea martxoaren 11n bukatzen da. Plegu teknikoak, plegu administratiboa eta informazio gehiago Eskoriatzako udal webgunean daude, eta interesdunek Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan ere aztertu ahal izango dituzte.

## Behin-behineko irtenbidea

Aurreko agintaldian zeresana eman zuen jubilatuen tabernaren gaiak. Izan ere, gaizki-ulertu batzuen ondorioz, jubilatuen taberna itxi egin zuten, ordura arte zerbitzua eramaten zuen herritarrek kontratua etenda. Horrekin batera, zenbait eskoriatzar osoko bilkuran izan ziren, jubilatuen tabernari irtenbidea emateko eskatzen. Hori horrela, agintaldi honetan, berehalako irtenbidea eman zitzaion gaiari: pleguak zehazteko, kontratu txiki bat egin zuten jubi-



Jubilatuen tabernako sarrera kultura etxeko eraikinean. IMANOL BELOKI UNAMUNO

## AHO BATEZ ONARTU ZUTEN MARTXAN JARTZEA KONTRATAZIO BERRIA EGITEKO LIZITAZIOA

latuen taberna zabalik mantentzeko. "Herritar bat etorri zen taberna irekitzeko interesarekin, eta kontratu txiki batekin irekitzeko aukera eman zigun. Sei hilabeteko kontratu txiki batekin ireki genuen, eta, bitartean, lanketa bat egin dugu pleguak behar den moduan egin eta ateratzeko...", adierazi du Dorleta Sologaistoak, Eskoriatzako Udaleko Ongizate zinegotziak.

## Oposizioaren ekarpenak jasota

Jubilatuen ekarpenak jasota eta lehen zeuden pleguak eguneratuta eta baita oposizioko kideen ekarpenak gaineratuta egindako lanketarekin pozik agertu dira oposizioko kideak. "Lizitazioko pleguak onartu behar ziren, eta aldeko botoa eman dugu, bereziki, egokiak iruditu zaizkigulako eta gure ekarpenak ere jaso direlako. Ekarpn-

teknikoak dira, baina, hori baino gehiago, azpimarratuko nuke onartu egin direla, eta hori Udal Gobernuari eskertzen diogu", adierazi du Josu Ezkurdiak – EAJko bozeramailea Eskoriatzako Udalean–.

## Tabernako hobekuntzak

Berrikuntza batzuk ere egin dituzte jubilatuen tabernan. Gaur egun negozioa dutenek toleda jarri zuten tabernaren atzeko aldean, Gernika plazan, eta, horrekin batera, udal ordezkariari ekarpenak egin dizkiete identifikatu dituzten akatsekin. "Aldaketa batzuk egin dira argiterian. Kontuan hartu behar da eraikinak dituen ezauzgarrietatik pintura azkar erortzen dela, eta horiei irtenbidea ematea ez da erraza izango. Hala ere, gaur egun arte eskatu diren aldaketak egingo ditugu", adierazi du Dorleta Sologaistoak, Eskoriatzako Udaleko Ongizate zinegotziak. Osoko bilkuran onartuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun natural izango dituzte interesdunek euren proposamenak aurkezteko.



Axtroki liburuaren aurkezpena, Ibarraundi museoan. IMANOL BELOKI

## Ibarraundiko aretoa jendez lepo 'Axtroki' liburuaren aurkezpenean

Urrezko axtrokien gainean Aranzadikoez idatzitako liburuak interesa piztu zuen herritarrengan

### I.B. ESKORIATZA

*Axtroki* liburuaren aurkeztu zuten eguztenez Aranzadi Zientzia Elkartekok Ibarraundi museoan. Interesa piztu zuen liburuak; izan ere, Ibarraundi museoaren aretoa txiki geratu zen. Ondoren, Xabier Peñalver historiaurrean adituak *La Edad de Hierro en Gipuzkoa y su entorno territorial* hitzaldia egin zuten.

Berlaratu zirenen artean liburuak banatu zituzten, eta Xabier Peñalverrek Burdin Aroaren gaineko hitzaldia egin zuten. "Aurreikusitako baino jende gehiago etorri da. Poztekoa da

hori, eta, hain zuzen ere, axtrokien gaineko interesa dagoela ikusi da", azaldu zuen Saioa Alzuak, Eskoriatzako Udaleko Ingurumen Saileko teknikariak.

### Ignacio Barandiaran hitzaldian

Eskoriatzako urrezko axtrokiak aurkitu zituzten seme-alabaren bat izan zen saioan. Horrekin batera, aurkikuntzaren lehenengo txostena egin zuten Ignacio Barandiaran ere han izan zen. Hitzaldia amaitzean, gainera, hitza hartu zuen, eta garai hartako zenbait bitxikeria kontatu zituen.

## Martxoaren 8aren baitan, egitarau zabala egunotarako

Martxoaren 4an, astelehena, *Pornografía y adolescentes* izenburua duen hitzaldia egingo du Amelia Tiganusek Zaldibar antzokian, 18:30ean; martxoaren 5ean, *Autodefensa feminista* liburuaren aurkeztuko du Maitena Monroyk, ordu eta leku berean; Martxoaren 8an, 18:30ean hasita, manifestazio zaratatsua izango da herrian zehar; eta martxoaren 10ean, Aresko Emakumeen Martxa egingo dute. Ekintzez horiez gainera, Eskoriatzako udalbatzak zinegotzi guztien aldeko botoarekin 2024ko Martxoaren 8rako adierazpena onartu zuen otsailaren 22an egindako osoko bilkuran.

## OHARRAK

### Ahoz Aho jaialdia

Ahozotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren baitan, Nelson Calderon (Kolonbia) izango da lehenengo kontakizuna egingo duen protagonista, martxoaren 1ean, 19:00etan, Zaldibar antzokian.

### Dokumentala

*Ama-das* izeneko ikus-entzunezko proiektatuko dute Zaldibar antzokian martxoaren 2an, 19:00etan. Sarrera doakoa da.

### Odol emateak

Odol emateentzat autobusa martxoaren 7an eta martxoaren 14an izango da Fernando Eskoriatza plazan, 16:30etik 20:15era.





Jon Sasiain eta Joxerra Agirreurreta, Amets Txurruka eta Paco Galdos txirrindulari ohien elastikoekin. IMANOL BELOKI UNAMUNO

# Maillotaren Museoa egingo dute Gatzagan, Dorleta Santutegian

Irizpide batzuk ezarrita, modu sistematikoan bildu nahi dituzte orain arte jasotakoak eta baita hemendik aurrera dohaintzan jasoko dituztenak ere. Bi mekanismotan banatuta izango dira txirrindularien elastikoak, argiteria berezi batekin argizatuta

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA Dorletako Ama Txirrindulari Elkartek Maillotaren Museoa egin nahi du Dorleta Santutegian. Urteetan batutako materiala ordenatzea da helburua; hain zuzen, han dutenari balioa emanez eta gune txukun bat prestatuz. "Erakusketa berri bat egitea da asmoa; elastikoak irizpide batekin ordenatzea, urteka, afizionatuen taldeak kontuan hartuta... Batuta dugun material guztia jendeari erakusteko moduan jarri nahi dugu", adierazi du Joxerra Agirreurretak, Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko kideak.

## Erantzunaren zain

2023ko maiatzean Dorletako Ama Txirrindulari elkartek bere proiektua Gatzagako Udalean, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Elizbarrutian aurkez-

tuta, azken bi instituzioen erantzunaren zain daudela adierazi du Agirreurretak: "Elizkizunekin talkarik ez egiteko, hitzarmen bat sinatzeko eskaria egin digute. Egingo dugu. Horrekin batera, babesleak ere lortu ditugu: Orbea, RPK, Laboral Kutxa...".

## Bi mekanismorekin


30.000 eta 50.000 euro arteko kostua izango du Maillotaren Museoa. Totemetan jarri nahi dituzte ziklisten elastikoak, irizpide batzuk ezarritik, modu sistematikoan biltzeko han dutena

**PROIEKTUA AURKEZTUTA ETA ERANTZUNAREN ZAIN, LEHENBAILEHEN HASI NAHI DITUZTE LANAK**

eta aurrera begira dohaintzan jasotzen dutena. "Proiektuan argiteria sistema batekin maillot esanguratsuenak agerian geratuko dira, eta beste sistema batean ziklismo eskolak eta afizionatuen maillotak izango dira. Perurena, Galdos, Mendiburu... haien elastikoak izango dira ditugun zaharrenak. Gero, azken profesional gehienak ere baditugu. Azkena, Mikel Landa bisitan izan zenekoa".

## Harrera beroa zikloturistei

Dorletako ama birjinari urteroko lore eskaintza domeka honetan egingo diote zikloturistek, Arlabanen, 09:00etan hasita, eta bertaratzen direnei salda beroa eskaintzeaz batera proiektuaren berri emateko ere aprobetxatuko dutela azaldu du Agirreurretak; maketen erretratuak erakutsiko dizkiete.



Aurreproiektuko planoetako bat.



Santutegian museoak hartuko duen eremua.



Eraberrituta izango lukeen itxura.



Mekanismo batekin elastikoak mugituko dira. ARG.: DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ELKARTEA



Udal idazkaria Martxoaren 8aren bueltako adierazpena irakurtzen, asteleheneko osoko bilkuran. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

## Adostasun politikorik ez Martxoaren 8ra begira

Martxoaren 8ko adierazpenari begirako lanketak osoko bilkura hamabost minutu berandu hastea eragin ostean, EH Bilduk aurkeztutako manifestu alternatiboa izan zen bozkatu eta onartu zena, EAJren kontrako botoekin eta alderdi sozialistaren abstentzioarekin

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Edukietan apenas sartu barik, Martxoaren 8ko adierazpena lantzeko prozedurak eztabaida eragin zuen Udal Gobernuaren eta oposizioaren artean. Eudelek proposatutako adierazpena nahikoa ez zela iritzia, EH Bilduk "zaintza eta gobernantza feminista" erdigunean jarriko dituen idatzia proposatu zuen; oposizioaren arabera, azken orduan. Hain zuzen, EH Bilduk aurkeztutako adierazpen alternatiboa izan zen bozkatu eta onartu zena, EAJren kontrako botoekin (5) eta PSE-EEren abstentzioarekin.

### Bilkura aurreko negoziazioa

Osoko bilkura hamabost minutu berandu hasi zen, bozeramaileak elkartu zirelako. "Osoko bilkuraren aurretik saiakera bat egin dugu oposizioko alderdiekin adierazpen bateratua onartzeko; proposatu diegu ea tarte bat hartuko genuen Martxoaren 8aren aurretik denok norabide berean joateko, baina ideiak ez du aurrera egin", esan zuen EH Bilduko eledun Maite Usabiagak.

Aurrera egin zuen adierazpeneko konpromisoen artean daude honako hauek, besteak beste: Udaleko Berdintasun Kontsei-

luaren etengabeko hausnarketa, gobernantza eredu parte hartzaile eta demokratikoa garatzeko; mugimendu feministarekin batera Herri Akordioarekin bat egitea Udalak; eta azaroaren 30eko greba feministaren baitan Bergaran osatu ziren hausnarketa mahaietatik ateratako ondorioak aintzat hartzea.

### Irakurketa ezberdinak

Usabiagak gaineratu zuen zaintzaren arloan gizarteak bizi duen "krisi garaiari" aurre egiteko gobernatzeko modu berriak beharko direla: "Gobernantza modu berrietan jarri nahi dugu

arreta; ez horrenbeste neurri zehaztetan, baizik eta gauzak nola egiten ditugun aztertu behar dugu. Horri deitzen diogu gobernantza feminista, eta uste dugu Eudelen testuan hutsune hori zegoela". EAJko Mikel Letek azpimarratu zuen astelehenean bertan izan zutela EH Bilduren testu berriaren berri: "Gaur [astelehena] goizeko haiketetan izan dugu EH Bilduren mozio alternatiboaren berri; mozioa sartu izanaren berri izan dugu bakarrik, eta horrek ez digu eman aukerarik gure irakurketa egin eta proposamenak luzatzeko. Bilkuraren aurretik saiatu gara gaizki-ulertua argitzen; gure proposamena izan da bi adierazpenak eramatea udalbatzara. Badira aurrekariak: Euskararen Egunaren bueltan, 2023ko azaroan, bi adierazpen onartu ziren, bat Eudelena eta bestea Uemarena. Pena da halako gai batekin adostasunik ez lortzea".

PSE-EEko Alberto Alonsok ere zatiketa politikoa kritikatu zuen: "Alderdi sozialistak ez du sekula kontra bozkatuko ber-

dintasunaren aldeko borroka oinarri moduan duen manifestu baten kontra. Hori bai, pena eman digu enfrentamendu eta zatiketa politikoa egon izanak, bi idatzi aurkeztuz eta talde politikoa behartuz adierazpen bat bestearen kontra bozkatzea. Izan ere, zatiketa politikoa horrek ez du inondik inora islatzen Bergarako eta Euskadiko hiritargoa. Gai horren inguruan dagoen batasuna ezin izan dugu Udalera ekarri, eta horregatik eskatzen dugu hurrengo aldietan utzi diezaiogun halako gaiak korapilatzeari; espero dugu ez duela horrek zerikusirik izango hauteskunde giroarekin. Ea etorkizunean halako gaiak aho batez onartzeko gai garen".

### Jardun, liburutegitik azokara

Bestalde, aho batez onartu zuten Jardun euskara elkarteak udal liburutegitik azokara lekualdatzeko hitzarmena. "Jardun aspalditik dago liburutegi azpiko sotoan, eta aspaldiko beharra zen leku aproposagoa izatea euren jarduna garatzeko. Euren batera adostuta, topatu dugu eroso egongo diren espazio egoki bat azokan. Pozik gaude, aspaldiko arazo bati irtenbidea emango diogulako, eta badakigu Jardunekoak oso gogotsu daudela lokal berriaren hasteko", esan zuen Usabiagak. Hitzarmena datozen egunetan sinatuko dute, eta "lehenbaiten" joango da Jardun lokal berrira.

## JARDUN ELKARTEA UDAL LIBURUTEGITIK AZOKARA PASATZEKO HITZARMENA AHO BATEZ ONARTU ZUTEN



**MAITE USABIAGA** EH BILDUKO BOZERAMAILEA UDALEAN

"Lanerako modu berrietan jarri nahi dugu arreta, ez horrenbeste neurri zehaztetan. Zaintza eta gobernatzeko modu feminista erdigunean behar ditugu".



**MIKEL LETE** EAJ-KO BOZERAMAILEA UDALEAN

"Bilkura aurretik proposatu dugu bi adierazpenak bozkatzea; Euskararen Egunean, adibidez, hala egin zen. Pena da halako gai batekin ados jarri ez izana".



**ALBERTO ALONSO** PSE-EE-KO BOZERAMAILEA UDALEAN

"Ez dugu sekula berdintasuna oinarri duen manifestu baten kontra bozkatuko, baina penaz hartu dugu gai horretan zatiketa politikoa irudikatu izana".

## Martxanteren deia manifestaziorako

Martxanterak talde feministak manifestazioa antolatu du Martxoaren 8rako; San Martin plazan hasiko da, 19:00etan, eta bertan bukatuko da. Manifestazioa bukatzen denerako ekitaldi bat eta performance bat prestatzen ari direla aurreratu dute. Aurtengo leloa izango da *Ez ga geldituko bizitzak duindu artian!* Martxanteren arabera, bilera ireki batzuk egin dituzte aurtengo Martxoaren 8ra begira: "Bilera ireki horietan, bizitzaren duinen atarkepean sartzen diren hainbat gai eta aldarri lantzeko espazioa sortu da. Besteak beste, zaintzaren arloko gaiak, etxebizitza eta osasun sistema izan dira gogoeta egiteko gaiak. Eskubide eta oinarriko behar ditugun gai horien inguruan herri mailan eman daitezkeen erantzunetan sakontzen jarraitu dugu".

# "Ez da babestea; euskara erabili egin behar dugu"

**EIDER USOBIAGA BERGARAKO UDALEKO EUSKARA ZINEGOTZIA**

2024tik 2028ra arteko Euskara Plana egiten ari da Udaleko Euskara Zerbitzua, eta lan horretan ari da buru-belarri Usobiaga: "Aurreikusten dugu dozena erdi lantalde osatzea"

**Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA**

Udalaren Euskara Plan berria egiteko galdetegia prestatu du Euskara Zerbitzua, eta martxoaren 3ra arte bete daiteke [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)-en. Euskara zinegotzi Eider Usobiagarekin (Bergara, 1994) egon da GOIENA, xehetasunen berri izateko.

**Zer moduz zinegotzi moduan?**

Ondo. Gauzak perspektiba osoago batetik ikusten laguntzen du. Askotan, ez dakigunaz edo erdizka dakigunaz hitz egiten dugu, eta behin gaien jakinduria zabalago izanda beste modu batera ulertzen dira. Kritika egitea merkea eta erraza den garaiotan, positiboa da aukera hau izatea.

**Zeintzuk dira lehentasunak 2024tik 2028ra arteko Euskara Planerako?**

Lehenik eta behin, euskararentzako erabilera eremuak ziurtatu eta indartu nahi ditugu. Euskara ohiko hizkuntza izateak eskatzen du begiratzea adin-tarte bakoitzean zertan ematen dugun denbora gehien. Ume eta gaztetxoengan familia, eskola eta eskolaz kanpoko jarduerak izango dira, adibidez. Nagusienengan, familia, lan-mundua, esparru soziokulturala, lagunartea... Gainera, gaur egun badago beste arlo-multzo bat oso eragin handia duena: sare sozialak, ikus-entzunezkoak... Erdal mundua da eta ez da erraza herri mailatik eragitea, baina ahaleginak egingo ditugu.

**Beste bi lehentasun ere badituzue.**

Hala da. Bigarrenik, euskaraz egiteko gaitasuna indartu nahi dugu; azken urteetan jende asko etorri da kanpotik, eta jarraituko du etortzen. Pertsona horiei euskaraz ikasteko bideak erraztu behar dizkiegu, hasi umeengandik eta gazte-helduengana. Baina, horretaz gain, jatorriz bertakoak izanda ere, gaitasuna landu behar da; izan ere, euskararen normalizaziorako ezinbestekoa da euskaraz bikain, gaztelaniaz baino hobeto, mol-



Eider Usobiaga, asteon, Udaleko Euskara Zerbitzuaren atarian. J.B.L.

## "PLAN BERRIAN PISU HANDIAGO EMANGO ZAIE AKTIBAZIOARI, PARTE HARTZEARI ETA BEHAR BERRIEI"

datuko den multzo zabal bat izatea. Bereziki landu beharrekoa harreman informalean mundua da. Eta, hirugarrenik, euskaldungoa aktibatu behar dugu, gizarte sare zabal eta parte-hartzailea sortu, talde naturaletan oinarrituta –kuadrillak, laneko lagun-taldeak...–.

**Zer izango du ezberdina plan horrek aurrekoekin alderatuta?**

Pisu handiagoa eman nahi zaio, alde batetik, aktibazioari eta parte-hartzeari; eta, bestetik, gizartearen bilakaerak dakartzan behar berriei: mundu digitaleko euskarazko eskaintza handitzea, euskara ikasteko bideak erraztea...  
**Ze prozesu diseinatu duzue?**

Prozesu parte-hartzailea izango da, askotariko proposamenak lantzeko saioekin. Aurreikusten dugu dozena erdi bat lantalde osatzea eta horietako bakoitzarekin pare bat saio egitea. Gai-

nera, hainbat sektoretako kidez osatutako kontrasterako lantalde bat ere osatuko dugu.

**Nola bizi duzue Udaletik azkenaldiko oldarraldi judiziala?**

Arazo bat da, urte askoan aldeko kontsentsu zabala egon den gaian kontrako epaiak jaso direlako eta euskaraz normal jardutea zalantzan jarri delako. Bergarako Udalaren kasuan, funtzionamendua eta administrazioa oso euskaldunak dira; beraz, gurearen antzeko udaletan atzerapauso handia ekar lezake epai horiek. Eta, aurrez esan dugun moduan, euskarak, biziko bada, ezinbesteko ditu bereak dituen ohiko eta nagusi izango dituen eremuak. Ondorioz, zailtasunak zailtasun, guk euskaraz funtzionatzen eta orain arteko bideak sendotzen jarraituko dugu.

**Ze harreman duzu euskararekin?**

Duela gutxi, Onintza Enbeitaren bideo bat ikusi nuen, eta guztiz bat nator bertan esaten denarekin: "Babestu behar dugun" eta "gal-korra izan daitekeen" diskurtsoetik atera behar dugu. Ahuldu egiten du bere horretan. Erabili egin behar dugu, besterik gabe, eta erabilera hori eremu ezberdinetan indartu eta hedatu.



NIRE USTEZ

INAZIO NARBAIZA

## Adierazpen askatasuna

Adierazpen askatasuna, funtsezko eskubidea, zuzenbide-estatu batek derrigorrez baliatu behar duena, zalantzarik gabe. Zoritxarrez, gure gizarte demokratikoan maizegi zapuzten dena –komunikabideen itxierak, rap kantariak kartzelan, era askotako murrizketak...–. Eskubide hain inportantea izateak zera eskatzen du: *erabilera egokia egitea*, hain zuzen.

Aldarrikatzen dena erabat egokia eta beharrezkoa izan daiteke; aldarrikapen feminista kasu. Egunerokoak garbi azaltzen digu aldarrikapen eta borroka feministak, zoritxarrez, ez duela atzo baino premia gutxiago. Horregatik guztiagatik, Bergaran greba feminista orokorra zela-eta hainbat eraikin historikotan egin ziren pintaketak erabat onartezinak dira. Minduta eta kaltetuta daude, gaude, Bergarako harri zahar dotoreak, mugimendu feminista, egunero eraso estetiko bortitza sentitzen dugunok... Oso garbi dut mugimendu eta prozesu askatzaile guztiek kulturatik eta hezkuntzatik abiatu behar dutela. Pintaketa zatar horiek egin zituztenek gabezia historiko, kultural eta, esango nuke, batez ere, estetikutik egin zituztela. Zuzenketak noizko?

## Martxoa ekintzaz beteta dator, Korrika Kulturalari esker

Martxoaren 6an, *Soilik bai da bai* hitzaldia egongo da Irizar jauregian (18:00); hilaren 14an, erraldioen konpartsa eta musika eskolako trikiti taldearen kalejira irtengo da plazatik (19:00); hilaren 16an, euskal dantzen ikuskizuna egongo da Muniben –euria bada, Boluko frontoian– (12:00); hilaren 17an, *Museoaren zaindariak* umeendako pelikula

emango dute Seminarixoan (17:00); hilaren 20an, Korrika 07:25ean helduko da erdigunera eta Korrika Txikia 10:00etan hasiko da; hilaren 21ean, Kokoxa taldearen 150 antzezlan ikusiko ahalko da Seminarixoan (19:00); hilaren 22an, bertso jaialdia egongo da Seminarixoan (22:00); hilaren 23an, kalejira (11:30) eta euskal dantzen emanaldia izango dira Muniben (13:00) –euria bada, Seminarixoan–; eta, amaitzeko, *Oihaletxea* dokumentala ikusi ahalko da Seminarixoan (19:00).

## OHARRAK

### Erramu-zapatuko bazkarirako txartelak

Martxoaren 23an ospatuko den Erramu-zapatuko bazkaria Txapa Irratiak eta Xaxauk antolatuko dute, Udalaren laguntzarekin. Txartelak martxoaren 7an jarriko dituzte salgai, Iralan, 18:30ean. 15 eurotan salduko dituzte eta pertsonako lau erosi ahalko dira, gehienez. Aukera beganoa edo zeliakoa behar duenak hala abisatu behar du txartela erosterakoan; azken urteetan gailentzen doan mahoiz eta zuriz janzteko ohitura mantentzera deitu dituzte herritarrek.

### Kukubasoren landaketarako data berria

Otsailaren 24ko Itsasmendiko zuhaitz landaketa eguraldiagatik atzeratu ostean, martxoaren 10ean elkartuko dira. Izena berriro eman behar da, martxoaren 6erako: [kukubasoelkarte@gmail.com](mailto:kukubasoelkarte@gmail.com). Hilaren 10ean Boluko ziburuetan elkartuko dira (10:00).

### EAJ: Legebiltzarrerako, posta bidezko botoa

Batzokian eman daiteke, martxoaren 4tik aurrera, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 12:30era eta 18:00etatik 19:30era.

### Odol Emaileen Elkarte: hurrengo ateratzea

Martxoaren 6an, Arin eguneko zentroan, 16:30etik 20:30era.



Goraino bete zen Olaso Dorreko areto nagusia martitzeneko hitzaldia jarraitzeko. JARDUN

# Ikusmin handia piztu du sinboloen gaineko saioak

Lepo bete zen Olaso Dorreko areto nagusia martitzenean 'Bergarako sinboloez jabetzen' hitzaldian. Antolatzaileak pozik daude harrerarekin: "Kontua ez da kale baten izena aldatzea edo monolitoa kentzea, baizik eta jatorrian dagoen sinbologia zalantzan jartzea"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Ikusmin handia piztu zuen martitzenean Jardun euskara elkarteak Udalaren eta Olaso Dorrea Fundazioaren laguntzaz antolatu zuen *Bergarako sinboloez jabetzen* izeneko hitzaldia; txiki geratu zen Olaso Dorreko areto nagusia. Iaz *Antzuolako armariaren alardea* liburua idatzi zuen Patxi Olabarria antzuolarrak, Dekolonizatu Bergara taldeko Luciana Alfarok eta Izar Odriozolak eta Ibai Sanzek hartu zuten hitza.

## "Melo inportantea ireki dugu"

Gaiaren inguruko debata zabaltzea izanik hitzaldiaren helburu nagusia, Dekolonizatu Bergara taldekoak pozik daude "jende asko" gerturatu zelako Olaso Dorrean: "Ez genuen pentsatzen horrenbeste jende etorriko zenik, inondik inora. Melo inportantea zabaldu dugu, hori zen batez ere nahi genuena".

Horrez gain, Dekolonizatu Bergara taldeko Luciana Alfa-

rok uste du halako espazio gehiago sortu beharko liratekeela: "Egiten ari garena erakutsi nahi izan dugu. Militantziatik, batetik, Bergarako Ernai eta Dekolonizatu Bergara taldeko bezala; baina baita ikerketatik ere, Patxi Olabarriak egin duen bezala. Beharrezkoak dira martitzenean sortu genuena moduko espazioak; are gehiago, halako espazio gehiago beharko ditugu etorkizunean. Kontua ez da kale baten izena aldatzea, baizik eta haien sinbologiaz jabetzea eta sinbologia hori zalantzan jartzea. Kontua ez da monolitoa kentzea, baizik eta guretzat, kolektibo moduan, indarkeriaren, espolioazioaren eta sarraskiaren historiaren

**DEKOLONIZATU BERGARA TALDEKOEK EZ ZUTEN ESPERO HALAKO HARRERARIK, "INONDIK INORA"**

zati hori aitortzea. Aitortzea, eta ikusaraztea".

## Ernai: "Iraingarria da"

Ernairen ustez, "iraingarria" da herriko kale nagusietako batek Iralaren izena eramatea: "Gure herriko kale nagusiaren izena Espainiako inperioaren parte izan den kolonizatzaile eta genozida batena izatea iraingarria da, iraganeko eta egungo kolonizazioaren biktimentzat".

## Hizkuntza ere sinbolo bezala

Patxi Olabarriaren arabera, Antzuolako eta Bergarako historiak lotura estua dute eta Alardearen gaineko libururako ikertzen ari zela Bergararekin zerikusia duten hainbat kontu deskubritu zituen: "*Bergara* hitza agertzen den lehen dokumentua, 1.000 urtetik gora atzera eginda, B-rekin ageri zen eta ez V-rekin. Besteak beste, hori ere bada sinbolo bat, gure hizkuntzak historian zehar bizi izan duen inposizioaren seinale".



Arrano taberna asteon; lapurreta otsailaren 22an gertatu zen. SORTU

## Lapurrak sartu dira Arranon berriro ere, eta dirua ostu dute

Adierazi dute "lapurreta asko" izan direla azken asteetan: "Guztiak izan dira taberna eta komertzio txikien aurka"

### J.B.L. BERGARA

Bergarako Sortuk, Ernaik eta LABek aditzera eman dutenez, otsailaren 22ko gauean lapurrak sartu ziren Arrano tabernan: "Leihoko kristal bat apurtu eta dirua eraman zuten; laga Arrano taberna bakean! Eraso hau ez dugu soilik Arrano tabernan kontrako eraso bat bezala jotzen, eta herrian jazo diren beste hainbat erasoren marko berean kokatzen dugu". Sorturen, Ernairen eta LABen arabera, "asko" izan dira azken aste eta hilabeteetan herrian izan diren lapurretak: "Guztiak herriko taberna zein

komertzio txikietan gertatu dira. Horregatik, Bergarako herri osoaren eta langile guztien aurkako erasotzat jotzen ditugu".

### "Elkartasun eta babes osoa"

Horrez gain, "elkartasun eta babes osoa" adierazi diete kalteuei: "Elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diegu Arrano tabernako eta herriko komertzio txikiko langileei, eta, eraso hori salatzeaz gain, argi daukagu gure herria defendatuta eta Euskal Herri aske eta segurua eraikitzeke orain arteko konpromisoarekin jarraituko dugula".



BASTER

## 40 urteren ostean, agur dendari

Marili eta Marije Ibañezek agur esan diote Irala kaleko Baster dendari. Atzo, otsailak 29, izan zen denda zabalik egon zen azken eguna, eta hilaren 25ean "jai berezia" egin zuten bezeroei esker ona adierazteko: "Bezeroak deitu genituen, eta hainbat agertu ziren. Oso hunkigarria izan zen jai; bereziki, musika eta dantzekin eman ziguten sorpresa. Mila esker denoi; ez zaituztegu ahaztuko".

# Gala Knörren lana izango da Monzon-Ganuzan sari

Ameriketako Estatu Batuetako euskal diaspora aintzat hartuta ondu du lan hori artista gasteiztarrak: hiru paneletan banatutako bionbo bat. Haren arabera, "funtsezkoa" da euskaldunen historia kontatzea eta elkarbanatzea, Espartzak eginiko lanaren eran

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría** BERGARA

Jose Mari Espartza idazle eta editore tafallarrak martxoaren 7an, eguenean, jasoko du Monzon-Ganuzan Euskal Utopikoei Saria, eta Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak asteon jakinarazi dute Gala Knörr artista eta ikertzailearen (Gasteiz, 1984) *He was the adventurer* artelana jasoko duela.

Xabier Agirre, Jesus Mari Lazkano eta Mikel Lertxundi aditu artistikoei osatu dute epaimahaia, eta, beraz, hirurek hautatu dute Knörren lana: "Gizarteari interesatzen zaion guztia arteari interesatzen zaio. Arduratzen gaituzten gaiak, ziurgabetasunaren horizontea, jada ziurak ez diren ziurtasunak, gure patua, zalantzak, gure nahiak eta mundua ikusteko eta ulertzeko modu jakin bat osatzen duen guztia. Gala Knörr mugitzen da agertoki horretan".

**Euskal diasporan jatorria**

Knörrek iaz aurkeztu zuen lana *Soy tu huckleberry* erakusketan; Ameriketako Estatu Batuetako euskal diasporaren "gaitasun narratibo eta bisuala" aztertu zuen, Robert Laxalt idazle euskal-iparramerikarraren *Dulce tierra prometida* eleberririk ins-



Gala Knörr artista gasteiztarra. GALA KNÖRR

piratuta. "Laxalten eta bere aita Dominiquen istorioa da, Euskal Herrira datoz, Dominiquek harkada batzuk lehenago Far West-era emigratu baitzuen artzaintzan aritzeko". Artelana egiteko, Knörren osaba Henrikeren idatzi bat ere baliatu zuen, hark Laxalt ezagutu zueneko. "Bat-batean lotura pila bat aurkitu nuen egilearekin, eta horrek zerbaitez jabetzea eragin zidan. Gure historia kontatzean, barrutik edo publikotik, sortzaile, artista, idazle eta abar gisa, mota guztietako pertsonekin loturak

sortu ditugu, eta elkartu egiten gaitu". Hala, nabarmendu du obra "hiru paneletan artikulatutako bionbo bat" dela, zeinak idatzia duen Laxalten obrako aipamen bat atzealdean.

**Saria, "ezin hobea"**

Knörren arabera, honako hau entzun zion Espartzari: "Unibertsala izan nahi baduzu, kontatu zure herrixkaren historia". Eta orduan jakin zuen haren artelana "ezin hobea" izango zela "euskal kulturaren alde lan nekazina egin duen batentzat".



BERGARAKO UDALA

## Ohorezko abonatu txartelak

Hainbat herritarrek kirolaren alde egiten duten edo egin izan duten lana eskertzeko edota kirol arloan lortutako emaitzak saritzeko, *Ohorezko abonatu txartela* kanpainaren bigarren edizioa egin du Bergarako Udalak, eta bost izan dira aurtin saritutako bergarrak: Ander Alberdi, Ritxar de Goñi, Eider Elorza, Ander Uriarte eta Nerea Agirrezabal.

## Arteagak 'Memorias de la mar ciega' liburua aurkeztuko du

Josu Arteaga idazleak (Arrasate, 1971) *Memoria de la mar ciega* liburua aurkeztuko du bihar, martxoak 2, Bergarako kartzela zaharrean, 18:30etatik aurrera.

Hain justu, Olariz izeneko toki batean gertatutako istorioak ditu oinarri bere azken lanean Arteagak, baina, sinopsian dioenez, "gauza bera gerta zitekeen hemen edo han, bizitza berdín delako edonon. Ikusten jakitea da kontua".

Kazetaritzan lizentziaduna da arrasatearra, eta hainbat literatur eta kazetaritza lehiaketa irabazi ditu. Horrez gain, *Marinel itsua* eta *Itsasneskak* film laburrak zuzendu ditu.

## 'Totem' filma izango da zineklubeko lehen emanaldia martxoan

Zinema On taldeak martxoko zineklubeko programaren berri eman du, eta Lila Aviles zuzendari mexikarraren *Totem* filma izango da lehen emanaldia datorren eguaztenean, hilaren 6an, Seminarixean.

Hilaren 13an, berriz, Sofia Coppola zuzendari estatubatuarren *Priscilla* filma izango da ikusgai, eta hilaren 20an, berriz, Lois Patiño galiziarren *Samsara*. Azkenik, *The Royal Hotel* filmaren emanaldia izango da hilaren 27an; hain justu, Kitty Green australiarrek ekoiztutako lan bat da.

Eguaztetenan izaten da zinekluba, 20:00etan; hiru euroko prezioa du.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

## GORKA ARTOLA

BERGARAKO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN

MARTXOAREN 8AN, EGUBAKOITZA,  
18:30EAN, 20:30EAN ETA 22:30EAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus ☎ 688 69 00 07

EPEMUGA: MARTXOKA 4, ASTELEHENA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



# Jolastoki inklusiboa izango du Herri Eskolak

Hezkuntzaren komunitatearen "elkarlanaren emaitza" da proiektua, barruko patioaren diagnostiko parte-hartzaile bat egin baitute, Udalaren hitzetan; prozesuaren parte izan dira, beraz, ikasleak ere. Lau gune izango ditu jolastokiak, eta beste bi terrazak

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** ANTZUOLA

Jolastoki "ilun, gris eta desatsegina" egokitu eta "askotariko ekintza pedagogikoei egokitutako espazio goxo bat" sortzeko, martxan dira Antzuola Herri Eskolako barruko jolastokia eraldatzeko lanak. "Patio inklusibo horretan ikasleek asko ikasi dezakete, proiektuak egin ditzakete, eta harremanak sortu ahalko dira adin ezberdinetakoan artean, psikomotrizitatea lantzearekin batera espazio erakargarri batean", adierazi du Aritz Igeltz Hirigintza zinegotziak.

Antzuola Herri Eskola, Haur Eskola eta Udala daude proiektuaren atzean, eta Kimu Bat enpresa dabil jardunean. Aurriekuspenen arabera, hilaren 31rako bukatuta egongo dira lanak, dirulaguntza bat dela-eta, 48.261 euroko aurrekontuarekin.

**Jolastokiko lau guneak**

Eskolako "azpiegitura hobetzea" du beste xedeetako bat proiektuak, "hezkuntza inklusiboa eta soziala, ingurugiroa, berdintasuna eta osasuna" bermatuko dituen espazio bat sortzea. Horretarako, lau gune izango dira.

Batetik, "haurren garapen artistikoa sustatzeko" asmoz, *Agora* gunea izango da jolastokian. "Egurrez forraturiko eserlekuek antzoki bat inguratuko dute, Grezia garaiko agoretan egiten zen eran. Arbel bat ere egongo da, haurrek muralak egiteko". Bestetik, *Oihana* espazioa izango da, psikomotrizitatea lantzeko. "Oihaneko animalien moduan, haurrek zuhaitz eta adarretan gora eta behera ibiltzeko aukera izango dute; baita deskantsatzeko ere". Hain justu, horretarako, belar artifiziala eta egurrezko blokeak jarriko dituzte, aldapak-eta eraikitzeko. Are gehiago, psikomotrizitatea lantzeko asmoz eraikiko dute *Sumendia* gunea ere: "Labak erre-



Herri Eskolako barruko patioan dagoeneko martxan diren jolastokiko lanak. A.R.K.

## ASKOTARIKO EKINTZA PEDAGOGIKOEI EGOKITUTAKO "ESPazio GOXO BAT" SORTZEA DA ASMOA

ko balu lez, haurrek paretako boulderrean eskalatu dezakete, irudimena erabiliz".

*Hondartza* da beste guneetako bat. Hondarra izango du, eta baita hondartzako toldoa irudikatuko duen etxolatxo bat ere. "Hondarra bezalako elementu naturalen bidez, umeez ukimena, sormena, komunikazioa eta talde kohesioa lantzeko aukera izango dute.

**Terrazako espazioak**

Terrazan bi gune izango dira, eta eginak daude dagoeneko: 3 eta 5 urte artekoek zuzenduta dago bata, eta pinu azalarekin zein silize hondarrarekin esperimentatzeko aukera izango dute; bestea, berriz, baratzea da: haurrek landareak landatu eta zaindu ahalko dituzte, naturaren ezagutza bermatzeko eta atxikimendua erdiesteko.

## Euriak kalteak eragin ditu ikastetxean

Euria protagonista izan da asteon Debagoienean, eta baita euriteen ondorioak ere; Antzuolan, esate baterako, Herri Eskolaraino sartu zen ura asteleheneetik martitzenera bitartean, gauean, eta kalteak eragin ditu.

Olatz Lezeta Antzuolako alkateak jakinarazi duenez, eskolaren alboan dagoen pinuaren pinaburuek eta adaxkek ur-kanala oztopatu zuten. Gainezka egin zuen, eta, ondoren, ikastetxe barrura sartu zen ura; batik bat, alde berriko goiko ikasgeletara.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin harremanetan dago dagoeneko Udala, txosten tekniko bat egin dezan eta soluzio tekniko bat eman diezaion arazoari.



IMANOL SORIANO

## Eolikoek aurka, giza katea

Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta, Cilda Energy SLU enpresak Meakan eta Irimon egin nahi duen Trekutz parke eolikoa salatzen ekitaldia egin zuten joan den domekan, otsailaren 25ean. Hirurehun metroko haize errota bat irudikatzen asmoa zuten, eta hala egin zuten, ehunka herritar batu baitziren proiektuari ezezkoa adierazteko asmoz.

## Arrolak antolatuta, eski irteera egingo dute datorren astean

Arrola Mendi Elkarteak antolatuta, La Pierre de Saint-Martine-ra eski irteera egingo dute martxoaren 9an eta 10ean. 50 euroko prezioa du federatuentzat, autobusa, afaria, lo-lekua eta igandeko gosaria barne; 60 eurokoa, aldiz, federatu gabe daudenentzat. Eskiatzeko materialari dagokionez, ez da prezioan sartzen.

18 urtetik beherakoek kasuan, baimenak sinatu beharko dira, eta nagusi baten ardurapean joan irteerara; hain justu, nagusi bakoitzeko lau adingabeko.

Izena emateko azken eguna gaur da: [labur.eus/arrolaeski2024](http://labur.eus/arrolaeski2024). Alabaina, elur faltarengatik, irteera bertan behera gelditu daiteke.

## Eskolarteko pilota jaialdia egingo dira bihar, 16:00etan

Eskolarteko pilota jaialdia egingo dituzte, beste behin, Antzuolako udal pilotalekuan; bihar, martxoak 2, jokatuko dira, arratsaldeko lauretan hasita. Antzuolako pilotari gazteak, ordea, ez dira bakarrik arituko jokoan, pilotalekuan izango baitira Aretxabaletatik, Oñatitik, Bergararik eta Eibartik iritsitakoak ere.

## Bertako zuhaitzak landatuko dituzte bihar Arrola gainean

Arrola Mendi Elkarteak eta Antzuolako Udalak antolatuta, bertako zuhaitzak landatuko dituzte bihar, martxoak 2, Arrola gainean. Antolatzaileek azaldu dutenez, 10:00etan elkartuko dira Arrolan, baina bertan behera gelditu daiteke landaketa eguraldi txarrarengatik. Izena emateko: [labur.eus/antzuolalandaketa](http://labur.eus/antzuolalandaketa).

Hain justu, otsailaren 4an egin zuten lehen landaketa, eta Azaldegietan izan ziren orduko hartan: 210 zuhaitz landatu zituzten, hala nola pagoak, urkiak, gorostiak eta arantza zuriak. Oraingoan, 150 zuhaitz landatzea dute helburu antolatzaileek. Parte hartzeko dei egin dute.

## Dinamizatzailea izango da KZgunean eguaztenean

KZgunean dinamizatzailea izango da eguaztenean, hilaren 6an, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Hala, udal liburutegira joaten direnek izan ditzaketen zalantzak argitzeko aukera izango dute; esate baterako, ordenagailuko programak eta Internet nola erabili jasotzeko jarraibideak emango ditu dinamizatzaileak. Hilero egiten du saio bat.


# GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA

**G**azteak euskarazko hedabideetara gerturatzeko helburua duen komunikazio proiektua da *Galdegazte*. Imanol Beloki kazetaria da aurkezlea eta ordu erdiko hamar saioz osatuta dago denboraldi berria. DBH-3ko, DBH-4ko eta batxilergoko kazetari sena duten ikasleek parte hartuko dute bideopodcastean.



## DEKORATU BERRIA

Apurtzailea, modernoa eta bizia da entretenimendua oinarri duen ikus-entzunezkoaren dekoratu berria. Gaur egungo *streamer*-en estetika oinarri hartuta, led argi koloretsuek, antzina irradian erabiltzen ziren tankerako mikrofonoek eta gonbidatua, elkarriketatzailerak eta aurkezlea jasoko dituen mahaiak izango dute presentzia nagusia eszenografian. Jolaserako aitzakia izango diren askotariko objektuak ere aurkituko dituzte mahai-gainean: Bixkor txakurra, mailua, pailazo sudurra, loreak... eta espero gabeko beste hainbat objektu berezi ere. Saioarean kareta eta logoa ere berrituta dakar hamargarren edizioak.



## JOLAS DIBERTIGARRIAK

Platoan dauden lagunak ezustean harrapatuko dituen jolasa izango da aurtengo berrikuntzetako bat. Elkarriketako zurruntasuna apurtzeko tartea izango da. Askotariko dinamika egingo


## Bideopodcast ganberroa kazetari gazteen eskutik

'Galdegazte' saioaren hamargarren denboraldia martxan da. Itxura berrituta eta tarte berriekin, Debagoieneko ikasleek eskualdeko pertsona esanguratsuek elkarriketatuko dituzte, martitzenetan, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean, Goiena telebistan



Imanol Beloki, Garazi Barrena eta Arrasate Institutuko ikasleak *Galdegazte* saioko platoon. AITOR AGIRIANO

dira eta pantailaz bestalde dauden ikus-entzuleek ere jolasteko aukera izango dute. *Palen jokoa*, *Asmatu kantua*, *Egia edo gezurra*, *Zer uste duzu?*... izenburupean, gonbidatua eta elkarriketatzailerak beste era batera ezagutzeko aukera emango duen tartea izango da, zehazki. Platoan dauden lagunak ez dute jakingo jolasa noiz egingo duten. Errealizazio-gelan daudenek erabakiko dute saioko zein unetan egingo den.



## AURKEZLE SALTSEROA

Julen Unanue 21 urteko gazte tolosarra izango du bidelagun Imanol Beloki saioko gidariak aldi berri honetan. Hura arduratuko da, astero-astero, jokoa prestatu, platoan dauden lagunak

egin beharrekoa azaldu eta bertan dauden partaideak xaxatuta elkarrekin jolasteaz. Sare sozialetan pil-pilean dauden jolasak jarriko ditu mahai gainean, eta, umorea oinarri, saioko protagonistei adarra jotzen ere ahalegingo da. Horrekin batera, saioaren zabalkunderako ikus-entzunezko pilula txikiak egiteaz arduratuko da: "Saioan ikusten ez diren gauza horiek guztiak kuxuxeatu nahi badituzte, adi egon beharko dute gazteek sareetan".



## ERREALIZAZIOA

Lantalde gaztea dago pantailaz bestalde produkzioan lanean. Horieta bat da Luken Ugarte-buru teknikaria. Gainera, estreinakoz, errealizadorea izango da. "Ilusioz nago erronka berri hau aurrera eramateko. Azken denboraldietako formatua aldatu egin dugu, gazteek ikus-entzunezkoak sortzeko eta kontsumitzeko dituzten ohiturak oinarri hartuta. Saio freskoa, dinamikoa eta gaztea egin dugu". Hala, aurreko denboraldietako formaltasuna apurtzea du lantaldeak helburu, gazteen gozameneko edukia sortuz; bai telebistarako eta bai sare sozialetarako ere.



## GONBIDATUAK

Garazi Barrena izango da hurrengo asteko saioko gonbidatua. Arrasate Institutuko ikasleen eskutik, arrasatear musikaria modu dibertigarrian ezagutzeko aukera egongo da. Alluitz Lazkano, Etxahun Iturriotz eta Julen Cabero izango dira platoan elkarriketatzailerak. Errealizazio-gelan, aldiz, Uxue Ibabe, Aiuri Beristain eta Haizea Bolinaga egongo dira kameraz bestalde saioa jarraitzen. Ondoren etorriko dira Sukuena musika taldeko abeslari Naia Herraz, Julen Herran *Herrantxi* eta beste gonbidatu asko. Guztira, hamar saio izango ditu estreinatuta berri den *Galdegazte*-ren denboraldi berriak.

Txomin Madinak eguztenezan egindako lehen *Datuetatik tiraka* tartea. GOIENA

Dronearekin zerutik ateratako Bergarako irudi bat. GOIENA

# Bailarako istorioei eta ahotsei buruzko magazina

'Hemen Debagoiena' saioa da Goiena telebistaren produktu izarra. Astelehenetik egubakoitzera makina bat istorio eta protagonista batzen du ordubete inguruko saioak. Adi, edozelan ere, aurrerantzean txertatzen joango diren nobedadeei

*Hemen Debagoiena* saioa jarraitzaileek ondo dakiten moduan, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan emititzen dute magazina. Larraitz Zeberioi aurkeztuta, talde oso baten lanaren emaitza da, eta askotarikoak dira intereseko tartea.

## ASTELEHENETAN

### 'LANDARA'

Abeltzaintza, nekazaritza, baso-ustiapena, faunarekin zein florarekin lotutako gaiak... Bailaran hainbat dira sektorean diharduten eragileak, eta ez dira gutxi aurrean dituzten erronkak. Julen Muruak gidatuko du *Landara* tartea aurrerantzean ere.

## MARTITZENETAN

### 'DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK'

Jakinekora da mundu zabalean diharduten debagoiendarrak ez direla gutxi. Lan kontuak, afizioak edo aisialdiak bultzatuta bizi dira kanpoan, eta haien eskutik jasoko da hango eta hemengo bizi-ohituren eta egiteko moduen berri. Martitzen oro eskainiko du bidaiatzeko aukera berri bat Eneko Azurmendik *Debagoiendarrak mundutik* tartean.

## MARTITZENETAN, BI ASTEAN BEHIN

### 'ERREZETA'

Ane Goikoetxea aretxabaletarraren eskutik, hainbat erreze-

tarekin gozatzen jarraituko dute ikus-entzuleek udaberrian ere. Sasoiari sasoiko produktuekin plater osasuntsu bezain originalak proposatuko ditu Goikoetxeak, bi astean behin.

## EGUAZTENETAN, BI ASTEAN BEHIN

### 'DATUETATIK TIRAKA'

Datu-kazetaritzan oinarritutako tartea da, aste honetan bertan estreinatu dena. Txomin Madinak datuak jaso eta horien bueltan dauden istorioak ekarriko ditu. Bisurtea izan da aste honetako gaia, eta banketxeei buruzkoa izango da hurrengoa EITBrekin eta Tokikomekin elkarlanean.

## EGUAZTENETAN

### 'DEBAGOIENEAN EGINA'

Harrera oso ona izan du bailarako enpresen jardueren gainean Iñigo Barrenak orain arte gidatutako tartea. Izan ere, gertuan dauden lantegiak ezagutzen segitzea da asmoa datozen hilabeteetan ere.

## EGUENETAN

### 'LUZAPENA'

Kirolak eta jarduera fisikoak ere lekua izango dute *Hemen Debagoiena* saioan. Mireia Bikuñak bailarako hainbat kirolari ezagutaraziko ditu, eta askok hegemonikoak ez diren kirolak praktikatzeko dituzte, gainera. Jarraipena izango du *Luzapena* tartea.

## BI ASTEAN BEHIN

### 'DEBAGOIENA ZERUTIK'

Bailara zerutik ikusteko aukera ere izango da aurrerantzean *Hemen Debagoiena* saioan. Dronearekin grabatutako irudiek ahalbidetuko dute hori. Astean behin bailarako txoko bat aukeratu eta gure bazterrek txoriek ikusten duten moduan ikusteko aukera izango da.

## Mendi lasterketak: kontakizun zabala

Bailarako hitzorduek emandakoa xehetasunez erakutsiko dute 'Harmailatik' saioan

Debagoieneko taldeak jokatzeko ari diren ligen berri ematen jarraituko dute *Harmailatik* saioan –baita klub berri ere–, eta, bereziki, bailarako lasterketetan jarriko dute indarra. Alde horretatik, mendi lasterketek hazkunde handia izan dute azken urteotan, eta beste lasterketa batzuk desagertzen joan dira; aurten, Oñatiko duatloiak utzi du hutsunea, nahiz eta baliteke urtebeteko atsedena baino ez izatea. Ibarreko herri askotan mendi lasterketak antolatuko dituzte 2024an, eta duela bi aste Antzuolako 8 Miliak lasterketarekin egin zuten moduan, Arrasate-Udalatx, Aloñako Igoera, Ahuntzen lasterketa, Gabez Takarraran eta Ikazkin Trail lasterketak ahalik eta zabalduko dituzte.

## Urteurrenetan presente

Horrekin batera, talde edo klub batendako baino gehiagorendako urte berezia izango da hau; izan ere, Aloña Mendikoak 75. urteurrenean murgilduta egongo dira eta Arrasate errugbiko nesken taldeak 30 urte beteko ditu. Hortaz, ospakizun horietan ere presente egongo da Goiena telebistako kirol saioa.

## Formatu berriak eta gazteak jomugan Goiena telebistak denboraldi honetan

'Galdegazte' saioaren hamargarren denboraldia bideopodcast formatuan ekoiztu dute



### Hemen Debagoiena

- Egunero
- 18:00, 20:00 eta 22:00



### Albistek

- Egunero
- 14:00, 15:00, 16:00 eta 17:00



### Harira

- Egubakoitza
- 18:30, 20:30 eta 22:30



### Harmailatik

- Astelehena
- 19:30, 21:30 eta 23:30



# 'Harira', alkateekin patxadaz aritzeko

Otsailean abiatu zen saioaren denboraldi berria, herriz herri eta elkarrizketa formatuan. Antzuolaren, Elgetaren, Eskoriatzaren eta Aretxabaletaren ondoren, Arrasateren txanda izango da oraingo astean, eta Bergara eta Oñati etorriko dira gero

Mahai-inguru eran edota elkarrizketa moduan. Debagoieneko nahiz bailaraz gaindiko erakundeetako ordezkari eta politikariek. Formatu ezberdinetan eskaini izan du Goiena telebistak *Harira* saioa, eta eskualdean barrena ibilbidea osatzen dihardu orain, alkateekin solasean aritzeko.

Badira zortzi hilabete 2023-2027ko agintaldia abiatu eta udal gobernu talde berriak martxan jarri zirela. Aldaketak izan dira kasu gehienetan: soilik Bergarak eta Oñatik jarraitzen dute aurreko agintaldiko alkate bera izaten; gainerako herrietakoak lehen aldiz ari dira kargu horretan. Baina izan era batera edo bestera, lehen ikasturte politikoaren bi herenak igarota, guztiek dute zer kontatu: orain artekoaren balorazioa, gobernu taldearen dinamika, oposizioarekin harremana, 2024rako aurrekontua, 2027ra bitarteko egitasmo nagusiak...

## Alkate berriak platoon

"Goienaren klasikoetako bat da *Harira*. Guretako inportantea da herri ordezkarietako erakunde ezberdinetakoei edota elkarte, talde, enpresa edo bestelako erakundeetako ahotza ematea, esku artean dituzten proiektuen



Gari Iturbe, Aretxabaletako alkatea, *Harira* saioan joan den astean. GOIENA

berri edota etorkizuneko asmoen eman dezaten. Eta, era berean, herritarren kezka alkateei mahai gainean jartzea", dio Oihane Agirrek, Goiena telebistako zuzendariak. Antzuolarekin eman zion hasiera denboraldia saioak, otsailaren 2an. Ostean etorri dira Elgeta, Eskoriatza eta Aretxabaleta, eta Debagoieneko herri nagusienaren txanda izango da gaur: Arrasaterena, alegia; 18:30ean, 20:30ean eta 22:30ean. Bergarari eskainitako saioa izango da hurrengoa, eta, Oñatin, Aramaion eta Leintz

Gatzagan geldialdiak eginda, osatuta geratuko da erronda. Egubakoitzetan izango da, astero, salbuespen batekin: azken *Harira* martxoaren 27an izango da, eguaztena.

Goiatz Arana gidari dela, herritarrek parte-hartze aktiboa dute saioan: herriko berriemilearen eskutik, kaletik galdera eginda; Whatsapp edo Telegram bidez, 688 69 00 07 telefono-zenbakira idatzita; edo *berriak@goiena.eus*-era mezua bidalita. Izan galdera, kezka-iturri, iradokizun...

## Eusko Legebiltzarrerako bozketak zuzenean Goienan

Goiena telebistak saio berezia egingo du, zuzenez, apirilaren 21eko hauteskundeetan

Hauteskunde urtea izango da aurtengoa ere. Hain justu ere, bi domekatan jarriko dituzte hautetsontziak herri ordezkariak aukeratzeko: apirilaren 21ean eta ekainaren 9an. Lehenengoak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango dira; bigarrenak, Europakoak.

### Apirilaren 21ean saio berezia

Goienak bie egingo die jarraipena, baina bereziki arreta jarrita Gasteizko Legebiltzerra berritzea, apirilko bozketetan. Hala, Goiena telebistak eta *Goiena.eus*-ek, esaterako, zuzenez egingo dute egunaren jarraipena. Telebistan, 19:30ean hasita, Goiatz Aranak eta Txomin Madinak aurkeztuta. Saioa sarean ere ikusi ahal da. Goienako kazetarietako herrietatik egingo dute kontakizuna, zuzeneko konexioen bitartez: egunak emandakoa,

boto kontaketa, emaitzak, iritziak... jasoko dituzte. Platoan, ostera, aurkezleekin batera, Elena Laka ariko da emaitzen analisia egiten, eta, era berean, EH Bilduko eta EAJko ordezkariak ere bai. Boto kontaketa, grafiko berezien bidez, une oro jarraitu ahal dute ikus-entzuleek. Baita Legebiltzar berria nola geratuko den, eta legebiltzarkide debagoienarren berri emango dute. Apirilaren 21ean izango da hori. Biharamunean ere tarte berezia eskainiko diote hauteskunde egunak emandakoari, *Hemen Debagoiena* saioan, baina aurretik, hauteskunde kanpainen, Gipuzkoako hautagaiekin eztabaida saioa eta banan-banako elkarrizketak ere egingo dituzte.

*Goiena.eus* en eta GOIENA aldizkarian ere egingo diete jarraipena hauteskunderi; baita Arrasate Irratian ere.



Goiatz Arana eta Txomin Madina. GOIENA



## Galdegazte

- Martitzena
- 19:30, 21:30 eta 23:30



## Elkarrizketa

- Eguaztena
- 19:30, 21:30 eta 23:30



## Kooltur

- Egubakoitza
- 19:30, 21:30 eta 23:30



## Kontu Kontari

- Eguena
- 19:30, 21:30 eta 23:30



Mari Carmen Eraña eta Maria Agirre, *Kontu kontari* saioan. MARKEL ARRAYAGO

## Bizi izandakoak gogora ekarrita, kontu kontari

Etzeko atek zabaldu eta milaka istorio, anekdota, bidaia eta gertakari partekatuko dituzte debagoiendarrek 'Kontu kontari' saioaren edizio berrian. Atala berriak egunenetan 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean izango dira ikusgai Goiena telebistan

*Kontu kontari* saioaren bigarren denboraldia estreinatu berri du Goiena telebistak. Lehenengo denboraldian askotariko bizipenak gogora ekarrita, labetik ateratzeko prest daude beste mila istorio.

Lehen atalean Julen Zuazabitia aretxabaletarra aritu zen, atzo, Jose Joakin Jauregirekin solasean. Eta ez edonon, gainera: milaka ogi egin dituen labearen epeltasuna alboan zutela aritu ziren garai bateko kontuak gogora ekartzen.

Labea martxan jarrita, datozen asteetan ere, eguenero, urteak atzera eginda bizi izandako anekdota, bidaia eta egoera asko partekatuko dituzte debagoiendarrek pantailaz bestalde. Horiak guztiak partekatzen laguntzeko, oso gertuko dituzten eta ondo

ezagutzen dituzten herritarrak izango dituzte alboan bidelagun. Hain zuzen ere, Eskoriatzan, Oñatin, Aretxabaletan, Aramaion, Antzuolan eta Elgetan egingo du geldiuena, besteak beste, *Kontu kontari* saioak datozen asteetan.

### Mari Carmen Eraña hurrengo

Askotan egin dute elkarrekin topo Maria Agirre kazetari aretxabaletarrak eta Mari Carmen Eraña eskoriatzarrak, herrian *Tokartuena* izenez ezagun denak.

### MARI CARMEN ERAÑA 'TOKARTUENA' ETA MARIA AGIRRE KONTU KONTARI DATORREN EGUENEAN

Oraingo honetan, baina, Goiena telebistako kameraren aurrean jarri dira biak. 1936an amarekin errefuxiatu alde egin behar izan zuen garaia, Argentinara, Kubara, Londresera, Marokora... egindako bidaien esperientziak eta etxean ondo gordeta dituen eta kontatzeko asko duten objektuen inguruan arituko da Eraña Agirreren eskutik.

### Migel Maiztegi jarraian

Arantzazuko Goiko Bentako seme Migel Maiztegiarekin izango da Oihana Elorza Gorostiza kazetaria denboraldiko hirugarren saioan. Umetako jolasak, Arantzazuko obrak eta eskia izango dituzte berbagai, besteak beste, martxoaren 14an Goiena telebistak estreinatuko duen *Kontu kontari* atal berrian.

## Debagoiensean 23. Korrikak egingo duen ibilbidea zuzenean

Korrikaren hasiera eta amaiera ere zuzenean eskainiko dute, hainbat euskarazko hedabideekin elkarlanean

Martxoaren 14an Irundik abiatu eta Baionan amaituko da 23. Korrika, 2.400 kilometro egin ondoren. Bigarren astean pasako da Debagoienetik: martxoaren 20an, Bergara eta Elgeta zeharkatuko ditu, eta, egun batzuk geroago, martxoaren 23an, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati. Martxoaren 20an, eguaztena, goizeko sei eta erdietan sartuko da Debagoienera, Bergaratik, eta Elgetan agur esango diote, 08:45ean. Martxoaren 23an, zapatua, gauez iritsiko da Leintz Gatzagara (02:04), eta Oñati zeharkatzerako 05:30 inguru izango dira.

### Zuzenean

Debagoiensean Korrikak egingo duen ibilbidea zuzenean jarraitu ahal izango da *Goiena.eus* atarian. Goiena telebistan martxoaren 20ko *Hemen Debagoiena* saioa ere berezia izango da: Bergaran eta Elgetan Korrikak utzitako irudirik onenak eskai-

niko dituzte eta hainbat protagonistaren hitzak jasoko dituzte saioan. Kilometro zuzenean testigua eraman duten protagonista guztiak agertuko dira Goiena telebistan eta nahieran *Goiena.eus*-en, Korrikari eskainitako saio berezian. Lehenengo martxoaren 20an eta ondoren martxoaren 23an, zapatua.

### Elkarlana

Euskarazko hainbat hedabide elkarlanean jardungo dute Korrikaren hasierako eta amaierako zuzeneko saioen ekoizpenean; tartean, Goiena telebista. Martxoaren 14an, eguaztena, Irundik Korrikaren hasiera eskainiko dute, 15:15ean hasita, eta amaiera, berriz, Baionatik, martxoaren 24an, domeka, 11:30ean hasita. Amaierako saio horren lantaldeko kide izango da Amaia Txintxurreta, Goiena telebistako kazetaria. Bi saio horiek Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian ikusi ahal izango dira.



22. Korrika Aretxabaletan. GOIENA

Zelan ikusi  
Goiena  
telebista

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:  
943 25 05 05



### Antena bidez

Lurreko telebista digitalaren seinalea jasota, antena bidez ikusi ahal izango da Goiena telebista etxeetan. Kasu honetan, 25. kanalean topatuko duzu.



### Euskalteleko kable bidez

Euskaltelek duen telebistaren eskaintzaren barruan dago Goiena telebista ere. Debagoiensean, hamaikagarren kanalean topatuko duzu.



### Nahieran 'Goiena.eus' atarian

*Goiena.eus* atarian ikusi ahal izango dituzu telebistako ikus-entzunezko edukiak; zuzenekoak zein norberak aukeratutako saioa nahieran.



### 'Goiena' aplikazioa

Goiena telebistako edukiak nahieran ikusteko aukera erraza eta eroso klik bakarrean. Zure eskuko telefonoan edo tabletan deskargatu aplikazioa.

# Ixotzen-ek martxan du bazkidetza-kanpaina

Orain urtebete egin zuten energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko egitasmoaren berri emateko batzar irekia Elgetan. Kooperatiba izaera du Ixotzen komunitateak, eta asteotan ekin diote bazkidetza-kanpainari

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

"Hasierako helburuak forma hartzen joan dira", esan du energia berriztagarrien kooperatiban sartzeko interesa duten herritarrendako egindako azken batzarrean errektore kontseiluko kide Enaitz Ezpeletak. Momentuko egoeraren eta dagoeneko zabalik den bazkidetza-kanpainaren berri jaso dute bertaratutakoek.

## Kooperatiba, eratuta

Kooperatiba eratuta eta martxan dago, eta kontseilu errektoreko kideak dira hasiera bateko bazkide erabiltzaileak. "Hilero batzartzen gara eta harremanetan gaude inguruko beste energia komunitate batzuekin: Berener, Goiener, Argiñola, Oreka, Ekiherri eta Hitzar", azaldu du Ezpeletak. D2030 ekimenak ere hasieratik egin du bat Elgetako energia berriztagarrien komunitatearen proiektuarekin, eta bazkide laguntzaileak hiru dira, oraingoz: Elgetako Udala, Fagor Taldea eta Pagatza Taldea. "Kooperatibaren estatutu sozialak onartuta daude, eta bazkidetza-kanpainari ekin diogu orain".

Atzo, eguena, informazio-mahaia jarri zuten herrian Ixotzen kooperatibako kideek. Egingo dituzte halako ekimen gehiago. Bazkide egin nahi dutenendako, bestetik, lotura hau dago erabilgarri: [labur.eus/ixotzen\\_bazkide](http://labur.eus/ixotzen_bazkide). Bazkide egiteko 40 euroko ekarpena egin behar dute pertsona fisikoek eta 100 eurokoa pertsona juridikoek –elkartee, herriko dendek eta enpresek–. "Hortik aurrera, bazkideen erabakia izango da egingo diren proiektuetan sartu edo ez".

Informazioa helaraztea da orain energia komunitateko kideen helburu nagusia. Edozein zalantza argitzeko, nahikoa da kooperatibako kideengana jozea, eta eskura dago, baita ere,



Energia komunitateak egindako informazio bilera bat. IXOTZEN

## D2030 EKIMENAK ANTOLATUTA, HITZALDIA IZANGO DA EGUAZTENEAN UDALETXEAN

[ixotzen@gmail.com](mailto:ixotzen@gmail.com) helbide elektronikoa.

### Instalazio fotovoltaikoa

Ixotzen kooperatibaren lehen proiektua frontoiko teiltuan jartzekoa den plaka fotovoltaikoen instalazioa da. "Udalak onartuta du obra-baimena eta sinatuta dago lagapen-hitzarmena. Horrekin batera, Iberdrolak onartu du instalazioaren espediente, eta-zenbatekoa zein izango den oraindik ez badakigu ere- Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) onartu du dirulaguntza eskaera. Bestalde, Fagor Taldeak egindako 50.000 euroko ekarpenarekin ordainduko da obraren aurrekontuaren %40". Aurrekontua 50.854,71 eurokoa da. Kooperatibako arduradunek aurreikusten dute Aste Santutik udara bitartean egingo dela instalazioa. Proiek-

tu horretan oraingoz interesa agertu duten familiek jaso dute egindako potentzia banaketaren eta kalkulatuako ekarpen ekonomikoaren gaineko informazioa.

### Aurkezpena eguaztenean

Aurkezpen-saio bat ere iragarri dute, martxoaren 6rako. Ixotzenek, D2030 ekimenak eta Elgetako Udalak antolatuta, Tecnaliak D2030endako egin duen azterketaren emaitzak azalduko dituzte. Tecnaliak Debagoieneko egoera energetikoaren diagnostikoa eta ahalmenaren estimazio bat egin du. Alegia, biomasaetik eta Debagoieneko teiltuetan plaka fotovoltaikoak jartzetik zein energia eskari hornitzera iritsiko litzatekeen. Emaitzen berri emango dute.

Kooperatibaren eratze-prozesuan eta plaka fotovoltaikoen instalazioan zentratuta daude komunitateko ordezkariak, baina bestelako proiektuak garatzeko asmoa ere badagoela adierazi dute; gas propanoari alternatibak bilatzea, aholkularitza-zerbitzu bat martxan jartzea eta minieolikoaren gaineko azterketa bat eskatzea, besteak beste.

## Aurretiazko borondateei buruzko hitzaldia eguenean

Xalbadorpe elkarteak gonbidatuta izango dira antzokian Jesus Millas medikua eta Felix Garcia erizaina

**L.Z.L.** ELGETA

Aurretiazko borondateen inguruan pentsatu eta hausnartu beharra dagoela sinistuta daude Jesus Millas eta Felix Garcia osasun profesionalak. "Bizitzaren amaiera arindu dezakete; norberarena ez ezik, baita hiltzear den horren inguruan daudenera ere", adierazi du Jesus Millas medikuak.

Felix Garcia erizainarekin batera antzokian izango da martxoaren 7n, eguena. Xalbadorpe elkarteko kideek gonbidatuta, gaiaren gaineko hitzaldia egin-

go dute 18:00etan. Interesa duen herritar orori dago zabalik. "Jakinakoa da gure gizartean ez dela ohikoa bizitzaren amaieraz eta jaso nahiko genituzkeen zaintzen inguruan pentsatzea; heriotza tabu bihurtu da. Saioan hausnartu dugu nola gustatuko litzazigukeen zainduak izatea bizitzaren amaieran, aurretiazko borondateen dokumentuaz, sedazioaz, nahi ez diren tratamenduen bazterketaz eta eutanasiar. Kanean nahasmena sortzen duten kontzeptuez ere hitz egingo dugu", azaldu dute.



ELGETAKO MUSIKA GELA

## Piano ikasleak pozik Legazpitik

Herriko hamar piano ikasle Legazpin egindako piano topaketan izan ziren zapatuan. Diploma banarekin itzuli ziren Lorea Gallastegi Elorriaga, Irargi Ortuzar Ezpeleta, Ane Arana Mendizabal, Ane Gallastegi Egaña, Irea Alberdi Torres, Tiare Ferrer Barrainkua, Enea Arizmendiarrrieta Urkiza, Mikel Jose Egizabal Barrachina eta Laida Untzetabarrenetxea Urbistondo.

## Errigora ekimeneko produktuen banaketa Goibekoren eskutik

Nafarroa hegoaldeko uzta berria prest da, eta Errigora ekimenak *Eutsi gureari!* lelopean ekin dio banaketa kanpainari. Martxoaren 13ra arte egin daiteke eskaera, [Errigora.eus](http://Errigora.eus) webgunearen bidez zein telefonoz: 848 87 12 23. Aurreko kanpainetan moduan, Goibeko Euskaltzaleen Topagunea arduratuko da produktuen banaketaz Elgetan.

## OHARRAK

### Ipuinak liburutegian

Gaur, 17:30ean, hogei minutuko hiru saio.

### Korrika batzordea

Martitzenean elkartuko da taldea, 18:30ean, udaletxean.

### Martxoaren 8a

Elkarretaratzea dago deituta 19:30erako plazan. Lanketan diharduen taldea astelehenean elkartuko da berriz, 19:15ean.



Aloña Mendiren 75. urteurrenako aurkezpen-ekitaldia. GONTZAL BELATEGI

# 75 urte herriaren taupada izaten

Aloña Mendi Kirol Elkartek aurten beteko ditu 75 urte, eta urtemuga garrantzitsu hori ospatzeko hainbat ekimen antolatu dituzte datozen hilabeteetarako. 'Oñatiarren taupadia' izango da urteurrenaren leloa, eta, adibidez, armarrria berritu egin dute

## Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

1949an sortu zen Aloña Mendi Kirol Elkartea; orduko hartan, futbol sailarekin abiatu zen. 1968an, ordea, beste garrantzi bat hartu zuen; izan ere, orduko Txantxikutxoko elkartearen bueltan beste hainbat kirol ekintza antolatzen zituzten, eta bateratzeko erabakia hartu zuten. Bide horretan zehar joan dira gainontzeko sailak batzen, gaur egun dituen hamalauak izan arte. Urtemuga horren bueltan, Oñatiarren taupadia lelopean hainbat ekimen eraman dituzte eta eramango dituzte aurrera urte osoan zehar. Aloña Mendi Elkartea futbol sailarekin jaio zen, eta haiek betetzen dituzte 75 urte, baina urteurrenako antolakuntza batzordeko kide Aratz Losadak argi utzi zuen "elkarte osoaren jaia" izango dela, eta ez soilik futbolarena.

## Armarrri berria

Duela hilabete inguru ekin zion urteurrenako antolakuntza batzordeak ekimenen ingurukoei bueltak ematen eta elkarteke sailekin eztabaidatzen. Hasieran markatutako puntu nagusiene-

takoa, ordea, Aloña Mendi Elkarteen armarrria berritzea izan zen. Hainbat proposamen eta eztabaidaren ostean, ikur berria izango du hemendik aurrera klubak. "Herrian errotuta dagoen ikurra bada ere, lantal-

dekook armarrria berritzeko beharra ikusi genuen hasieratik, ez zegoelako gaur egungo erabileretarako pentsatuta", adierazi du Losadak. Horretarako, klubaren barruan armarrriaren erabileraren irakurketa egin zuten, eta sei erabilera aurkitu zituztela gaineratu du. Emaizta ikusita "aurrerapausoa" eman dutela aitortu du Losadak; gaur egungo errealitatera "askoz hobeto" egokitzen den marka dutela, alegia.

## Ospakizunerako leloa

Armarrri berriarekin batera, urtean zehar aurrera eramango duten kanpainaren leloa iragarri dute. Hain zuzen, Oñatiarren taupadia izango da. Lelo hori erabiliko dute urtean zehar egingo diren ekintzetan. "Aloña Mendi oñatiarren taupada da, kirola sustatzen duelako, bihotza mugitzen duelako eta sentimendu aldetik ere oso errotuta dagoelako", azpimarratu du Losadak.

## Askotariko ekintzak

Aloña Mendi Elkartea martxoan sortu zela aprobetxatuz, martxotik urtea amaitu bitartean ekintza ugari antolatu dituzte (Ondoko zatikian egitaraua). Ekintza horiek lau oinarritan banatu dituztela aitortu du Aratz Losadak: "Alde batetik, ekarpen soziala egin nahi genion herriari; hau da, herriarekin egindako jaia izan behar zuela argi genuen, eta hainbat eragilerek egin dugu egitaraua. Bigarren ildoan, berriz, parekidesuna izan da, eta ekintzak balio horien barruan sartzen saiatu gara. Jasangarritasuna izan da hirugarrena; eta azkena, baina garrantzitsua, era berean, elkartasuna".

## 'Merchandising' solidarioa

Urtemugaren harira, askotariko produktuez osatutako bi sorta ateratu dituzte: bata haurrentzat (40 euro) eta bestea helduentzat (50 euro). Horiek eskuratzeko, sorta osoa erosi beharko da, ezingo dira soltean erosi. Martxoaren 17ra arte egongo da eskuratzeko, eta eskaera klubaren webgunean egin beharko da. Irabazien zati bat Hotz Oñatirentzat izango da.



Hotz Oñatiko eta Aloña Mendiko kideak merchandising-arekin. G.B.

## Egitaraua

Egitarau zabala antolatu dute urte osorako, nahiz eta data eta ordu asko zehazteke dauden. Egitarauan, gainera, hitzordu berriak sar litezke. Hauexek antolatu dituzte:

- **Martxoak 10.** Zuhaitz landaketa Unaimendin. (10:00)
- **Martxoak 17.** Azkoagainen 75. urteurrenean, omenaldia futbol zelaiari. (16:30)
- **Apirilak 2tik 6ra.** Futbol campusa.
- **Apirilak 7.** Walking football-a.
- **Maiatzak 1.** Aloña Mendi-Real Sociedad beteranoen partidua; mendiko film labor berezien emanaldia; udaberriko tenis txapelketa.
- **Maiatzak 9.** Zuhaitz Gurrutzagaren *FutbolisTOK* bakarrizketa.
- **Maiatzak 12.** 93/94ko denboraldiko taldeari omenaldia.
- **Maiatzak 25.** Gipuzkoako Areto Futboleko Txapelketako finalak.
- **Ekainak 1.** Corpusetako eskubaloi txapelketa.
- **Ekainak 7.** Eskola Kiroleko azken jaia.
- **Ekainak 8.** Txantxiku saria.
- **Ekainak 14.** Gimnasia eritmitikoko erakustaldia.
- **Ekainak 16.** Infantil mailako futbol txapelketa.
- **Irailak 7.** Mural margotzea.
- **Irailak 20.** Aloña Mendi KE osoaren aurkezpen-ekitaldia.
- **Irailak 30.** San Miguel pilota txapelketa.
- **Urriak 1.** Hitzaldia.
- **Azaroa.** Kirol material bilketa solidarioa azaroan zehar.
- **Abendua.** Triatlloi erronka herrikoia.
- **Abenduak 2.** 75. urteurrenako zenbaki berezia etxetz etxe.

# Emakume sortzaileak ikusarazteko ekimena

Lehen aldiz antolatu dute emakume sortzaileen hamabostaldia, herrian artista diren emakumeen lana ikusarazteko eta etorkizunean sortzaile izango direnek gaur egun profesional diren emakume erreferenteak ezagutu ahal izateko helburuarekin

## Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Hainbat diziplinaz osatutako egitaraua aurkeztu dute emakume sortzaileen hamabostaldiaren baitan; martxoaren 6tik 17ra izango dira. Bertako ekintzetako protagonistak izango dira, alde batetik, emakume sortzaile profesionalak, eta, bestetik, herriko sortzaileak.

## Eguenean, omenaldia

Emakume sortzaile profesionali dagokienez, bertso gintzan, literaturan, antzerkigintzan eta musikan dabilen hainbat lan eskainiko dira. Eguenean, esaterako, Primi Erostarbe araztarra eta Maurizia Aldeiturriaga pandero joleak omenduko dituzte. *Larru Marruak* liburua oinarri hartu, eta Ixabel Agirresarobek euren bizitza kontatuko du ipuin kontaketa saio moduan. Oñatiko musika eskolako pandero jole neskek omenaldia egingo diete Primi Erostarberi eta emakume ekintzaileen belaunaldi horri guztiari.

## Oñatiar sortzaileen erakusketa

Oñatin bizi diren emakume sortzaileei ere lekua egin nahi izan diete, ikusarazteko herri mailan egiten duten ekarpena. Eta lan horiek erakusketa batean jarriko dituzte, kultura etxean, mar-



Elorza, Galdos, Osinaga, Olalde eta Soraluze, hamabostaldiaren aurkezpenean. A.T.

txoaren 8tik 22ra bitartean. Guztira, hamahiru emakume hauen lanak ikusi ahal dira: Amaia Cuesta, Ana Arregi, Anabel Myriana Vasquez, Beatriz Igartua, Edurne Iriondo, Hortensia Alcalá, Ines Murguzur, Leire Lopez, Marina Arregi, Miren Zuazola, Puri Tejerina, Teresa Diaz eta Idoia Etxebarria.

Erakusketa antolatzen dabilen Lide Osinaga artisauak adierazi du erakusketan izango den sortzaile gazteenak 19 urte dituela, eta badela 60 urtetik gorakoren bat ere. Margolanak,

makramea, bideoak, literatura... Askotariko diziplinak jasoko dira erakusketan.

Iñaki Olalde Udaleko Kultura zinegotzia eskertuta dago lehen aldiz era horretako erakusketarako deialdiak izan duen harrekin: "Artisau azoketan jende asko ikusten dugu, baina beste asko etxean daude euren bulegotxoetan, garajeetan, gelan... hainbat lan egiten. Eskertzekoa da ikustea hamahiru oñatiarrek interesa izan dutela erakusketan parte hartzeko. Lehenengoa da, baina ez dadila azkena izan".

## Martxoaren 6tik 22rako egitaraua

- **Eguaztena 6** Bat-bateko bertso musikatuak. Zinema-aretoa. 18:00
- **Eguena 7** Ipuin kontaketa eta musika. Zinema-aretoa. 18:00
- **Domeka 10** *eMcumek* antzezlan. Santa Ana antzokia. 19:00
- **Eguaztena 13** Ipuin kontaketa helduentzat. Zinema-aretoa. 18:00
- **Domeka 17** Bele kontzertua. Verdury Hall. 12:30
- **Martxoaren 8tik 22ra bitartean** *Emakume oñatiar sortzaileak* erakusketa. Kultura etxeko erakusketa aretoa. 18:00-20:00

## Helburuak

Oñatiko alkate eta Udaleko Berritasun batzordeburu Izaro Elorzak ekimenaren helburu hauek azpimarratu ditu: "Egia da oholtza gainean edo etxeko txikitasunean emakume sortzaile eta artista asko ditugula, eta hori da hamabostaldiaren helburu nagusienetako bat; ikusgarritasun hori bilatzen dugu, gure herrian kontzientzia sortzea ere bai, eta kolektibo moduan pentsaraztea eta, batez ere, euren lana aitortu eta erreferente berriak bilatzea".



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

## Klimarekin jolasik ez

Aste euritsua. Erreakak gainezka. Gero eta gehiagotan bizi ditugu eguraldiari lotutako muturreko baldintzak. Positiboena, Urkuluko urtegia nola betetzen den ikustea.

Ez da gertakari isolatua. Klima aldaketaren eragina gero eta nabarmenagoa da. CO2 isurketen ondorioz, planetaren tenperatura gora doa eta eragin zuzena dauka azken urteetan jadanik normala iruditu zaizkigun haizete, eurite edo berrotekin.

Parisko Hitzarmena 2015. urtean klima aldaketa geldiarazteko neurrietan oinarritu zen. Helburuen artean industriaerrekotik munduaren batez besteko tenperatura 1,5 gradutik ezin zitekeela pasa aipatu zen. Hortik gora, planetak jasan zezakeen kaltea aurreikusi gabeko mailara igo zitekeen.

Bada, iritsi gara jada 1,6 graduko igoerara. Gure bizitza maila erregai fosiletan sustengatzen da, gaur-gaurkoz, eta erregai fosilen kontsumoa da berotegi efektua areagotzen duten CO2 isurpenen arduradun nagusia.

Larrialdi klimatikoaz seriozki hitz egiten hasteko garaia da. Gaurko ibaien emariak ezingo direlako etorkizuneko Urkulu hustu bat betetzeko erabili.



**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Mikel Garai eta Aitor Urizar, Oñati Bizirik ekimeneko kideak, martitzenean Antixena gaztetxean. O.E.G.

# Bosgarren bilduma dator, orain arteko zabalena

Herriko hamabost talde eta hiru bakarleri jasoko ditu Oñati Bizirik ekimeneko bosgarren bildumak. Asteburuan egingo dituzte grabazio lanak, Antixena gaztetxean bertan. Apiriletik aurrera etorriko dira aurkezpena, hitzaldiak, azoka eta bira

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herriko hemezortzi musika talderen eta bakarlariren kantu edo pieza bana jasoko du *Oñati vizirik* bildumak. Aurreko laurak bezala, autoekoiztutakoa eta autofinantzatutakoa da, eta asteburuan hasiko dira produktua gorpuzten.

Musika estudio bilakatuko da asteburuan gaztetxea, hantxe egingo dituzte-eta grabazioak. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, diskoan parte hartuko dutenak banan-banan pasako dira Antixenetik, bakoitza bere orduan. Imanol Astudillo eta Iñaki Zubia arduratuko dira lan teknikoek eta eurekin batera egongo dira ekimenera batu diren beste gazte batzuk ere. Asteburuan egindako grabaketak disko batean entzungo dira gero. Bilduma prest egongo da apirilaren 6an egingo duten aurkezpen egunerako. Horren ostean etorriko dira egiteko asmoa duten hitzaldiak, azoka eta bira, besteak beste.

## 2006an lehenengoa

Gaztetxetik sortutako ekimena da Oñati Bizirik. Kasablanka-koan sortu zen, 2005ean, eta urtebete geroago grabatu zuten lehendabiziko diskoa, gaztelekuan, gaztetxea botata zegoelako. Bigarrena 2009an ekoiztu zuten, San Martingoan. "Orduan, musika taldeek ez zuten horrenbeste baliabide ekonomiko eta tekniko egiten zuten musika grabatzeko, eta hortik sortu zen ideia, euren kanta jasotzeko aukera moduan. Egun, ez dago horrelako arazorik, musika zabaltzeko moduak gehiago eta errazagoak dira. Baina jarraitzen du izaten egun herrian dauden musikarien lagin bat, bilduma txiki bat",

## SPOTIFY ETA YOUTUBE PLATAFORMETARA IGOKO DITUZTE BILDUMAKO PIEZAK

diote Oñati Bizirik ekimeneko kide Mikel Garaik eta Aitor Urizarrek.

## Plataformetan entzungai

Lehen bietan jasotako kantuak punk estilokoak baziren ere, ondorengoek –2013an hirugarrena eta 2018an laugarrena– askotariko estiloak jaso dituzte, eta bosgarren hau da zabalena. "Egia da egun badirela talde gehiago ere herrian, aukeraketa bat baino ez da hau, baina ikusten da aniztasuna. Gainera, aurrekotan ez bezala, Spotify eta Youtube plataformetara ere igo ditugu kantuak. Proiektuak garapen naturala izan du".

Sofia Moralesek egin du *Oñati vizirik* diskoaren azala, eta bertan entzungo dira hauen kantu bana: Autorretratoa, Lehen Lerroa, Estolda, Inguma, Zentzu Okerra, Lee Kore, Sukena, Hamarratz, Lizartxo, Kepix, Aitor Regueiro, Malko, Aiert, Gassius Clay, Larru Beltzak, Osaba Kimu, Legatin eta Plaxa.



PAGO USO

## Onena, hamabosgarrenez

Zanbranako (Araba) Txoriarte ehiza barrutian egin zuten zapatuan Oñatiko ehiza txapelketa. Hemezortzi lagunek hartu zuten parte eta Jose Inazio Leibar izan zen eper gehien ehizatu zituena; bederatziz. Hura izan zen txapelketako irabazlea, eta hamabosgarrenez jantzi zuen herriko ehiztari onenaren txapela.

## Domekan iritsiko da Santa Anara 'Esne kolorekoa' antzezlan

Nell Leyshonek 2019an idatzitako izen bereko liburuan dago oinarrituta Tanttaka Teatroren azken lana: *Esnearen kolorekoa*. Domekan Santa Ana antzokian eskainiko dute, 19:00etan. XIX. mendeko Ingalaterrako nekazaritza giroan dago kokatuta eta neskato bat da protagonista. Fernando Bernues da zuzendaria. Taula gainean, berriz, aur-

pegi ezagun asko: Joseba Apaolaza, Jose Ramon Soroiz, Miren Arrieta, Aitziber Gamendia eta Bergarako Mireia Gabilondo eta Jon Olivares aktoreak. Arrasaten egin zuten otsailaren hasieran, eta izandako harrerarekin pozik zeudela zioen orduan Gabilondok, istorioa polita dela eta ikusleek ondo jaso zutela.

Oñatin domekan egongo da ikusteko aukera, Santa Ana antzokian, 19:00etan. Udal webgunean eta leihatilan eros daitezke sarrerak, hamar eurotan.

## OHARRAK

### Zuhaitz azoka eta landaketa

Natura Eskolak antolatuta, zuhaitz eta lore azoka egingo dute zapatu goizean plazan. Eta domekan, zuhaitz landaketa; 10:00etan elkartuko dira, plazan, eta 10:30ean Arrikrutzeko aparkalekuan.

### Baionara joateko autobusa

Korrika amaierara, Baionara, joateko txartelak salgai daude Txokolateixan, hemezortzi eurotan. Irteera martxoan 24an, 08:00etan, Enpresagintzan; buelta, 19:00etan.

### Bergararren bazkaria Oñatin

Martxoaren 16an, Oñatin bizi diren bergararren bazkaria egingo dute Pago Uson. Izena hilaren 8ra arte dago zabalik: ES 53 3035 000531 0050088593 –50 euro–.

### Outlet azoka egingo du Txandak gaur eta bihar

Udazken eta neguko produktuen outlet azoka egingo du Txanda dendarien elkarteak gaur, egubakoitza, eta bihar. Herriko hemeretzi komertziok hartuko dute parte.

"Aupa!

Lortu dot azkenien!

Oin, Debagoienien

nun erosi neike

auto bat?"



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n

**goienaOkmgida**

Debagoiengan baldin badago,  
hemen dago.



Goiena  
Okm Gidaren  
eskaintza osoa.



Yaman Mjahed eta Jose Gilarte, zapatuan jokatu duten WOW12rako egindako aurrez aurrekoan. WOW

## Kaiolara itzultzeko ordua iritsi zaio diamanteari

**BORROKA ARTEAK** Bihar jokatu dute, Madrilgo Vistalegre jauregian, WOW etxeko 12. borrokaldia. Estatuko MMA borrokalaria onenak batuko dira han, eta tartean egongo da urtebetez kaiolatik urrunduta egon den Yaman 'Diamante' Mjahed arrasatearra

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Belauneko lesio bat tarteko urtebetez min hartuta egon eta gero, Yaman Mjahed *Diamante*-ri iritsi zaio kaiolara itzultzeko ordua. Bihar, zapatua, egingo du hori, WOW etxeak Madrilgo Vistalegren antolatu duen borrokaldian (20:00, Movistar+). Han saiatuko da arrasatearra bere kategorian –61 kilo– lehe-

nengo postua errekerperatzen. Arrasatekoa kaiolara sartzeko irrikan dago: "Imajinatu ere ezin duzu egin zelan sentitzen naizen. Ebakuntza egin zidatenetik hamaika hilabete eta hogeitun pasa dira; ebakuntza-gelatik irten nintzen momentutik egun bakoitza zenbatzen joan naiz, ostera ere borrokaldi bat egitera iritsi arte. Eta iritsi da eguna.

Sekulako gogoia daukat borrokaldia egiteko; azken batean, lehiarako berezko grina daukat, nire DNaren parte da, eta lesioa tarteko borroketatik urrundutuz gogorra izan da urte hau, baina oso garbi neukan lesionatu aurretik nintzena baino indartsuago itzuliko nintzela, eta halaxe itzuli naiz. Prest nago zapaturako".

**Aspaldiko ezaguna aurrean**

Arrasatekoak Jose Gilarte izango du aurrean, eta jaialdiko borrokaldi nagusietako bat izango da euren –hamabi borroka dira–. Hala, profesionalen borrokaldien atarikoak izango da. "Joan den astean izan ginen Madrilgo borrokaldia promozionatzen, *show* apur bat sortzen. Hori ere bada kirol honen parte, baina bertan izan genuen aurrez aurrekoan ez genuen antzerkirik egin; tentsio hori benetakoa da, erreala da. Pertsonek harreman ona dut Jose Gilartekin: ez gara lagunak, baina ezta etsaiak ere. Hala ere, kolpe bat eman zidan buruarekin, eta berotu egin nintzen. Halakoetan badakizu burua hotz mantendu behar duzula; emozioak ez dira kirol honetan bidelagun onak, kontzentrazioa galtzen duzulako. Baina gizakiak ere bagara...", dio arrasatearra, barrez.

Hala, Gilarte eta Mjahed aspaldiko ezagunak dira. "2022an ere elkarren kontra borrokatu genuen, eta orduan mendean hartu nuen, baina horrek ez dit askorako balio. Gutako bakoitzak denbora tarte honetan gure bidea egin dugu, eta beti esan ohi dut ez dudala aurrean dudan kontrarioaren kontra borroka egiten; neure buruaren kontra borrokatzen naiz, eta, orduan baino indartsuagoa naizenez, borroka irabaztea orduan baino zailagoa izango da".

Biharko borrokari begira, kontrarioaren estrategia belauan makaltasuna bilatzea izan ote daitekeen galdetuta, *Diamante*-k ez du zalantzarik. "Etor dadila belaunera, ez daukat inongo arazorik. Belauneko bat jasoko du ordainetan. Min hartu nuen belauna erabat erreku-

peratuta daukat, erabateko konfiantzarekin nago; akaso, beste belauna baino indartsuago daukat. Ez daukat beldurrik".

**MMAn gorakada**

Borroka arte hori izugarri dabil hazten, eta joan den astean Ilija Topuriak Munduko Txapelketa irabazi izanak bultzada ekarriko duela uste du Arrasatekoak: "Lagun bati aspaldidanik esan nion MMAk halako batean gorakada izugarria izan behar duela, eta hori gertatzen denean hori egon gura dut, jauzi hori emateko prest, eta ondo entrenatuta. Jende asko orain hasi da MMA arreta jartzen, orain hasi dira entrenatzen. Gu, berriz, 14 urterekin hasi ginen honetan; lanak aurreratuta ditugu".

**Ilija Topuria amets**

Noski, Arrasatekoak egunen baten Topuriarekin berarekin lehiatzea du amets. "Bi urtean UFCko borrokalaria izango naiz, seguru. Topuria ere nire pisu berean hasi zen, 61 kilorekin, eta urteekin indartsuago egin da, 66 kilotan dago egun. Nik gorpuzkera oso antzerakoa daukat, eta badakit etorkizunean ni ere 66 kilotan lehiatuko naitzela. Bada, zalantza barik, egunen batean Topuriarekin borrokatu nahiko nuke, hori da ametsa. Gaur egun, 27 urte ditu; nik, 21. Hura orain Conor McGregorekin lehiatu guran dabil, eta etorkizunean nik Topuria aurrean izan nahi dut.

**PROFESIOALEN AURRETIK BORROKALDI NAGUSIA IZANGO DA ARRASATEKOARENA**

## Bosgarren dagoen Mutriku, liderraren domekako kontrario

Aretxabaletarrak sendotasun handia dabilta erakusten bigarren itzulian: sei partiduak irabazi dituzte

**X.U. ARETXABALETA**

Aretxabaletak bosgarren dagoen Mutriku hartuko du domekan Ibarren (16:30). Calzonon mutiak ikusgarri dabilta bigarren itzuli honetan –kategoriako liderra da UDA–, inork ez die

itzalik egin, 2024an jokatu dituzten partidu guztiak irabazi egin dituzte eta bigarrenari, Zarautzi, 5 puntu ateratzen dizkiote. Baina, adi etziko kontrarioarekin, lehenengo itzulian ere mutrikuarrak izan ziren-eta

Aretxabaletari hortzak erakutsi zizkioten lehenengoak (1-0). Lau garren dagoen Bergarak ere etxean jokatu du asteburuan, domekan (17:00, Agorrosin). Hala, mahoneroek azken sailkatu Beasain izango dute aurrean.

Emakumezkoen ohorezko erregerional mailan, berriz, atzealdeko postuetan dauden bi talde izango dira domekan aurrez aurre, azken sailkatu Oiartzunen zelaira joango dira-eta apur bat hobeto dauden Debagoiena Bailarako neskek (16:00).



Tolosaren kontrako partiduan. GOIENA

**Mondrak sendo jarraitzen du**

Gorengo mailan Mondrak indartsu jarraitzen du. Hamar jardunaldi geratzen zaizkio ligari, baina, 12 puntuko aldearekin, zuri-moreek oso aurreratuta dituzte mailaz igotzeko lanak. Bihar (16:30, Mojategi), UDAko bigarren taldea hartuko dute. Eta bigarren postua lehiatzeko trena galdu nahi ez duen Aloña Mendik ere derbia izango du domekan (16:30): atzealdean dagoen Antzuola izango dute bisitari.





Mugarri Inguko eta Soralue BKEko jokalaria, epaileekin batera, duela bi asteko derbian. IMANOL SORIANO

# Erasoak direla eta, aski dela esan dute epaileek

**ESKUBALOA** Gipuzkoako Eskubalo Federazioak asteburuko jardunaldia bertan behera uztea erabaki du, azken boladan epaileen kontra izandako jarrera oldarkorak salatzen. Komunikatu bidez, indarkeria-mota guztiak gaitzesten dituztela diote

**Iñigo Barrena Kortabarria** ARRASATE Gipuzkoako Eskubalo Federazioak asteburu honetako jardunaldiko neurketa guztiak bertan behera uztea erabaki du; izan ere, azken asteetan epaileen kontrako erasoak areagotu egin dira kantxetan, ahozkoak zein fisikoak. Hori dela eta, planto egitea erabaki dute, komunikatu honen bidez: "Joan den otsailaren 17an, Gipuzkoako Eskubalo Federazioak antolatutako partida batean, entrenatzaile batek arbitroari egindako erasoaren ostean, hurrengo egunean, Gipuzkoako Federazioko presidentek, Whatsapp bidez, komunikatu bat bidali zien Gipuzkoako klubetako presidente

guztietan, euren entrenatzaileei epaileekin errespetu handia izateko eskatuz, besteak beste. Horrez gain, astelehenean, hilak 19, Euskadiko hiru lurralde federazioek eta Euskadiko Federazioak agiri ofizial bat idatzi zuten arbitraje-estamentuari argi eta garbi babesa emanaz eta otsailaren 17an gertatutako egoera tamalgarriak saihesteko neurriak hartzeko konpromisoarekin".

Aurpegian kolpatua izan zen epailea arrasatearra da. Lander Irazabalbeitia da, eta kantxetan horrelakoak sarri gertatzen direla dio, nahiz eta kasu grabeez hari tokatu zaion: "Asteburuko gertatzen dira horrelakoak.

Egia da egoera okerrera niritokatu zaidala, baina ahozkoak ohikoak izaten dira. Pertsonalki nahiko ondo eraman dut egoera eta ez dut uste berriz horrelakorik gertatuko zaidanik, baina guztion artean gelditzea erabaki dugu, horrelako egoerak gehiago ez gertatzeko".

Mikel Mantxola oñatiarra Gipuzkoako epaileen batzordeko arduraduna da, eta, nahiz eta haren ustez jardunaldia gelditzeak "azken erabakia" izan behar duen, oraingoan beharrezkoa ikusi du bertan behera uztea: "Gelditzeak azken erabakia izan behar du, nire ustez. Azkenaldian, ordea, sei edo zortzi gertakari larriren berri izan dugu. Ba-

tzuetan, garrantzirik ez zaie ematen gertakari horiei, baina jendea oso erreta dago eta planto egitea erabaki dugu".

## Epaile gazteak jomugan

Biek ala biek diote erasoak jasaten duten epaileak gazteak izaten direla. Mantxolaren iritziz, epaileak gazteak izanik "ikaratu" egiten dira horrelako gertaeren aurrean eta ez dute erreakzionatzeko aukerarik izaten. Arrasatearrak barrutik bizi izan du egoera hori. "Egoera oso ezberdina izaten da epaile beterrano batekin edo gazte batekin. Entrenatzaile, jokalaria zein ikusleen aldetik jarrera asko aldatzen da epaile gazte bat kantxan baldin badago. Partiduak ikustean ere nabaritu dut hori", dio Irazabalbeitiak.

## Protokolo baten beharra

Gaur-gaurkoz, Gipuzkoako Eskubalo Federazioak ez du protokolo zehatzik horrelako kasuetan hartu beharko liratekeen erabakien gainean. Irazabalbeitiak "beharrezkoa" ikusten du protokolo bat ezartzea, eta Mantxolak adierazi du horretarako lanean dabilzela: "Denboraldiurrean esaten da protokolo bat erabiltzeko, baina ez dago ezer idatzita. Horregatik, hemendik aste pare baterako hitzordua egin dugu bilera batzuk egin eta protokolo bat idatziz zehazteko".

Gertaera larriak gertatu eta epaileak partidua geldituz gero, delegatuarengana jo behar du gertakariaren berri emateko, baina Mantxolak dio askotan "klubetako pertsonak" izaten direla eta ez dutela jakiten zer egin egoera horietan. Horregatik, beharrezkoa ikusten du delegatuek "formakuntza bat" izatea.

## SASKIBALOA MUK San Ignacio jasoko du domekan Ibarren

Sailkapeneko goialdean dauden taldeen arteko neurketa izango da domekakoa (18:00). Hirugarren eta laugarren sailkatuak arituko dira nor baino nor gehiago Ibarren. Biak, gainera, euren neurketak irabaztetik datoz, baina, etxean jokatu, MUK garaipena nahi du San Ignacio taldea sailkapenean aurreratzeko. Gizonezkoetan, berriz, aurreko asteko porrota ahaztu nahi du MUK, Gipuzkoa Basket taldeari etxetik kanpo irabazten badio zapatuan (19:00). Euskadiko Txapelketan, Soralue BKEk zapatuan (16:00) Easo Gipuzkoa Basketi egingo dio bisita eta Biotz Aloña Mendik Irunen jokatu du domekan (12:00)

## ARETO FUTBOLA Mondrate eta Eskoriatza etxetik kanpo arituko dira

Bata zein bestea ez ziren gaitz izan aurreko jardunaldian garaipena eskuratzeko, eta hiru puntuak eskuratzen ahaleginduko dira asteburu honetan. Mondrate etxean galtzetik iritsiko da asteburu honetako neurketara. Elorrietako taldeari egingo diote bisita zapatuan (18:30). Sailkapenaren erditik beherako taldea da aurkaria, eta aukera aproposa izan daiteke irabazi eta goialdean gehiago sendotzeko. Eskoriatzak ere aukera ezin hobea du garaipena eskuratzeko, azken sailkatuari, Usansolori, egingo baitio bisita domekan (18:00). Larri ez dauden aurren, aukera paregabea dute behetik aldentzen jarraitzeko.

### Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Real-Cadiz norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzu, aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida martxoaren 15ean, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 10a.

**Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!**

**1. Aplikazioa deskargatu.**

**2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.**

**Gertu. Zorte on!**

**Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!**

**goiena<sup>™</sup> kide**

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

# "Kanturako aukerak izatea dugu helburu"

**MIRARI SAGARZAZU SACRISTAN** GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEKO KIDEA  
Gipuzkoako bertsolari gazteentzako bi txapelketa abiatuko dituzte gaur, Oñatin eta Aizarnazabalen; sariketen inguruan eta harrobiko bertso-gintzaren egoeraz jardun du

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**  
OÑATI

Hezkuntza arautuan zein bertso-eskoletan dihardu Mirari Sagarzazuk (Oñati, 1986) lanean. Gaur egun, 33 ikasgelatara eta bost bertso-eskoletara joaten da.

**Txapelketa nagusien harrobiak dira bertso-eskolak eta ikastetxeetan egiten diren bertso-ekimenak. Ze garrantzi ematen zaie?**

Bertsoaren inguruan mugitzen garenontzat hezkuntza proiektua eta bertso-eskolak ardatz garrantzitsua dira bertsolaritzan, mugitzen duten jende kopuruagatik eta biharko eguneko bertsolariak bertatik irtengo direlako. Baina ez horregatik bakarrik; bertsolaritzaren transmisioa denez gure helburu garrantzitsuenetakoa bat, zabalpenerako gune ikaragarriak dira ikasleak zein helduak bertso-zaletzeko. Bertsolaritza jolasetik hurbiltzen saiatzen gara.

**Bi txapelketa abiatuko dituzue gaur.** Bai, hala da. Hasi bertso-eskoletako kide gazteenetatik, 9-10 urtekoetatik, 18 urtera artekoetara; bertsolari gazte guztiek kantuan egiteko aukerak izatea dugu helburu.

**Iaz sortutako Gelatik plazara ekimena da horietako bat.**

14 urte arteko bertso-eskolako ikasleak hartzen dute parte.



Mirari Sagarzazu. M. S.

## "JOLASETIK HURBILTZEN SAIAITZEN GARA BERTSO-ESKOLETAN ETA IKASTETXEETAN"

Bederatzi saio izango ditugu eta 250 haur inguru arituko dira kantuan. Sariketa moduan antolatu dugun arren, gelan ikasia plazara ahalik eta modu jostari eta erosoenean jendaurrera eramatea dugu xede. Bailara ba-

koitzean saio bana izango dugu, geurean izan ezik, bi izango dira eta: gaur Oñatin eta bi aste geroago Arrasaten. Ikasleen erosotasuna zaindu nahi dugu, batez ere, saioetan. Saio bihurrigoak eta arinak izango dira, eta, edonor etortzera gonbidatua dagoen arren, ez dugu bilatzen aretoak jendez betetzea. Berrikuntza moduan, aurten bailara bakoitzeko talde batek finalean kantatuko du, apirilaren 25ean Aretxabaletan ospatuko dugun Bertso Eskolen Egunean.

**Oinak buruan da beste sariketa, eta Aizarnazabalen abiatuko da gaur; zeinentzako da?**

14 eta 18 urte artekoendako da eta aurten 44. aldia da. 22 partaide izango dira, lau saiotan bereziak, eta, kasu honetan, bertso-afari formatua izango du. Gainera, taldean abestetik euren lana bakarka egitera egingo dute jauzi. Hemen ere bertsolariak zaindu nahi ditugu, noski, batzuentzako oraindik ere lehen plazarak baitira, baina egia da tonu serioagoa hartzen dutela saioek. Zurruntasuna ekidin nahian, apropos egin da bertso-afari formaturako hautua.

**Zenbat eta zelako bertso-eskolak daude Gipuzkoan?**

Mota askotarikoak daude: haurrenak, gazte eta helduenak,

ahalduntze bertso-eskolak, bat-batekoak edo idatzira bideratuak... Batzuk plazetan kantatzeko asmoz hurbiltzen dira eta beste batzuk, lagun artean ongi pasatu nahian, lehia edo plazarako intentziorik gabe. Eskola horietako batzuk Bertsozale Elkarrearen laguntzarekin kudeatzen dira, eta beste batzuk guztiz autonomoak direnez, euren kabuz dihardute lanean.

**Euskal Herriko daturik baduzu?**

2022 eta 2023ko datuekin ari naiz, aurtengoak biltzen ari bakara. Euskal Herri mailan, iaz 1.507 lagun elkartzen ziren 119 herritako bertso-eskoletan. Belaunaldi batetik bestera partekatzen den zaletasuna dela ikus dezakegu.

**Eta Debagoienean zenbat daude?**

Zazpi herritan ditugu: Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Aramaion, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin. Horietako bost helduen taldeak dira eta hamaika talde daude ikasle gaztetxoekin dihardutenak. Eskoriatzakoa da berrituena: urte batzuetan geldi egon den Hankamotx bertso-eskola martxan jarri dugu aurten berriro, Bergarako edo Arrasateko gaztetxoekin bertso-eskolekin batera. Datorren ikasturterako erronka polita izan daiteke bertso-eskolarik ez dagoen eta ere taldeak sortzea.

**Ikastetxeetan ere bertso-eskolak ematen dituzue; zeinendako?**

Ikasle guztiek jasotzen dute bertsolaritza bi edo hiru urtez 4. mailan hasi eta DBH-1era bitartean. Gure bailaran Nerea Urrak, Jokin Urangak eta hirurok jarduten dugu irakasle.

**Sarrerak erosi egin behar dira?**

*Gelatik plazara*-ko ez da sarrearik behar eta *Oinak buruan* sariketarako aurrez erosi behar dira, *Bertsosarrerak.eus* atarian.

## The Clayton eta Letagin Antixena gaztetxean

Burrunda Faktoriak gonbidatuta, bihar, zapatua, 19:00etan hasiko dira kontzertuak

**A. Aranburuzabala** OÑATI

Azaroan argitaratu zuten lan berri bana Oñatiko Letagin eta Aramaioko The Clayton taldeek. Harrezkero, "gogotsu" ari dira jendaurrean aurkezten. "Orokorrean, sentsazio ona dugu, feedback polita ari gara jasotzen jende ezezagunaren partetik", dio The Clayton taldeko Jokin Larrañagak, eta zera gaineratu du Letagineko Julen Agirrek: "Lan berriarekin, biharkoa hamargarren kontzertua izango da; horrenbestez, ezin gara kexatu".

**"Elkarrekin pozik"**

Izan ere, elkarrekin kontzertuak egitea adostu zuten diskoak grabatzen ari zirela, eta, hain zuzen, horrelaxe ari dira. "*Rock-piña* bat sortu nahi genuen eta gustura ari gara batera jotzen", dio Larrañagak, eta honela borobildu du Agirrek: "Sekulako musikariak dira, sekulako indarra dute zuzenekoan, eta, horretaz gainera, giro aparta dago bi taldeen artean. Horrenbestez, etxean eta The Clayton moduko talde batekin, ez dago gehiago eskatzerik! Jendea etor dadila bihar arratsaldean Antixenera, aparta izango da eta!".

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

**MARI CARMEN  
ERAÑA ERAÑA**

'KONTU KONTARI' SAIOAN  
MARTXOAREN 7AN, EGUENA, 19.30EAN,  
21.30EAN ETA 23.30EAN  
MARIA AGIRRE KAZETARIAK EGINDAKO  
ELKARRIZKETA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



# 'Badon' operaren birak Arrasaten du geltokia

Amaia antzokian izango da etzi, domeka, 19:30ean, Maurziak Ez du Inor Hil taldearen sormen-lana; askotariko diziplinak batzen ditu "genealogiaren eta kultura transmisioaren gaineko begirada kritiko" moduan definitzen duten ikuskizunak

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Gasteizko Principal antzokian estreinatu zuten, eta, harrezkerro, Bilboko Euskaldunan, Donostiako Antzoki Zaharrean, Baionako Lizeoan, Iruñeko Gallarren, Tuteran, Oíartzunen eta Irunen izan dira, besteak beste, eta batetik bestera gorpuzten joan da *Badon* ikuskizuna.

Korrikaren sorkuntzarako bekaren laguntzarekin abiatu zuten proiektua, eta, orain, Euskal Herria zeharkatzen ari da, Korrika Kulturala egitasmoaren baitan. Gaur, egubakoitza, Altsasun izango dira, Auritzen bihar, eta domekan Arrasateko Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak hamar eurotan daude leihatilan eta [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus) atarian eskuragarri.

## Opera postdramatikoa

Maurziak Ez Du Inor Hil taldeak ekoiztu du obra eta taldekide dira Ines Osinaga arrasatearra eta Amaia Castañeda oñatiarra. "Ez da musika emanaldi bat, zuzeneko musika badu ere; ez da ohiko antzerki bat, baina dramaturgiatik ere badauka. Era berean, asko gustatzen zaigu jantzitziarekin eta argiekin jolastea; eta zuzeneko bisualak pintxatzen ditugu. Superproduktio bat dela esaten dugu guk



*Badon* operaren une bat. AEK

gure artean [Barre]. Hamabi lagun gara biran eta hogeita hamarretik gora izan gara sorkuntza eta bestelako lanean elkarrekin", dio Ines Osinagak.

Istoria laburbiltzea ez da samurra: "Ez ditu, ipuinetan moduan, hasiera, korapiloa eta bukaera bat. Euskal iruditerian atentzioa eman diguten kontuak irudikatzen ditu, eta operak ematen zigun hori adierazteko modua".

## "Sentitzeko" obra

Pozik daude izan duten harrerarekin. "Feedback oso onak ditu-

gu; ikusi gaituzten lagunek behin baino gehiagotan ikustekoa dela esan digute. Ikuskizuna askorik ulertu ez dutela ere esan digute batzuek. Eta bai, ulertzen dut batzuetan ulertu behar horrek gain hartzen gaituela eta batzuetan ezerosotasuna eragiten duela. Nire gomendioa da ez arduratzeko istorioa zebateraino ulertzen duzun, baizik eta sorrazten dizun horretan jartzeko arreta. Zentzumen guztiak zabalik etorri, gu zaintzeko prest, ikusteko eta sentitzeko eta gurekin jolasteko prest".

# 'Hamarreko bitxia' ipuin liburu kolektiboa Udalbiltzaren eskutik

Hamar idazlek idatzitako beste horrenbeste ipuin ditu; adibidez, Oñatiko Idoia Etxeberriaren 'Bai, koanto!'

## A. Aranburuzabala ARRASATE

Geuretik Sortuak bekaren laguntzarekin argitaratu berri dute. "Aukeratutako idazleek guk proposatutako herri baten aste pare bateko egonaldia egin dute, eta hango istorioekin, per-

sonaiekin eta askotariko bizi-penak batuta ipuin bana sortu dute", azaldu du Udalbiltzako Kultura teknikari Maria Osesek.

Idoia Etxeberriak Ataunen eta Zaldibian egin zuen aste bana, eta han sortu zuen *Bai, koanto!*

ipuina. Bederatzi istorio gehiago daude bilduman jasota: Jon Abrilen *Odolostu*; Lutxo Egiaren *Lisboako lauso*; Ainhoa Urienen *Muga ez da lurraldea*; Maddi Zubeldiaren *Gollebarren erroak luze*; Maitane Perezek idatzitako *Piztiak esnatzen direnean*; Saioa Alkaizaren *Arrazoik*; Gaizka Sarasolaren *Desagertzen*; Maite Aizpuruaren *Esnatze basa*; eta Edorta Jimenezaren *Alkolean*.

Liburua salgai dago liburu-dendetan eta egiten ari diren herriz herriko aurkezpenetan.

## Goienakideen txokoa

### OTSAILEKO IRABAZLEAK

<b>ERRIGORAKO SASKIA</b> Cesar Azkarate Beitia (Azaralo)	<b>'ESNEAREN KOLOREKOA' ANTZERKURAKO SARRERAK</b> Agustín Iturbe Arenaza (Aretxabaleta)
<b>HARREMAN DENDAKO OTARREA</b> Befat Alastui Irizar (Antzuola)	<b>GORKA URBIZUREN AURKEZPEN MUSIKATURAKO SARRERAK</b> Irati Pagoaga Zaloña (Aretxabaleta) Irene Agirre Lizarralde (Oñati) Iraia Azkolia Altube (Oñati)
<b>ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK</b> Andrea Arzamendi Mollux (Arrasate) Eliska Irazu Hernandez (Eskoriatza) Jose Ignacio Buquete Ugarte (Oñati)	<b>REALAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK</b> Miguel Angel Elkoreberizbar Larrañaga (Bergara)
<b>SIRIMIRI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA</b> Maki Larrea Hermida (Bergara)	<b>REALAREN ETA YILA-REALAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK</b> Pedro Martínez Elgarresta (Antzuola)
<b>TARTUFO JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA</b> Itxaso Suarez Iburguren (Oñati)	<b>REALAREN ETA MALLORCAREN ARTEKO ERREGE KOPA PARTIDARAKO SARRERAK</b> Itxaso Suarez Iburguren (Oñati)
<b>MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA</b> Ainhoa Martín Peralta (Oñati)	
<b>LEZAU UPATEGIAN, BISITA ETA OTORDUA</b> Maki Barrena San Miguel (Arrasate)	

### SARIAK JASOTZEKO:

**Aurkizutako sarrerak.** Goiena Klubeko txartela eskutata, bizi sarrera izango dituzue Aurkizutako txartelarekin. Sarrerak hiru hilabeteko epean izango dira. **ARRIKRUTZ KOBETA.** Arazteko sarrak, Oñati, 943 25 05 05. **Didutegia:** asteartetik gandera 10:00 - 17:00 (zuzeneko hitzordiaz egiteko) Harreman-dendako ataria. **Ditama** jasotzeko, ja zuzeneko, bestelako txartelarekin, Harreman-dendara. **Antzerki Eroski** hipermaketan duden dendara. **Errigorako saskia jasotzeko,** zuzeneko GOIENAKIDE egotzara. **Sare** jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** eskutata edota **BAZKIDE ZENBAKIA** adierazten ematen den belfarko da. **GOIENA** Oñatiaren Lizeoan 31. Arrasate, 943 25 05 05. **Didutegia:** astelehenetik eguaren 09:00 - 18:00. **Egubakoitzean:** 09:00 - 14:00

## Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Cadiz norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuki eta zuki aukeratutako beste lagun batek. Reale Arena futbol zelaiko premium guretik. Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Partida martxoaren 15ean, 21:00etan izango da. Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 10a.

## Irabazi bi pertsonarendako otordua

### GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuo aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: martxoak 5

☎ 943 25 05 05 ✉ [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) 📱 'Goiena app'-e / zozketari atalean.

📞 GOIENAKIDE Jotetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

GOIENAKIDE KUOTA: 65€  
Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** Oñatiako erdigunean dagoen etxebizitza errentan ematen da. Garajea aukeran. 660 15 66 64

## 4. LANA

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zaintzeko eta pasiatzera ateratzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Orduka lan egingo nuke. Nire herrialdean erizaintzako laguntzaile ikasketak egin nituen. Telefona: 634 15 82 25

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zaintzeko eta pasiatzera atera eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. 631 79 87 75

**Bergara.** Umeak zaintzeko nituzke Bergaran, goizez zein arratsalde. 669 63 93 29

**Debagoiena.** Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko nituzke. Esperientzia handia dut. Legezko agiriak ditut. Deitu 672 96 37 99 zenbakira

**Debagoiena.** Persona nagusiak zaintzen, gabiketa lanetan edota sukaldari lanetan jarduteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. Deitu 602 87 65 07 zenbakira.

**Debagoiena.** Astelehenetik ostiralera garbiketa lanetarako, edo etxeetan pertsonak zaintzeko gertu nago. Lanaldi osoa edo orduka lan egin dezaket astelehenetik ostiralera bitartean. Soziosanitario titulua dut. Erreferentzia ezinhobeak ditut. Telefona: 641 10 95 67

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izate edo bestela lan egingo nuke. 625 25 57 78

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen mutila. Asteazken zehar zein asteburuetan lan egingo nuke edozein ordutan. Baita taberna kamarero edo sukaldari laguntzaile bezala. 688 89 91 25.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia dut. Malgutasun osoa, nahiago nuke etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario titulua dut eta nire herrialdean erizaintza ikasketak egin nituen. 643 50 56 62.

**Debagoiena.** Sukaldeko laguntzaile, eskorga-gidari, biltegioko peoi edo eguzki-plaken instalazioetan laguntzeko lan bila nabil. Lan hauek esperientzia eta ikastaroak eginak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 20 44 75.

## 8. DENETARIK

## 803. EMAN

**Akuria ematen dut opari (kobaia).** Sei hilabete dituen akuria ematen dut

opari (kobaia). Emea da. Posible bada, beste akuria emea duen norbaiti emango nioke. Deitu telefono zenbaki honetara 656 73 57 93

## 806. GALDU

**Bergara.** Plazatik poligon bitartean betaurreko graduatuak galdu ditut. Funda sartuta daude. 646 24 42 64

## TELEKOMUNIKAZIO TEKNIKARIA

**MERKAONA SL** udal enpresarako telekomunikazio teknikari baten bila gabilta.

Telekomunikazio azpiegituren mantentzeaz, instalakuntzetan egon daitezkeen matxuren arretaz eta zuntz sareen instalakuntzaz arduratuko zara.

Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria edo baliokidea, antzeko lanpostuetan eskarmentua eta gidabaimena izan behar dituzu. Euskara mailan 3. profila baloratuko da.

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, iraupen hori pasata mugagabe bihurtzeko aukerarekin.

Interesatuok bidali curriculum: [merkaona@merkaona.eus](mailto:merkaona@merkaona.eus)



## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Korosti Inmobiliaria

**Bergara:**  
Bidekurutzeta, 55m<sup>2</sup> erabilgarri, logela 1, igogailua eta garaje itxia aukeran. Guztiz berriua.  
**187.000€**



**Bergara: Artzamendi,**  
88m<sup>2</sup> erabilgarri, 2 logela eta balkoia. Eguzkitsua eta bista ikusgarriekin.  
**250.000€**

**Bergara: Lizaria,**  
95m<sup>2</sup> erabilgarri, 3 logela eta terraza bat patiora. Oso egoera onean.  
**210.000€**



Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmokokorosti.com](http://www.inmokokorosti.com)

Informazio gehiago:



## DEBA GARAIA ELKARTEKO GERENTEA

Deba Garaia Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarte da, bailarako nekazaritza-eremuko gestio-zerbitzuak antolatzeko eta landa inguruko biztanleen beharrei irtenbidea emateko asmoz sortua. Bergaran duen bulegorako pertsona behar du lanpostu honetarako:

**LANPOSTUA:**  
**DEBA GARAIA Elkarte KO GERENTEA.**

**EGINKIZUNAK:**  
Debagoiena eskualdeko landa garapenerako adostutako programa aurrera eramateko beharrezko baliabideak kudeatzea elkarrekin zuzendaritzarekin elkarlanean.

**Kontratua:** Finkoa.

**Izena emateko azken eguna**  
2024ko martxoak 25

Interesatuok, eman izena webgune honetan:  
[www.seleccionformacion.com](http://www.seleccionformacion.com);  
erreferentzia: 11814.



## ZORION AGURRAK



**OÑATI**  
**Unai Sanchez Gomez**  
Martxoaren 7an, 10 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasa zure eguna! Muxusss! Zure familiaren partetik.



**BERGARA**  
**Ibai Egaña Zabaleta**  
Martxoaren 5an, 8 urte. Zorionak, mutil haundi! Patxo haundi bat familia guztian partetik, asko maitez zaitxugu!



**OÑATI**  
**Martina Elorza Sanchez**  
Martxoaren 4an, 3 urte. Zorionak! Ondo ondo pasau eguna maitia, asko maitez zaitugu! Aitaxo eta amatxon partetik.



**BERGARA**  
**Oihan Zabarte**  
Martxoaren 4an, 4 urte. Zorionak, politxo! Primeran pasa eguna!



**OÑATI**  
**Aine Martinez Lopez**  
Martxoaren 3an, 10 urte. Zorionak, pitxin! Oso ondo pasa zure egunean. Muxu haundi bat familiaren partetik. Asko maitez zaitugu!



**ESKORIAITZA**  
**Julen Garcia Isasmendi**  
Martxoaren 3an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo haundi bat danon partetik!



**ESKORIAITZA**  
**Nahia Navas Clemente**  
2an, 10 urte. Zorionak, maitia! Segi horrela, zoragarria zara! Mila musu etxeko guztion partetik. Asko maitez zaitugu! (Aita, ama, Malen eta Lai)



**ARRASATE**  
**Izadi Ramos Trenado**  
Martxoaren 1an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Askodisfrutau zure eguna! Maitez zaitugu! Patxo potolo bat familia guztiaren partetik.



**OÑATI**  
**Julen Odriozola Larrañaga**  
Martxoaren 1an, 10 urte. Zorionak, Julen! Oso ondo pasau zure egunian. Patxo haundi bat!



**ARAMAIO**  
**Sare Ibabe Etxebarria**  
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak, maitxia! Egun poli politxe pasau! Pilo pilo bat guretzua!



**BERGARA**  
**Julen Mendiaraz Osinalde**  
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak, Julen! Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



**BERGARA**  
**Eki Markina Uribarbarrena**  
Otsailaren 28an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Segi horrelako alai izaten. Muxu handi bat familixako denon partetik!



**ARRASATE**  
**Garazi Moreno Rozas**  
Otsailaren 28an, 11 urte. Zorionak, politori! Primeran ospatu zure eguna! Muxu potolo-potolo bat Janitz, aitaxo, amatxo eta familixa guztian partetik.



**OÑATI**  
**Ioritz Otsailaren**  
24an, 7 urte. Zorionak, maitia. Urte askotarako! Askomaitez zaitugu! Amatxo, Ekaitz eta aitaxo.



**ANTZUOLA**  
**Haritz Rodriguez Martin**  
Otsailaren 25ean, 14 urte. Zorionak, etxeko mutil handienari! Ondo ospatu lagun eta familiarekin. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**'HARIRA': MAIDER MORRAS**  
 Arrasateko alkatea elkarrizketatuko du Goiatz Aranak, kargua hartu eta zortzi hilabeteren ostean.  
*'Harira'* Egubakoitza, 18:30, 20:30 eta 22:30



**KAZETARI GAZTEAK GARAZI BARRENAREKIN**  
 Arrasateko BHI Institutuko ikasleek elkarrizketatuko dute, Imanol Beloki aurkezlearen laguntzarekin.  
*'Galdegazte'* Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30



**MIKEL MATAREKIN BERBETAN**  
 Malawiko hiriburu Lilongwen bizi den antzuolarrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik.  
*'Debagoiendarrak mundutik'* Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00



**ALOÑA MENDIREN MAILLOTA JANTZI ZUEN LEHENA**  
 Mariano Altuberekin egingo du berba Iñigo Barrenak, ziklismoaren hasierako urteei buruz.  
*'Hemen Debagoiena'*  
 Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00



**MARI CARMEN ERAÑA ERAÑA EZAGUTZEN**  
 Atzera begiratua egingo du Maria Arregi kazetariarekin. Kontu kontari ibiliko dira.  
*'Kontu kontari'* Eguena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
 Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ESKELA

**Rafael Herrera Montero**



2024ko otsailaren 29an hil zen, 85 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur izango da, egubakoitza, martxoaren 1a, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokian.

Aldez aurretik mila esker.  
 Arrasaten, 2024ko martxoaren 1ean.

OIROIGARRIA



**Martina Ugarte Aia**



2024ko otsailaren 27an hil zen.

*Negu gorrian amaitu duzu  
 ehun urteko mundualdia.  
 Gure bihotzetan beti*

Olaldeko ilobak.  
 Oñatin, 2024ko martxoaren 1ean.

OIROIGARRIA



**Maria Luisa Leturia Meabe**



2024ko otsailaren 23an hil zen, Lekeition, 86 urte zituela.

Gure besarkada beroena familiari.

Xabierren lagunak.  
 Arrasaten, 2024ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA



**Bittori Askasibar Sarraoa**



2024ko otsailaren 26an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2024ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**Pilar Murguzur Makazaga**



Edor Moyua Elorzaren alarguna

2024ko otsailaren 27an hil zen, 89 urte zituela.

*Bizitza osoa pasa duzu etxeokak zaintzen  
 Maitasun eta goxotasunez gure bihotzak alaitzen  
 Zuk ereindako haziek jarraituko dute gugan loratzen*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA



**Felix Txintxurreta Etxebarriarteun**



2024ko otsailaren 26an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.

Etxekuak maitasunez.  
 Arrasaten, 2024ko martxoaren 1ean.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
 edo [eskhlak@goiena.eus](mailto:eskhlak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**Oroilore**  
 Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,  
 maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei zurekin bidez usurtzen lagunduko diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroena guggan izan duzun konfiantzagarri eta maitasunagatik.*

Mario, Iban, Mariñe eta Cristian

617 44 21 55  
 BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 1

**BERGARA** 'Musikarekin gozaten' saioa

Leire Ugartek gidatuko du erretiratuendako saioa. Orduetgia: 11:15-12:15.

*San Joxepen.***OÑATI** 'Gelatik plazara' bertso lehiaketa

Oñatiko 14 urte arteko neska-mutikoendako.

*Kuboan, 18:00etan.***ARETXABALETA** 'Zirkus' film laburraAratz elkartekoen lana ikusteko aukera bikoitza: 18:30ean eta 19:30ean. Aurretik, 18:00etan, *photocall*-etik pasatuko dira. Debalde.*Arkupen.***ESKORIATZA** Ahoz Aho jaialdia

Nelson Calderonek Kolonbiako ipuinak kontatuko ditu. Debalde.

*Zaldibar antzokian, 19:00etan.***OÑATI** 'Los límites materiales de la transición energética y digital' hitzaldia

Energia berriztagarrietan doktore Jorge Torrubiak egingo du berba, Natur Eskolak gonbidatuta.

*Kultura etxean, 19:00etan.***ARRASATE** 'Foto Laso' dokumentalaArrasate Zientzia Elkarreak Pedro Sologaitza *Laso*-ri (1920-2009) buruz egindako lana.*Amaia antzokian, 19:30ean.***ARETXABALETA** Korrika batzordea: bertso afaria

Haizea eta Oihana Arana ahizpek eta Martin Berrizbeitia bertsoariak girotutako afaria. Aurretik, 19:00etan, kantu-poteoa.

*Uratz Alde elkartearen, 21:00etan.*

## ZAPATUA 2

**OÑATI** Zuhaitz azoka

Hainbat mintegitako fruta-arbolak eta landareak erosteko aukera, Natur Eskolak antolatutako azokan.

*Foruen plazan, 09:00etan.***ARRASATE** First Lego League

Hainbat lagunek hartuko dute parte, 10:00etatik 15:00etara.

*Iturripen.***ARRASATE** Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduetgia: 11:30-13:30.

*San Andresko gazte txokoan.***ARRASATE** Andaluziarren Eguna

13:00etan, Alegria de la Sierra taldearen ekitaldia; 13:30ean, Lourdes Oncala sevillana dantzen eskolaren ekitaldia; 19:00etan, Gad De La Fuente laukote flamenkoaren emanaldia; eta 19:00etan, afaria.

*Al-Andalus elkartearen.***ANTZUOLA** Pilota partiduak

Eskolarteko pilota jaialdia.

*Pilotalekuan, 16:00etan.***ESKORIATZA** Galderen jolasa

16:45ean HHkoak eta 18:00etan LHkoak.

*Ludotekan.***OÑATI** 'Laser Tag' ekintza kuboan

Kuboko erabiltzaileendako, hogeituro minutuko txandetan.

*Gaztelekuan, 17:00etan.***ARRASATE** Txapa eta kartelgintza tailerra

M8rako prestaketekin hasiko dira gaztetxoak.

*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.***BERGARA** 'Memorias de la mar ciega' liburuaren aurkezpena

Josu Arteaga idazle arrasatearrak aurkeztuko du.

*Kartzela zaharrean, 18:30ean.***OÑATI** Letagin eta The Clayton taldeak

Burrunda Faktoriak antolatuta.

Sarrerak: ohikoak zortzi euro eta murriztuak hiru.

*Gaztetxean, 19:00etan.***ESKORIATZA** 'Ama-das' dokumentala

Indarkeria matxista sufritu duten lau emakumeren gaineko lana.

Gaztelezer. Debalde.

*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## DOMEKA 3

**ARRASATE** Mendi ibilaldi neurtua

3-5 ikasle osatutako talde txandetan egingo dute; talde bakoitza arduradun batekin.

*Biteri plazan, 09:30ean.***OÑATI** Zuhaitz landaketa

Ingurumen Jardunaldien baitan. Plazan elkartuko dira landaketa-gunera joateko.

*Foruen plazan, 10:00etan.***ELGETA** Bisita gidatua lubakietaraIzena ematea beharrezkoa da: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus*.*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.***OÑATI** 'Laser Tag' ekintza

Kuboko erabiltzaileendako, hogeituro minutuko txandetan.

*Kuboan, 17:00etan.***OÑATI** Ginkana gaztetxoekin

Sei eta bederatzi kide artekoak izango dira taldeak.

*Gaztelekuan, 17:00etan.***ARRASATE** Familian Jolasean ekimena

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako.

*Okendoko ludotekan, 17:30ean.***ARRASATE** Pelikula emanaldia

Gaztetxoendako.

*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.***ARAMAIO** M8: zinema-kafea18:30ean, kafea eta eskulanen zozketa; eta 19:00etan, *Barbie* filma.*Kultura etxean.***ESKORIATZA** Ahoz Aho jaialdia

Alberto Sebastian gaztelezerazko ipuinak kontatuko ditu. Debalde.

*Zaldibar antzokian, 19:00etan.***OÑATI** 'Esnearen kolorekoa' antzezlan

Tantaka taldearen lana, Nell Leysnonen eleberrian

oinarritutako. Mireia Gabilondo,



BADON

**ARRASATE** 'Badon' ikuskizuna

Ines Osinaga protagonisten artean duen opera postdramatikoa, Korrika Kulturalaren baitan. Marina Suarez, Xanti Agirrezabala, Oihana Vesga eta Ainara Gurrutxaga ere egongo dira oholtzan. Sarrerak, hamar euro.

*Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.*

Jon Olivares eta Aitziber Garmendia oholtzan. Sarrerak, hamar euro.

*Santa Ana antzokian, 19:00etan.***ARRASATE** 'Badon' ikuskizuna

Ines Osinaga protagonisten artean dagoen opera post-dramatikoa, Korrika Kulturalaren baitan.

*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 4

**ARRASATE** 'Emakumeak zientzian, izar iheskorak baino gehiago' hitzaldia

Ana Galarragak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.

*Kulturaten, 10:00etan.***DEBAGOIENA** Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Bergaran, Oñatin eta Arrasaten.

*Herri horietan, 12:00etan.***BERGARA** Oinarritzko sukaldaritza ikastaroa

Bergarako Elikadura Mahaiak antolatuta, Jesus Kalboetxeagaren eskutik.

*San Joxepe elkartearen, 17:30ean.***BERGARA** Pol-Polen batzar orokorra

Gaien artean landuko dituzte 2023ko balantze ekonomikoa eta 2024ko aurreikuspena; 2023ko jarduerak; bazkideak eta federatuak.

*Pol-Poleko lokalean, 18:00etan.*

## MARTITZENA 5

**ARETXABALETA** Jai batzordearen bilera

Andramaixak eta sanmigelak antolatzen hasteko jai batzordea.

*Arkupen, 18:00etan.***ESKORIATZA** Eskulanak

16:45ean HHkoak eta 18:00etan LHkoak.

*Ludotekan.***ARRASATE** Idazketa tailerra gaztelezer

Alejandro Fernandezekin.

*Bibliotekan, 18:00etan.***OÑATI** Literatura solasaldiaAntonio Zavalaren *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatuta* liburuaren gaineko saioa, Itziar Ugartek gidatuta.*Kultura etxean, 18:30ean.***ESKORIATZA** 'Autodefensa feminista' liburuaren aurkezpena

Maitena Monroy egilea egongo da ekitaldian.

*Zaldibar antzokian, 18:30ean.*



TANTTAKA

**OÑATI 'Esnearen kolorekoa' antzezlan**

Tanttaka taldearen lana, Nell Leyshonen izen bereko liburuan oinarrituta. Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia eta Jon Olivares oholtza gainean. Sarrerak, hamar euro. *Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.*

**BERGARA '824-1200: la linea de defensa de la Navarra occidental en Debagoiena' hitzaldia**

Iñaki Sagredok egingo du berba. *Olaso dorrean, 19:00etan.*

**EGUAZTENA 6****BERGARA '¿Nos gustaría ser enjuiciados por una máquina?' hitzaldia**

Zuzenbidean lizentziatu eta Kriminologiako graduatu Gomez Colomerrek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixoan, 10:00etan.*

**ARRASATE Haurrentzako lehen sorospen tailerra**

Aurrez eman behar zen izena. *Kulturaten, 18:00etan.*

**ARETXABAETA 'Soilik bai da bai' hitzaldia**

Berdintasun Zerbitzuak antolatuta, Korrika Kulturaren baitan. *Kulturaten, 18:00etan.*

**OÑATI Bat-bateko bertso musikatuak**

Bertsotan: Ane Zuazubiskar, Amaia Iturriotz, Uxue Fernandez eta Oihana Arana. Musikariak: Libe Goenaga eta Aner Peritz. Gai-jartzailea: Maider Arregi. *Zinema-aretoan, 18:00etan.*

**ARAMAIO Txirritolaren batzarra**

Joan den urtean egindako —eta egingo diren— ekintzen erreposoa,

elkartearen egoera eta hartu nahi duten norabidea izango dituzte berba, besteak beste. Irekia. *Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**

Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxironon, 18:30ean.*

**ELGETA Debagoienako energia diagnostikoaren gaineko hitzaldia**

Ixotzenek, Elgetako Udalak eta D2030ek antolatuta. *Osoko bilkuren aretoan, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Evolución del encéfalo humano' hitzaldia**

Juan Ignacio Perez Iglesias biologo eta zientzia-dibulgatzaileak egingo du berba. *Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA 'Toten' pelikula**

Zineklubean, jatorrizko bertsoan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

**EGUENA 7**

**ESKORIATZA Korrika Kulturala** 10:00etan, Huheziko ikasleen jolasak; eta 18:00etan, kontzertuak. *Fernando Eskoriatza plazan.*

**ARRASATE Sasoibide**

Lilatoirako entrenamendua egingo dute, Elorregiraino. *Biteri plazan, 10:00etan.*

**ESKORIATZA Odol-ateratzea**

Autobusa egongo da. *Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.*

**ELGETA 'Bizi amaieran hartu beharreko erabakiak' hitzaldia**

Jesus Millas medikuak eta Felix Garcia erizainak egingo dute berba, Xalbadorpe elkarteak gonbidatuta. *Espaloian, 18:00etan.*

**OÑATI Primi Erostarbe eta Maurizia Aldeiturriaga gogoan**

*Larru marruak* liburua oinarri hartuta, Ixabel Agirresarobek euren bizitza kontatuko du ipuin kontaketa moduan eta Mattinek marrazkiak egingo ditu aldi berean. Oñatiko musika eskolako pandero jole neskek ere parte hartuko dute. *Zinema-aretoan, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Emakume izoztua' eleberraren aurkezpena**

Jokin Zaitegi itzulpen sariketaren bidez itzultako lana aurkeztuko du Gema Lopez Las Herasek. Ostean, irakurraldia eta solasaldia egingo dituzte. *Kulturaten, 18:30ean.*

**ESKORIATZA Emakumeen mahai-ingurua**

Emakumeen arteko topaketa, beste kultura batzuetako emakumeen parte-hartzearekin. Torradak egingo dituzte. *Kultura etxeko sukaldean, 18:30ean.*

**BERGARA Monzon-Ganuz sari banaketa**

Gala Knörren artelana jasoko du Jose Mari Esparzak. *Seminarixoan, 18:30ean.*

**ARETXABAETA 'Ni eta nitarrak' bakarrizketa**

Maria Osés arrasatearrak idatzitako eta AEDk ekoiztutako, Iholdi Beristain aktoreekin, Korrika Kulturaren baitan. *Arkupen, 19:00etan.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Vulcanizadas taldea**

Emakume bizkaitarrez osatutako boskote batek emango dio hasiera martxoko egitarauari. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

**Pobres criaturas**  
Zapatua eta astelehena: 19:30.  
**Katak, la pequeña ballena**  
Zapatua: 17:00.

**BERGARA****SEMINARIXOA**

**Pobres criaturas**  
Domeka eta astelehena: 19:30.  
**El fantasma de Canterville**  
Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**Politicamente incorrectos**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua; 19:30, 22:00.  
Domeka eta astelehena: 19:30.  
**Boonie bears**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABAETA****ARKUPE**

**Pobres criaturas**  
Egubakoitza: 19:30.  
Zapatua eta domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.  
**Patrick. Heroi txikiak, balentria handiak**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ****FLORIDA**

**Robot dreams**  
Egubakoitza: 16:00.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00.  
Astelehena: 16:30.  
**Bob Marley: one love**  
Egubakoitza: 19:00, 22:30.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 19:00, 22:30.  
Astelehena: 17:15.  
**La zona de interes**  
Egubakoitza: 21:45.  
Astelehena: 16:30.

**Desconocidos**

Egubakoitza: 20:00, 22:30.  
Astelehena: 16:45.

**La estrella azul**  
Egubakoitza: 20:00, 22:30.  
Astelehena: 16:45.

**Politicamente incorrectos**  
Egubakoitza: 18:05, 22:30.  
Astelehena: 19:00.

**Sala de profesores**  
Egubakoitza eta domeka: 16:30, 20:30.  
Zapatua: 20:30.  
Astelehena: 19:15.

**Toten**  
Egubakoitza: 16:15, 20:30.  
Astelehena: 17:00.

**Pobres criaturas**  
Egubakoitza: 16:15, 20:30.  
Astelehena: 19:30.

**Guardianes del museo (euskaraz)**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Kung Fu Panda 4**  
Zapatua: 18:30.

**Secretos de un escándalo**

Egubakoitza: 16:15, 21:15.  
Astelehena: 18:45.

**Corre, tigre corre!**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Dream scenario**  
Egubakoitza: 16:45, 19:00, 21:15.  
Astelehena: 17:00, 19:15.

**Dune: parte dos**  
Egubakoitza: 16:00, 18:30, 19:15, 21:30.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00, 18:30, 19:15, 21:30.  
Astelehena: 16:15, 19:00.  
Martitzena: 16:15.

**KRITIKA****Desconocidos**

★★★★★

**Zuz.:** Andrew Haigh. **Herr.:** Erresuma Batua (2023). **Aktoreak:** Andrew Scott, Paul Mescal, Jamie Bell. **Iraupena:** 105 minutu.

**Zama astuna****ANTONIO ZABALA**

Adamek 40tik gora urte ditu, eta bakarrik bizi da. Haren bizitza markaturik geratu 11 urte zituenean gurasoak istripuz hil zirenean. Adam homosexuala da, eta ez zuen horretaz inoiz gurasoekin berba egin, ezta homosexuala izateak eskolan eta bizitzan sorrazitako arazoei buruz ere. Adamek Harry gaztea ezagutzen du. *Desconocidos* filmak hitz egiten digu bizitzan esaten ez diren eta ezkutuan bizi diren sentimenduei buruz. Bizitzan egoten dira esan edo egin ezin diren gauzak, garatu ez diren harremanak edo egin izan ez diren agurrak. Eta hori dena sorbalan eramateko zama astuna izan daiteke. Filmak Adamen bidaia oniriko, fantasmagoriko eta haluzinogenoa kontatzen digu.

Osagai horiek errealitatearekin nahasten dira eta zaila izaten da bereiztea benetan gertatzen dena eta Adamen buruan dagoena.

Zuzendariak lortzen du barneko amets-giro iheskorrek eta benetan zirrargarriak diren sentimendu eta egoerak ikusleari helaraztea. Gurasoekin dituen topaketak hunkigarriak dira. Gurekin ez dauden pertsonekin elkartu eta zintzotasunez hitz egin ahal izatea bihotzeraino iristen zaigun zerbait da. Hori lortzeko ezinbestekoa da aktoreen interpretazioa bikaina izatea. Andrew Scott protagonistaren lana zoragarria da. Eta asko laguntzen du gainerako aktoreen lanak. Guztiek egiten dute lan borobila, filma borobila izan dadin.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

## Galderak

Iritzi zabaldua da gaur egungo gaztetxoek, oro har, sakrifizioarako jarrerarik ez dutela, dena di-da batean nahi dutela, pazientziarik ez dutela, engaiamendu edo konpromiso falta, beiraz eginak daudela...

Eta iruditzen izan zait halakoak esaterakoan belaunaldi bat edo bi aurrerago egoteak ustez eskaintzen digun halako aldare moduko batetik egin ohi dugula, oharkabean utziz zer-nolako munduan erdituak izan diren. Izan ere, jakina, azken urteetan aurrerapen itzelak izan dira teknologian, komunikazioan, adimen artifizialean... Baina, bestetik, horren ifrentzuan begiratuz gero, bestelako galerak ere tamaina berean ekarri dituela jabetuko gara. Neurritz kanpoko informazio jarria, nonahi, noiznahi, etengabe digitalki konektatuta egon behar hori...

Gure seme-alaben hezkuntzarako, elkarrizketarako, maitasunerako hain oinarritzkoak diren espazio asko ez ote ditugu galdu? Eskaintzen al diegu behar eta merezi duten denbora?

Lehengoa eta oraingoa ezagutu dugunok, agian, egoeraz kontzienteago gara, baina hori besterik ezagutu ez duenari zaila da azaltzen galdu dugun hori eta galdutakoa berreskuratzea duen garrantzia. Samurra ez izanagatik, galdutakoa berreskuratzea gure esku dago, hein handi batean.

## BUKATZEKO

# 'Kaier bat' lanaren aurkezpena, 'Ttap'-en

Gaur argitaratu den 'Ttap' aldizkariko zenbaki berrian -242. zenbakian- dago ikusgai Joni Ubedak Gorka Urbizuri eginiko elkarrizketa. 'Hasiara bat', 'Kaier bat' eta, kasu honetan, solasaldi bat, Urbizuren lan berriaren barrenean murgiltzeko

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA  
Joan den urtarrilaren 15ean argitaratu zuen Gorka Urbizuri lehenengo bakarkako lana: *Hasiara bat*, hamar abestiz osatutako diskoa. Baina ez hori bakarrik; izan ere, otsailaren 24an *Kaier bat* izeneko liburua ere argitaratu zuen; izenburuak dioten moduen, Urbizuren kaier pertsonaleko zirriborroak erakusten dituen liburua. 2019. urtean "martxan zebilen tren batetik salto egitea" erabaki zuela dio Urbizuri -edo isilpean lanean aritu ostean-, eta bakarkako formatuan itzuli da; hain zuzen ere, hori aitzakia hartuta, *Ttap*-en izan da lan berriaren gainean hitz egiten.

Gaur bertan, *Ttap*-en 242. zenbakia deskargatu eta bertan egongo da ikusgai Joni Ubedak Gorka Urbizuri eginiko elkarrizketa osoa.

### Kaier pertsonala

Urbizuren musika gustuko dutenek hilabetez izan dute haren disko berria entzuteko aukera, baina orain, disko horren sor-kuntza-prozesuan berebiziko garrantzia izan duen liburuxkaz gozatzeko aukera ere izango dute; *Hasiara bat* sortzeko or-



Urbizuri, bere bi lanekin. MARKEL ARRAYAGO

duan, Urbizuri idatzitako zirriborroak, "oraindik enbrioi egoeran dauden kantuak balira bezala". "Hitz batekin laburbildu badaiteke proiektu hau, *soiltasuna* edo *gordintasuna*" erabakiko luke Urbizuri: "Denak badu koherentzia estetikoa. Ez dago



Elkarrizketa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

artifiziorik, ez dago soberan dagoen ezer. Oso esentziala da; muinera jo dugula, nolabait ere. Irizpide horri prozesu osoan eutsi diegu. Eta hori ikus dezakezue kantuetan, izenburuetan, soinuak, grabaketa-prozesuan... ikus daiteke igandero igotzen ari garen *lyric-bideo* horietan. Artisautza lana da, oso soila. Ez du esan nahi erraza denik. Kontrakoa, esango nuke."

Diskoaren aurkezpen prozesuan murgilduta zegoela sortu zitzaion Urbizuri liburua argitaratzeko ideia, eta, hasieran zalantzaren bat edo beste izan zituen arren, aurrera egitea erabaki zuen: "Hasiara batean, zoro samarra zirudien, bestela ere nahikoa lan bagenuelako. Baina, aldi berean, Ibai Arrieta bezalako argazkilaria puska bat izan genuen grabaketa-saioan. Bilaketa prozesu luzea izan da, eta pista batzuk agertzen dira izenburuen ingurukoak, letrak nondik sortzen diren, diskora joan ez diren ideia solteak, Itziar Ugarteren lana..."

### Itziar Ugarte tartean

Kazetari oñatiarra da Ugarte, eta Urbizuri *Kaier bat* liburuaren sorreran parte hartu duenetako bat da. "Gorkak egindako enkargu bat da. Garrantzitsua da harentzat diskoaren ekoizlearen eta koekoizlearen hitzak jasotzea, eta hori bera egitea izan da nire lana. Lekunberrin elkartu nintzen Gorkarekin, eta hantxe elkarrizketatu nuen, kafe baten bueltan. Nire lanaren hasieran eta amaieran Gorkaren sormen prozesuaren gaineko gogoeta bat dago; erdian, berriz, Jordi Matasi eta Joan Ponsi eginiko elkarrizketa".

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

## GARAZI BARRENA

MUSIKARIA

### 'GALDEGAZTE' SAIOAN

MARTXOAREN 5EAN, MARTITZENA, 19:30EAN,  
21:30EAN ETA 23:30EAN

ARRASATEKO BHI INSTITUTUKO IKASLEEK  
EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.

